

IKASKETA FEMINISTAK ETA GENEROKOAK MASTERRA

2023 - 2024 Ikasturtea

Master Amaierako Lana

**Utopia eraikiz: Hego Euskal Herriko praxi ekofeministara
hurbilpen bat**

Egilea:

Esther Eizagirre Pecharromán

Tutorea:

Yolanda Jubeto Ruiz

2024ko Iraila

“Utopia idatzi distopia baten erdian? Ausartzen denak altxa dezala eskua”

Karmele Jaio, *“Zirriborroak eta Gero”*

“El futuro no está escrito, nunca lo está. Depende solo de nosotros”

Layla Martínez, *“Utopía no es una isla”*

“El ecofeminismo es la utopía de las utopías”

Alicia Puleo, *“La Utopía Ecofeminista”*

Esker onak

Ikerketan parte hartu duten kolektiboei (Amillubi, Etxaldeko Emakumeak, Jauzi Ekosoziala, Lakabe eta MTB Andreak) prestutasunagatik. Bereziki Alaitz, Amets, Mabel, Mirene, Gema eta Oihanari, ikerketa hau posible egiteagatik.

Yolandari, hasieratik proiektuan eta nigan jarritako konfiantzagatik; zure jakituria, ilusioa eta alaitasuna nirekin partekatzeagatik.

Klasekideei, akademian zaurgarritasunak eta samurtasunak lekua dutela erakusteagatik. Plazera izan da zuekin eta zuengandik ikastea. Sobre todo a Marta y Guadalupe, por su cariño y generosidad.

Ane eta Loreari, sukaldeko mahaiaren nahiz telebistaren inguruan errutinari zama kentzeagatik.

Lagunei (gertu daudenei eta urruti bizi direnei), nire "ralladak" entzuteagatik.

Familiari, eusteagatik.

Utopikoei.

AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	1
2.	TESTUINGURU TEORIKOA.....	6
2.1.	Utopiak	6
2.1.1.	Ez dago alternatibarik: errealismo kapitalista eta distopia.....	6
2.1.2.	Utopia berriak: ezinezkoa egingarria bihurtzen denean	8
2.1.3.	Praxi eraldatzaile utopikoa eta posibleen pragmatismoa	10
2.1.4.	Utopia feministak: aniztasunaren eta inperfekzioaren aitortza.....	11
2.2.	Teoria ekofeministara hurbilpen bat.....	15
2.2.1.	Ekofeminismoen elkargune teorikoak.....	15
2.2.2.	Ekofeminismoetan murgilduz: esentzialismo-konstruktibismo eta Ipar-Hego hausturak.....	21
2.3.	Praxi ekofeminista.....	26
2.3.1.	Zertaz ari gara praxi ekofeministaz ari garenean.....	26
2.3.2.	Praxi ekofeminista nola aztertu	28
3.	METODOLOGIA.....	31
3.1.	Nondik aztertu: epistemologia feminista zeharlerro gisa.....	31
3.2.	Zer aztertu: aztergai diren kolektiboak.....	32
3.3.	Nola aztertu: ikerketaren diseinu metodologikoa.....	34
4.	ANALISIA.....	38
4.1.	Praxi diskurtsibo ekofeminista.....	38
4.1.1.	Auto-izendapena eta ekofeminismo kontzeptuaren inguruko gogoetak	38
4.1.2.	Lurraren eta emakumeen zapalkuntzaren askotariko loturak.....	41
4.1.3.	Gure hausturak kokatzera bidean.....	47
4.2.	Barrura begira: kolektiboen antolakuntza.....	52
4.2.1.	Antolakuntza eredu eta parte-hartze espazio bizigarriak.....	52

4.2.2.	Erronka nagusiak.....	55
4.3.	Kanpora-begira: eraldaketarako sareak ehunduz	63
4.3.1.	Erakunde publikoekin harremanak	63
4.3.2.	“Kontrahegemoniarako aliantzak”: gizarte mugimenduen arteko saretzea.....	66
4.4.	Utopia idaztera ausartu distopia baten erdian.....	71
4.4.1.	Errelato distopikoak eta alternatibaren “ezinezkotasuna”	71
4.4.2.	Utopia eraiki: prozesuaren utopiak eta iraultza lurreratuak.....	76
5.	ONDORIOAK ETA HAUSNARKETA KRITIKOA.....	81
	Bibliografia.....	85
	Eranskina: elkarrizketa gidoia.....	90

1. SARRERA

Iragarritako distopiarantz bideratuta gaudela dirudi. Ebidentzia zientifikoaren argitan, inoiz ez bezalako krisi ekologiko baten aurrean gaude: biodibertsitatearen galera, ekosistemen kolapsoa, glaziarren urtzea, itsas mailaren etengabeko igoera, lehortek, desastre naturalen areagotzea... (IPCC, 2022). Krisi ekologikoaz baino, aproposagoa da krisi ekosozialaz hitz egitea, soziala baita iturri eta eraginetan. Soziala iturrietan, metatze-logika kapitalisten, hazkunde mugagabearen dogmaren eta Mendebaldeko kontsumo eta ekoizpen erritmo altuen ondorio delako (Barcena, 2015). Soziala eraginetan, mundu mailan milioika pertsonen ongizatea eta bizitza arriskuan jartzen dituelako. Mende amaierarako tenperatura globala 1,5 °C baino gehiago igotzen bada, pertsonen osasuna, elikadura, segurtasuna, etxebizitza eta abar arriskuan egongo dira; hainbat lurraldeetan jada gertatzen ari da (IPCC, 2022). Gainera, krisi honek ez dio mundu guztiari berdinean eragiten. Hegoalde globaleko lurraldeek (paradoxikoki, berotegi-efektuko gas gutxien isuri dituztenek) pairatzen dituzte batez ere klima-aldaketaren eragin negatiboak (Falkner, 2019). Klasea, arraza edo generoa ere krisi honen aurrean zaurgarriagoak bihurtzen gaituzten faktoreak dira (Khalfan et al., 2023). Krisi ekosoziala, beraz, “krisi multipolarra” edo “erabateko krisia” bihurtzen da: ekonomikoa, soziala, politikoa, zaintzarena, elikagaiena... (Barcena, 2018: 133).

Egoeraren larritasuna kontuan izanda, gero eta gehiago dira (optimista teknologikoak eta kapitalismo “berdearen” defendatzaileak salbu) etengabeko hazkunde mugagabea sostengaezina dela diotenak. Modu batean ala bestean biosferaren mugetara egokitu beharko gara. Kontua da nola gauzatuko den egokitze hori: pixkanakako desazkunde planifikatu baten bitartez ala kolapsoaren ondorioz; era demokratikoan ala antidemokratikoan; justizia eta berdintasuna bermatuz ala logika arrazista, patriarkal eta estraktibistak indartuz (Herrero, 2016). Asko dago jokoan. Alabaina, alternatiba ezaren errelatoa gailendu da, kapitalismoa eta honen eskutik datorren etorkizun “distopikoa” saihestezinak balira bezala (Mártinez, 2020). Hondamendia, katastrofea, kolapsoa... gure eguneroko hiztegi eta pentsaeramarakoetan txertatu dira. Hain da handia, abstraktua eta boteretsua aurrean daukagun arerioa, non gauzak aldatzeko guztiz ezgai sentitzen garen.

Krisi konplexu eta korapilatsu batek krisia bezain konplexua den irakurketa kritikoa eskatzen du, korapiloak askatu eta alternatibak ehuntzeko gakoak emango dizkiguna. Baina, hortaz gain, alternatiban sinistea ere eskatzen du, bestelako

etorkizunen posibilitatea aldarrikatzea. Hainbat teoria eta mugimendu eraldatzaileek erronkari heldu diote eta bizigarriagoak diren bizitzak eta lurraldeak imajinatzen hasi dira, distopiaren erdian utopiak eraikitzen. Ekofeminismoa horietako bat da.

Ekofeminismoek (pluralean) ekologismoaren eta feminismoaren arteko elkarguneak eta balizko sinergiak aztertzen dituzte eta naturaren eta emakumeen zapalkuntza eta esplotazioa menderatze logika partekatu baten ondorio direla mahaigaineratzen dute (Begiristain, 2021; Herrero 2015). Gainera, analisi ekofeministetan begirada interseksionala txertatzen da, arraza, klasea eta abar generoarekin nola gurutzatzen diren aintzat hartuz. Zentzu horretan, ekofeminismoek zapalkuntza guztiekin amaitzea dute helburu (Puleo, 2017: 117). Ekologismotik eta feminisмотik paraleloan garatutako ikuspuntuak baliagarriak diren arren, ez dira nahikoa krisi ekosozialaren dimentsio eta erronka guztiei erantzuteko. Izan ere, gizarte bat ekologikoki jasangarria izan daiteke eta logika eta egitura patriarkaletan oinarrituta egon (Herrero, 2016: 146). Bizitzaren zaintza erdigunean izango duen sistema eraiki nahi badugu, gaur egun emakumeek egiten duten zaintza-lana ikusarazi eta era berdinzalean banatu beharko da, edo bestela, esplotazioan oinarritutako sistema izaten jarraituko du (Begiristain, 2021; Carrasco, 2016). Eta, aldi berean, feminismoetatik egiten diren analisiak kontestu natural mugatuan kokatzen ez badira, begirada antropozentrista mantentzeko arriskua dago (Bosch et al., 2005). Ekofeminismoen indargunea, hain zuzen ere, bi analisi hauek uztartzea da, ikuspegi holistikoago edo osatuago bat garatuz. Horregatik guztiagatik, ekofeminismoek krisi ekosozialari aurre egiteko helduleku aproposa eskaintzen dutela deritzot.

Halaber, ekofeminismoek, etorkizun justu eta bizigarriagoak eraiki nahi dituzten heinean, alternatiba ezaren aurrean utopiaren posibilitatea berpizten dute. Ez naiz utopiaren eta ekofeminismoen lotura mahaigaineratzen duen lehena. Utopiaren inguruko eztabaida akademikoan, esaterako, zientzia fikziozko literatura ekofeminista aztertu izan da (Haran, 2010; Sargisson, 1996; Sierra, 2015). Testu filosofiko nahiz soziologikoetan ere ageri da lotura hori. Adibidez, Alicia Puleok dio ekofeminismoa “utopietan utopikoena dela” (Puleo, 2017); Marta Pascual eta Yayo Herreroren ustez, kolektibo ekofeministak “utopiaren laborategi txikiak” dira (Pascual eta Herrero, 2011); eta Iñaki Barcenak, bere partez, ekosozialismo feminista egungo krisiari aurre egiteko behar dugun “utopia berria” dela mahaigaineratzen du (Barcena, 2018).

Kasu honetan, utopia ekofeministen diskurtso eta praktika kokatuetan jarri nahi izan dut fokua, hots, praxi ekofeministan. Haatik, ez da lan erraza izan. Izan ere, azken urteotan ekofeminismoak garapen teoriko nahiko sendoa izan duen arren, praxi irmo bat garatzeke dago oraindik, batez ere Mendebaldean (Begiristain, 2021: 27; Martínez, 2007: 113). Hala eta guztiz ere, praxi ekofeminista aztertzea interesgarria da teoria ekofeminista (zenbaitetan abstraktuegia edo urrunegia iruditu dakigukeena) tokian tokiko behar, gatazka, oztopo eta abagune zehatzetan lurreratzen duelako (Begiristain, 2021: 36). Ariketa hori ezinbestekoa da eztabaida teorikotik jardun soziopolitiko eraginkorrera pausua eman nahi baldin bada. Kasu honetan, Hego Euskal Herriako kontestuan kokatu dut ikerketa.

Alderdi teorikoari dagokionez, ikerketa honek garapen urriagoa izan duen praxi ekofeministaren inguruko ezagutza-arloari egin nahi dio ekarpena. Halaber, ezagutza hori kokatzeko asmoz, teoria ekofeminista Euskal Herriko kontestura lurreratzen dabilzan autoreen lanari gehitzen zaio (Barcena, 2015, 2018, 2020; Begiristain, 2021). Utopiaren inguruko eztabaida akademikoa ere aberastu nahi du, utopiak ekofeminismoarekin dituen elkarguneak praxi sozial konkretuaren analisisira ekartzen baititu. Lan honekin, ekarpen teorikoaz gain, ekarpen sozial bat egitea ere espero dut. Alde batetik, gaur egun zentrala den trantsizio ekosozialaren inguruko eztabaidan ekofeminismoetatik iritsitako ikuspuntu eta esperientziak jaso nahi izan ditut, txikitasunetik eta marjinetatik alternatiba eraikitzen ari direnen ahotsak erdigunean jarriz. Eta, bestetik, alternatibaren posibilitatea aldarrikatu nahi dut, paralisi politikoaren eta ustezko alternatiba ezaren aurrean ekintza kolektiboaren garaipen txikiak eta abaguneak mahaigaineratu. Erakutsi nahi dut distopiaren erdian utopiak eraikitzea posible dela, eraikitzen ari direla, hemen eta orain.

Ikerketaren helburu orokorrak eta zehatzak hurrengoak dira:

- Hego Euskal Herrian lurraren defentsa eta feminismoa uztartzen dituzten kolektiboetan garatzen ari den praxi ekofeminista aztertzea.
 - Kolektiboen praxi diskurtsiboan begirada ekofeminista nola barneratzen den arakatzea.
 - Kolektiboen barne antolakuntzako dinamikak aztertzea eta espazioen bizigarritasuna zaintzeko estrategia eta erronka nagusiak identifikatzea.
 - Kolektiboen kanpo-harremanei erreparatzea, erakunde publikoekin eta gizarte mugimenduekin duten harremanetan arreta jarritz.
- Praxi ekofeminista kokatuaren eta utopien arteko lotura aztertzea.
 - Distopiaren eta alternatiba ezaren diskurtsoek praxi ekofeminista garatzerakoan zein zailtasun dakartzaten arakatzea.
 - Aztertutako kolektiboek utopiaren inguruan egiten duten irakurketan sakontzea.
 - Utopia berri feministen elementuak (egingarritasuna, prozesura-bideratuta egotea, aniztasuna...) aztertutako kolektiboen jardunean identifikatzea.

Lanaren planteamendua hurrengo hipotesietatik abiatzen da:

- Azken urteetan (eta batez ere pandemiak geroztik), ekofeminismoaren presentzia areagotu egin da Hego Euskal Herriko mugimendu feminista nahiz ekologistatik abiatutako hitzaldi, jardunaldi eta topaketetan¹. Hortaz, espero da kontestu honetan jarduten duten kolektiboek ekofeminismoaren argudio nagusien ezagutza eta nolabaiteko barneraketa diskurtsiboa izango dutela (oinarrizko maila batean bada ere).

¹ Azken bi urteetako zenbait adibide aipatzearen: 2022ko Ekotopaketetan "Bizitza bizigarriak ekofeminismotik" hitzaldia; 2022an Bilgune Feministak antolatutako topagune feministan "Borroka ekologista, ekofeminista da" mahai-ingurua; 2023ko Euskal Herriko Gazte Feministen (orduan Euskal Herriko Neska* Gazteak) topaketetan "Lurraren eta feminismoaren sinergietatik" hiltzaldia; edota 2023ko Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako "Ekofeminismoak konpos(t)atzen Euskal Herrian" jardunaldiak.

- “Ekofeminista” adjektiboa bereganatzen ez duten arren, Hego Euskal Herrian alternatiba begirada ekofeministatik eraikitzen ari diren kolektiboak daudela uste dut; haien analisi, helburu, prozesu eta ekintzetan lurraren defentsa eta feminismoa uztartzen dituztenak. Praxi ekofeminista (zentzu zabalago batean), beraz, gure kontestuan garatzen ari da eta aztergarria da.
- Gizartearen eraldaketan diharduten eta etorkizun bizigarriagoak eraikitzearen posibilitatea aldarrikatzen duten kolektiboek utopia (kontzeptu nahiz ideal bezala) gertukoa dute.

Lan honen analisisia Hego Euskal Herrian jarduten duten eta lurraren defentsa eta feminismoa uztartzen dituzten bost kolektiboetako esperientzietatik abiatzen da: Amillubi, Etxaldeko Emakumeak, Jauzi Ekosoziala, Lakabe eta MTB Andreak. Oso talde anitzak dira, maila desberdinetan eta esparru desberdinetatik eragitek dutenak (elikadura burujabetza, komunitarianismoa, ekosozialismoa, mugikortasuna...). Haien esperientziara hurbiltzeko, metodologia kualitatiboa hobetsi dut. Zehazki, kolektiboetako kideekin sakoneko elkarrizketak egin ditut, gidoi erdiegituratu batetik abiatzen direnak. Laginaren tamaina kontuan izanda, ez dut lanaren emaitzen orokortasuna aldarrikatzen. Kontrara, nire asmoa praxi horren dinamiketan sakontzea izan da; eta, epistemologia feminista jarraiki, krisi ekosozialaren inguruko eztabaida hegemonikoaren marjinetan dauden ahotsak eta esperientziak jasotzea.

Lanaren egiturari dagokionez, lau zati nagusitan banatzen da. Lehenik, testuinguru teorikoan, ikerketaren oinarri diren hiru esparru teoriko nagusiak landu ditut: pentsamendu eta praxi utopikoarena, teoria ekofeministarena eta praxi ekofeministarena. Bigarrenik, ikerketan erabilitako metodologiaren inguruko zenbait azalpen labur egin ditut. Ondoren, azterketa enpirikoaren edo analisiaren atala dator, lau zati nagusitan banatu dudana: praxi diskurtsiboa, kolektiboen barne-antolakuntza, kolektiboen kanpo-harremanak eta, azkenik, errelato distopikoaren eta praxi utopikoaren inguruko hausnarketak. Amaitzeko, ondorio nagusiak jaso eta ikerketa prozesuaren inguruko hausnarketa kritikoa egin dut.

2. TESTUINGURU TEORIKOA

2.1. Utopiak

Testuinguru teorikoaren lehen atal honetan pentsamendu eta praxi utopikoaz hitz egingo dut. Horretarako, lehendabizi, alternatiba ezaren eta distopiaren gaiei helduko diet. Bigarrenik, utopiaren kontzeptuan murgilduko naiz, bereziki utopia klasikoen eta berrien arteko bereizketan. Ondoren, praxi utopikoaren ideian sakonduko dut, praxi ekofeministan fokua jartzen duen ikerketa batean, praxi eraldatzailearen eta hori gauzatzeko dauden zailtasunen inguruko zenbait azalpen ematea funtsezkoa dela baiteritzot. Azkenik, utopia feministen inguruan hitz egingo dut, prozesu utopikoaren inperfekzioaz, aniztasunaz eta izaera kolektiboaz eskaintzen dizkiguten zenbait azpimarratuz.

2.1.1. Ez dago alternatibarik: errealismo kapitalista eta distopia

XX. mendeko azken hamarkadetan, neoliberalismoa indartu ahala, alternatiba ezaren diskurtsoa finkatzen joan zen. 80. hamarkadan Margaret Thatcherrek “there is no alternative” famatuarekin argi utzi zuen kapitalismo globalizatua zela bide hoberena eta bakarra. Thatcherren antzera, Sobietar Batasunaren disoluzioaren ondoren, Francis Fukuyamak historiaren amaieraz hitz egin zuen *The end of the history and the last man* (1992) liburuan. Fukuyamaren arabera, kapitalismoaren eta demokrazia liberalaren garaipenarekin, historia mugitzen zuen motorra gelditu egin zen, ez zegoen kapitalismoaren hegemonia ideologikoa kolokan jarriko zuen gertaerarik, ezta eraldaketa soziopolitikorako lekurik ere (Apodaka, 2018).

Denborarekin frogatu zen Fukuyamaren tesia ez zela zuzena. Irailaren 11ko erasoak eta gero, autore berak onartu zuen okerrean zegoela. Agerian geratu zen historiaren amaieraren tesia diskurtso neoliberal eta agenda neokontserbadorea indartzeko estrategia bat zela, eta ez nazioarteko errealitate politikoaren diagnostiko objektibo bat. Baina horrek berdin zion. Layla Martínezek dioenez, kontua da ordurako alternatiba ezaren argudioa erreala bihurtu zela bere ondorioetan, “politikari, agintari, idazle, akademiko eta kazetari askok sinetsi egin zutela eta egia balitz bezala jokatu zutela”, behin eta berriro erreproduzitzen (2020: 123). Geroztik, kapitalismoaren garaipena eta alternatiba eza autobetetako profeziak bihurtu dira (Fisher, 2016).

Eliteen mantra errepikatuz gain, neoliberalismoaren garaipen nagusia “subjektuen kolonizazioa” deiturikoa izan da (Mártinez, 2020). Kapitalismo neoliberalak norbanakoen subjektibitateak (desirak, portaerak...) zeharkatu ditu.

Mark Fisherrek dioenez, “errealismo kapitalistaren” garaian bizi gara: kapitalismoa errealitatea bihurtu da, errealitate osoa, bakarra (Fisher, 2016). Halaber, subjektuen kolonizazioak gizartearen indibidualizazioa ekarri du eta, ondorioz, etorkizunerantz begiratzeko (eta etorkizunaz amesteko) moduak ere indibidualizatu egin dira. Eduardo Apodakaren hitzetan, “orain nork bere utopia pertsonal eta pribatuari ekin behar eta ahal izango dio”, eta, prozesu horretan, pentsamendu taktiko-estrategiko instrumentala gailentzen da: “lehia, ahalegina, lorpenak, kontsumoa” (2018: 66). Haatik, ekintza indibidualak ez dira nahikoa paradigma eta antolamendu estrukturalak eraldatzeko (Martínez, 2020).

Estruktura makroei era indibidualean aurre egitea oso zaila da, ezinezkoa ez bada. Eta, kolektiboan amesteko krisiak jota, gauzak aldatzeko ezgai sentitzen gara; esperantzarik gabe (Apodaka, 2018; Fisher, 2016). Alternatiba eza, indibidualizazioa, esperantza falta... oztopo esanguratsuak dira pentsamendu eta praxi eraldatzailea garatzeko. Aitzitik, distopia-hazitegi ezin hobeak dira. Distopia “imajina daitekeen etorkizunik ilunena da, gizartearen gainbeherarik latzena erakusten du[ena], gaurkoaren kritika bat egitearekin batera” (Garmendia, 2018: 54). Errelato distopikoaren areagotzea nabarmena izan da azken hamarkadetan, bai sorkuntza kulturean bai gure eguneroko pentsaera-markoetan (Sargisson, 1996). Etorkizuna irudikatzean katastrofismora jotzeko joera dago: dena okerrera joango da, eta ez dago patu hori aldatuko duen ezer edo inor. Egia da pentsaera distopikoak ez duela zertan negatiboa izan. Izan ere, egungo egiteko moduek etorkizunean izan ditzakeen ondorioen larritasuna azpimarratzea ezinbestekoa da jarrera kritikoa sustatzeko. Alabaina, kritika hutsak ez du eraldaketa eragiten. Katastrofismoak, gehienetan, politikoki paralizatu egiten gaitu (Garmendia, 2018: 54).

Errelato distopikoak bereziki indartzen ari dira krisi ekologikoaren kontestuan. Sarreran aipatutako datuak kontuan izanda, imajinazio gutxi behar da etorkizun ilunak eta askotariko kolapsoak irudikatzeke. Ebidentzia zientifikoaren argitan, egungo egoera “katastrofikoa” da jada, eta, gauzak aldatu ezean, pronostikoak are ezkorragoak izango dira. Kontestu honetan, ekoantsietatea areagotzen ari da (Baños, 2023). Ekoantsietatea “ingurumen krisiaren orainaldiko nahiz etorkizuneko inpaktuez kontzientziatzearen ondorioz garatzen diren emozio multzoa” da: tristura, larritasuna, beldurra, ezintasuna edo amorrua eragiten dituena, besteak beste (Baños, 2023: 81). Irene Baños psikiatraren arabera, gure burua krisi ekosozialaren inpaktuak murrizteko tresnarik gabe ikustean, estresak eta beldur kronikoak ezintasunarekin eta frustrazioarekin bat egiten dute, eta “ekoekintzaren” eta “ekoparalisiaren” arteko bidegurutzean aurkitzen gara (Baños, 2023: 85). Ekoantsietateak ez du zertan

problematikoa izan, baina problematikoa bihurtu daiteke ondo fokatzen ez bada. Bañosen ustez, ekoparalisia arintzeko “antidotoak” gizartean eragiteko eta konponbidearen parte aktiboa izateko dugun gaitasunaz jabetzean datza. Eta, krisi ekosoziala bezalako arazo baten aurrean, eragiteko gaitasun hori kolektiboan antolatu behar da (Baños, 2023: 87). Kolektiboan antolatzea bereziki konplexua da indibidualizatua edo atomizatua dagoen gizarte batean; baina, Fisherrek dioenez, “krisi ekologikoari erantzuteko beharrezkoa den subjektu kolektiboa existitzen ez bada, eraiki egin beharko dugu” (2016: 82).

Finean, funtsezkoa da aldaketaren posibilitatea aldarrikatu eta kolektiboan antolatzea. Eta, horretarako, pentsamendu eta praxi utopikoa bereziki aproposa da. Alba Garmendia filosofoaren hitzetan, “utopiak ikuspegi [distopikoari] gehitzen diona esperantza da: etorkizuneko distopia posible izanagatik, bada utopiarako lekua ere” (2018: 54).

2.1.2. Utopia berriak: ezinezkoa egingarria bihurtzen denean

Kontzeptu zabal bezain abstraktua izanik, zaila da utopia definizio batera mugatzea. Kasu honetan, Lucy Sargissonen definizio sinple eta zabaletik abiatzen naiz ni. Utopia grezierazko *ou* (ez) eta *topos* (leku) hitzetatik dator. Existitzen ez den lekuari egiten dio erreferentzia, ez-lekuari. Hitzari beste esanahi bat ere eman izan zaio. Izan ere, baliteke topiaren aurretik datorrena *eu* (on) izatea. Utopiaz ari garenean leku onaz ere ari gara, beraz. Anbiguotasun etimologikoari eta hitz-jokuari helduz, Sargissonek utopia “ez den leku ona” bezala definitzen du (1996: 1).

Tomas Moro abokatu, idazle eta politikari humanista izan zen utopia hitza erabili zuen lehena 1516an argitaratutako *Utopia* liburuan. Geroztik, existitzen ez den (eta ziurrenik inoiz existituko ez den) denboran eta espazioan bereizitako gizarte ideala deskribatzen duen narrazio, pentsamendu edo planteamendu politiko orori utopiko adjektiboa jarri izan zaio (Garmendia, 2018: 46). Formari dagokionez oso anitzak dira utopiak: askotan literaturarekin eta zientzia fikzioarekin lotu izan dira, baina testu politikoen forman ere aurki ditzakegu. Edukiari dagokionez ere, askotariko utopiak daude. Dena den, badaude utopia guztiek partekatzen dituzten zenbait ezaugarri: alde batetik, garaiko gizartearen kritika sakonetik abiatzen dira; eta, bestetik, gizarte eredu perfektuak edo idealak deskribatzen dituzte, gauzatu-ezinak. Ezaugarri hauek dituzten utopiei *utopia klasiko* izena ematen zaie. Ikerketa honetan zentrala den praxi utopikoaren ideia ulertzeko, ordea, utopia klasikoak alde batera

utzi eta *utopia berrietan*² sakondu behar dugu. 1968ko eztanda sozial, kultural eta politikoaren eskutik utopiaren eraberritzea iritsi zen, gaur egun arte irauten duena. Utopia berriak utopia klasikoaren izaera estatikoa irauli zuen: utopia jada ez zen ezinezkoa, egingarria baizik. Hor dago gakoa: utopia berria ez da imajinatzen den zerbait (soilik), gauzatu egin daiteke.

Utopia klasikoaren moduan, utopia berria gizartearen kritikatik abiatzen da, eta gaur egungo errealitatearen ezinezkotasuna agerian jartzen du:

“Sistema erreala ezinezkoa da: bere logika oso erreala delako, mundua antolatzen duelako, desioak pizten dituelako, den-dena kapitalaren interesen neurrira makurtzen duelako da ezinezkoa. Ezinezko da hazkunde mugagabea, ezinezkoa guztia kapitalizatzea, ezinezkoa demokrazia kapitalismoaren mendean, ezinezkoa krisi humano eta ekologikoan irautea... Baina ezinezkotasuna, maiz oso sentitua izan arren, ez da agerikoa. Irudimen kritiko utopikoak eman behar digu ezinezkotasunaren kontzientzia” (Apodaka, 2018: 73).

Haatik, utopia klasikoa ez bezala, kritikaz haratago doa. Bi logikatan aritzen da: kritikoa edo negatiboa eta alternatiboa edo positiboa, eta logika hauek interdependentek dira (Apodaka, 2018; Sierra, 2015). Hau da, jarrera kritikoa garatzeko irudimen soziala eta politikoa ezinbestekoak dira; eta, aldi berean, harremantzeko eta antolatzeko modu berriak irudikatu ahal izateko egungo sistemaren analisi eta kritika zorrotzetik abiatu behar da (Apodaka, 2018; Sierra, 2015).

Utopia berriaren logika alternatiboak, hortaz, posiblearen atek zabaltzen dizkigu. Honek utopiaren denboran ere eragiten du: jada ez da etorkizuneko afera bat, orainaldi politikoko afera bat baizik (Sargisson, 1996). Eta, orainaldiko mundu sozialean eragin nahi denez, utopiaren jarduna espazioan kokatzen da, ez dira urrutiko irla edo lurraldeak behar utopia gauzatzeko. Utopia orain eta hemen gauzatu daiteke. Egingarritasuna, haatik, potentziala da, ez dago bermatuta. Utopia egiten ez bada, ez da izango, ez-lekua izaten jarraituko du (Garmendia, 2018).

² Utopia motak sailkatzeko irizpide desberdinak erabiltzen dira eta izen desberdina eman izan zaie hemen utopia klasiko eta utopia berri deitzen dietenei. Kasu honetan, Garmendiari (2018) mailegatu diot utopia klasikoen eta berrien arteko bereizketa.

2.1.3. Praxi eraldatzaile utopikoa eta posibleen pragmatismoa

Utopiak ez-lekua izateari utz diezaion, ezinbestekoa da pentsamendu utopikotik praxi utopikora jauzia ematea. Baina, zer da praxi utopikoa? Praxi kontzeptuak Antzinako Grezian du jatorria, Aristotelesen *Nikomarentzako Etikan*, hain zuzen ere. Aristolesek hiru ezagutza edo jarduera mota bereizi zituen: *theoria* (pentsamendua), *poiesis* (sorkuntza), eta *praxis* (ekintza) (Sánchez, 2003: 45). Gaur egun erabiltzen den praxi kontzeptuaren adiera orokortua, ordea, Karl Marxi zor diogu. Marxen arabera, filosofiak interpretazio hutsetik eraldaketarako pausua eman behar zuen. Pausu hori emateko, materialismo historikoaren teorian praxiaren kontzeptua berreskuratu eta berrinterpretatu egin zuen. Marxentzat, praxia errealitate sozial, politiko eta ekonomikoa eraldatzeko asmo kontzientea duen jarduera iraultzailea da (Sánchez, 2003: 263). Praxi eraldatzaile orok alde ideal edo teoriko bat eta alde material edo praktikoa ditu. Hau da, praxia osatzen duten alde teoriko eta praktikoa bereizi ezinak dira (Sánchez, 2003: 315).

Pentsaera idealaren presentziak praxi eraldatzailea utopiara lotzen du. Alabaina, lotura hau kuestionatua izan da literatura marxistan. XIX. mendeko sozialista utopikoek gizartearen pixkanakako eraldaketan sinisten zuten, ereduzko zenbait komunitateetan garatzen ari zen bestelako gizarte-antolakuntza mundu osoan zabaltzearen posibilidadean (klase desberdinetako herritarren borondateak eta elkarlanak ahalbideratuko zuena) (Martínez, 2020). Sozialista zientifikoentzat, ordea, kimera hutsa zen hori, historia eta errealitate ekonomikoaren benetako baldintzak kontuan hartzen ez zituena. Eraldaketa ezinezkoa izango zen klase borroka eta proletarioen iraultza gabe (Martínez, 2020: 57). Marxismotik utopiari egindako kritika zilegi den arren, mugatua da, utopiaren adiera klasikoari egiten baitio erreferentzia. Aipatu bezala, utopia berriak egungo mundu sozialean eragiteko asmoa du, eta gauzatze hori baldintza erreal kokatuetatik abiatzen da, ez “ameskeria” hutsetik.

Edozein kasutan, egia da praxi utopikoak idealista ez ezik, pragmatikoa ere izan behar duela; bi indar hauen arteko tentsioak eraginda mugitzen da. Printzipioz, badirudi utopia eta pragmatismoa kontzeptu kontrajarriak direla. Alabaina, prozesura bideratutako utopia berriak *zer* galderari erantzuteaz gain, *nola* galderari ere erantzun behar dio, eta, zentzu honetan, auzi praktikoa edo pragmatikoa bihurtzen da (Apodaka, 2018).

Nolanahi ere, pragmatismoaren kontzeptua ere birpentsatzea beharrezkoa da statu quoaren defentsa mugatzailean erori nahi ez badugu. Apodakaren ustez, jauzi kualitatibo bat eman behar da *probableen* pragmatismotik *posibleen* pragmatismora

(Apodaka, 2018). Probableen pragmatismoak konformismoaren logika jarraitzen du: praxia probablea denari egokitu behar da, frogatu daitekeenari. Alabaina, “zentzuzkoa” edo “probablea” ez da begirada neutro batetik definitzen, logika kapitalista batetik baizik. Praktikoa edo pragmatikoa, beraz, errentagarritasunarekin parekatzen da maiz, begirada utilitarista gailenduz (Sánchez, 2003: 288). Eta, aldi berean, errentagarritasun kapitalistaren mugetatik kanpo dagoena “ezinezkoa” bihurtzen da. Apodakaren hitzetan, “xede edo helburu horiek ezinezkoak dira, ez dutelako oinarririk oraingo egoeran. Jakina, oraingo egoeraren azterketa oraingo egoera bera ezarri duten egitura material eta kognitiboetatik egiten denez, ez dago sistema gaindizterik” (2018: 78). posibleen pragmatismoak, aldiz, irekitasunera jotzen du “benetan egingarria denaren eta ezinezkoaren arteko marjinan” mugituz (Sierra, 2015: 191). Praxi eraldatzailea egingarria izan behar da, ez errentagarria. Alabaina, errealismo kapitalistaren eta subjektuen kolonizazioen garaian, hori posible izateko gure behar eta desirak ere birpentsatu behar egin dira. Kapitalaren edo merkatuen zentralitatea kuestionatzen eta iraultzen duen paradigma aldaketa bat gertatu ezean, bizitza (eta ez kapitala) erdigunean jartzen duen praxia gauzatzea oso zaila da, ia ezinezkoa (Pérez Orozco, 2023).

2.1.4. Utopia feministak: aniztasunaren eta inperfekzioaren aitortza

Utopia berrien eta praxi utopikoaren ezaugarri nagusiak laburki aipatu ondoren, testuinguru teorikoaren lehen atalarekin amaitzeko, feminismoaren eta utopiaren lotura azalduko dut. Izan ere, feminismitik abiatu zen utopia berrien birkontzeptualizazio nagusienetako bat: aniztasunaren eta inperfekzioaren aitortza, alegia.

Angela Sierrak dioenez, teoria feminista orok, gizarteko antolamendua eraldatzea bilatzen duen heinean, izaera utopikoa du (Sierra, 2015). Hain zuzen ere, kapitalaren interesek ez ezik, patriarkatuarenak ere posiblearen esparrua mugatzen dute maiz. Ondorioz, utopiaren ez-lekua lagungarria da egungo mundu soziala egituratzen duten dualismoen (emakume/gizon, natura/kultura, pribatu/publiko...) mugetatik ihes egin eta bizitzeko modu alternatiboak imajinatzeko (Sargisson, 1996: 41). Bestalde, feminismoak praxi utopikoarekin lotura ere badu. Gizartearen eraldaketan sinisten du eta horretan dihardu, orainaldiko errealitate kokatuan eragiten (Haran, 2010: 393).

Ikerketa honetan praxi ekofeministaren gaiari utopiatik heldu izana ere ez da kasualitatea. Izan ere, pentsamendu eta praxi utopikoa gutxietsia izan da “irrazionala” izateagatik, ameskeria edo fantasia hutsa dela salatuz. Sargissonen

ustez, utopia kulturalki eta sozialki “feminizatu” egin da pentsamendu zientifiko, arrazional eta pragmatiko maskulinizatuaren aurrean. Feminismoak utopiaren kontzeptua bereganatzea estrategikoa da, hortaz, ezagutzaren inguruko dikotomia androzentrikoei aurre egiten baitie (Sargisson, 1996).

Ezer baino lehen, argitu beharra dago emakumeek idatzitako edo planteatutako utopia guztiak ez dutela zertan feministak izan; eta, era berean, utopia feministak edozeinek pentsa eta eraiki ditzakeela. Halaber, utopia feministek emakumezkoen askapena helburu duten arren, ez dira emakumezkoen buruzko utopiak (edo ez bakarrik): alde batetik, gizartearen eraldaketa orokorra bilatzen dutelako; eta, bestetik, feminismoaren subjektua zabaltzen ari den honetan, utopia feministen subjektua ere zabaltzen delako. Hain zuzen ere, sarritan gizarte feminista utopikoak genero-bitartasunetik haratago irudikatzen dira. Beraz, utopia feminista deritzogu genero-desberdintasunaren zein egitura soziopolitiko, kultural, eta ekonomiko patriarkalen desagertzea irudikatzen eta sustatzen duen pentsaera eta praxiari (Sierra, 2015). Pentsaera utopiko feminista oso anitza da formari dagokionez. Diskurtso, manifestu nahiz bestelako testu politikoetan ageri da (Sargisson, 1996); nahiz eta literaturaren esparrua den, ziurrenik, utopia feministarekin gehien lotu izan dena, askotan zientzia fikzioaren forma hartuz. Haranek dioenez, zientzia fikzioa eta utopia ez dira sinonimoak, baina bien elkargunea bereziki emankorra (izan) da eraldaketa soziala irudikatzen duten feministentzat³ (Haran, 2010: 396).

Esan bezala, utopia feministek utopia perfektuaren ideia irauli dute. Egia da printzipioz utopia inperfektuaren ideiak oximoron bat dirudiela. Azaldu bezala, utopia klasikoek gizarte eredu ideala deskribatzen dute, zehatza, bakarra. Utopia feministetan, ordea, zehaztasuna eta perfekzioa ez dira hain garrantzitsuak; hamaika etorkizun desiragarri imajina ditzakegu testuinguruaren edo egoeraren arabera. Horrek ez du esan nahi etorkizun idealen antolamendura hurbiltzeko imajinazio ariketak egiten ez direnik. Deskribapen horien xedea, ordea, hausnarketa piztea eta

³ Lan honetan literatura eta zientzia fikzio (eko)feministan murgilduko ez naizen arren, nago zientzia fikziozko narrazioak pentsamendu utopikoaren eta ekofeminismoaren arteko lotura aztertzeko iturri interesgarria direla. Are, etorkizun bizigarria(goa)k irudikatzen tresna bihurtzen dira errelato distopikoak gailentzen diren garaian. Utopia ekofeministen baitan lan esanguratsuak dira, besteak beste: Ursula K. Leguinen *The left hand of darkness* (1969), Marge Piercyren *Woman on the Edge of Time* (1976), edo Starhawken *The fifth sacred thing* (1993). Euskal kontestuan ere utopiak fikzioaren bitartez kokatzeko ariketa egin dute hainbat idazlek *Zirriborroak eta gero* (2023) liburuan. Liburu honetan jasotako narrazioak kontrahegemonikoak izateko asmoa dute, ekologismotik, (eko)feminismotik, komunitarianismotik eta beste hainbat begiradetatik imajinatutakoa fikzio -eta errealtate- zehatzetan lurreratuz.

orainaldiko praktiken noranzkoa argitzea da, ez izan daitekeenaren ikuspegi determinista edo mugatzaile bat garatzea (Garmendia, 2018).

Inperfekzioaren aitortzak utopia feminista prozesura bideratutako utopia dinamikoa bihurtzen du, orainaldia eraldatzea xede duena (eta ez hainbeste etorkizuna programatzea). Gizarte perfektu eta estatikoetan giza-antolamendua zehaztuta dago, ez da eztabaidatzen. Zentzu horretan, Sargissonek dio utopia klasikoak politikaren heriotza dakarrela eta totalitarioa izateko arriskua duela (Sargisson, 1996). Utopia feminista berriak, ordea, politik(o)arekin etengabeko lotura du. Kontzientziak esnatzen ditu; eta, hortik abiatuta, bestelako gizarte batera eramaten gaituen prozesua etengabe birnegoziatzen da. Ez dago finkatutako etorkizun idealik, desiratutako bestelako mundua orainaldian zertan zeratzen den komunitatean eztabaidatuko da. Garmendiak dioenez, “egoera utopikoena ez da atsedeen egoera, ekintzarako posibilitatea baizik” (2018: 58).

Sargissonen arabera, bi faktore nagusi daude utopiaren birkontzeptualizazio feministaren atzean. Alde batetik, etorkizunaren irudikapen itxi eta deterministek feministengan sortzen duten ezinegona aipatzen du. Generoari loturiko irakurketa esentzialistak problematizatzearen ondorio da hori, dualismo naturalizatuak eta aurrez idatzitako patuak saihestu nahi izatearena. Bestetik, unibertsaltasun asmoari uko egiteko premia azpimarratzen du. Izan ere, feminismoetatik salatu da subjektu unibertsalaren ideia saldu izan digutenean subjektu horrek genero, arraza, klase sozial... jakin bat zuela. Subjektuen aniztasuna onartzeak bestelako etorkizunen eta “bizitza onaren” kontzepzio anitzak daudela onartzera garamatza; eta, aldi berean, utopia hori gauzatzeko hamaika modu daudela gogoraraztean digu, tokian tokiko behar eta aukeren araberrakoak (Sargisson, 1996: 51-52).

Halaber, feminismoak pertsonon zaurgarritasuna eta interdependentzia mahaigaineratu ditu, subjektu utopikoaren izaera kolektiboa azpimarratuz. Prozesu utopikoa ez da prozesu indibiduala, eraldaketa sozialaren bilaketan eta horren borrokan batak bestearen eustea beharrezkoa du. Haranen hitzetan, “etorkizun ez zapaltzaile eta justuagoen itzaropena partekatzen dutenekin harremanduz soilik egingo da posible utopia” (2010: 399). Neoliberalismoan gailendu diren utopia pertsonaletatik utopia kolektiboetara jauzia emateko marko interesgarria eskaintzen digu feminismoak, beraz.

Amaitzeko, hurrengo atalera pasa baino lehen, aipatu beharra dago utopia feministak hainbat ikuspuntuetatik eraikitzen direla. Horietako bat ekofeminismoa da. Alicia Puleok dioenez, ekofeminismoa “utopietan utopikoena da zapalkuntza

guztiak gainditu nahi dituelako: sexu edo generoarena, klasearena, arrazarena, espeziearena..." (Puleo, 2017: 117). Ni neu, ez dakit ekofeminismoa "utopikoena" dela esatera ausartzen naizen. Baina argi dagoena da egungo krisi ekosozialari aurre egiteko irudimena ez ezik, analisi kritiko eta osatuak ere behar ditugula, auzi ekologikoaz gain (askotariko) berdintasunaren auzia aintzat hartuko dutenak. Eta, zentzu horretan, ekofeminismoa utopia eraikitzeke abiapuntu eta itsasargi aproposa dela deritzot.

2.2. Teoria ekofeministara hurbilpen bat

“Ekofeminismo” hitza Françoise d’Eaubonne idazle feminista frantsesak erabili zuen lehenengo aldiz 1974an argitaratutako *Le féminisme ou la mort* liburuan. D’Eaubonnek menderatze patriarkalaren eta naturaren suntsipenaren arteko lotura mahaigaineratu zuen, gainpopulazioaren gaiari lotuta batez ere. Bere ustez, kontrolean eta menderatzean oinarrituta dagoen sistema patriarkalak, emakumearen subordinazioa ez ezik, naturaren suntsipena ere ekarri zuen. Eta, beraz, krisi ekologikoa gainditu ahal izateko, ezinbestekoa zen “gizon patriarkalari” aurre egin eta sexu-arteko harremanak birplanteatzea (Mellor 2000, 63).

Ekofeminismoa ekologismoaren eta feminismoaren arteko elkarguneak eta balizko sinergiak aztertzen dituen pentsamendu-korrontea, mugimendua eta praxi kritikoa bezala definitu dezakegu (Begiristain, 2011; Herrero 2015). Proposatutako definizioari gehiegizko orokortasuna lepora dakiokkeen arren, orokortasun hau beharrezkoa da ekofeminismoaren aniztasuna jaso ahal izateko. Izan ere, hamaika feminismo eta ekologismo korronte dauden moduan, hamaika ekofeminismo korronte daude (Martínez, 2007: 102). Karen Warrenen hitzetan, “ekofeminismo terminoak posizio aniztasunari egiten dio erreferentzia” eta aniztasun honetatik lortzen du bere indarra eta esanahia (Warren, 1994; hemen aipatua: Begiristain, 2021: 31). Hori dela eta, ekofeminismoez (pluralean) hitz egiten da maiz. Dena den, badaude ekofeminismo guztiek, kasuak kasu, amankomunean dituzten zenbait argudio teoriko. Atal honen lehenengo zatian elkargune teoriko horiek laburki azalduko ditut⁴, eta bigarreanean, aldiz, haustura teoriko nagusietan murgilduko naiz.

1.1.1. Ekofeminismoen elkargune teorikoak

Ekodependentziaren eta interdependentziaren aitortza

Emakumearen zapalkuntzaren eta naturaren etengabeko ustiapenaren atzean logika patriarkal partekatu bat dagoela planteatzen dute ekofeminismoek. Parekotasun hori Mendebaldeko kulturaren zentralak diren dualismo edo dikotomietatik abiatzen da, kultura/natura, gizona/emakumea, produkzioa/erreprodukzioa eta abar (Mellor, 2000: 93). Modernitatetik herentzian

⁴ Atal honetan ekofeminismo korronte desberdinetako autoreen argudioak etengabe gurutzatuko diren arren, argitu behar dut autore konstruktibista eta sozialistetatik abiatzen naizela batik bat. Dena den, horrek ez du esan nahi instituzionalagoa den ekofeminismo (neo)liberala existitzen ez denik (Begiristain, 2021), edota irakurketa ekofeminista esentzialistak ez daudenik (aurrerago azalduko dudana bezala).

jasotako dikotomia hauek hierarkikoak dira, hau da, natura, emakumea, erreprodukzioa... desbalorizatu egiten dira eta kulturaren, gizonaren, produkzioaren... menpe jartzen dira (Carrasco, 2003). Gainera, kontzeptu desberdinen artean harreman sinbolikoak ezartzen dira. Kasu honetan, azpimarratzen da naturaren feminizazioa eta emakumearen naturalizazioa bataren eta bestearen menderatzearen justifikazio bihurtu izan direla (Begiristain, 2021; Mellor, 2000). Ekofeminismoek, ekodependentziaren eta interdependentziaren aitortzatik abiatuta, pentsaera dikotomiko honen irakurketa kritikoa egiten dute.

Alde batetik, kultura(gizakia)/ natura bereizketa problematizatzen da. Logika kapitalista batetik, natura ustiatzeko baliabide-multzo gisa ikusten da. Haatik, elementu naturalak, ekosistemak, biodibertsitatea... bizirauteko ezinbestekoak dira, hortik lortzen baititugu energia, elikagaiak edo ura, besteak beste (Herrero, 2015). Naturaren menpekoak gara, ekodependenteak. Horrenbestez, gizakia/natura bereizketa ontologikoa artifiziala da (Herrero, 2015: 5). Horrek hazkunde mugagabearen kritikara garamatza (aurrerago sakonago helduko diot gai honi). Sarritan aurrerapena askotariko mugak gainditzearekin lotzen bada ere, muga naturalak gainditzen dituen etengabeko hazkundera ez da jasangarria, bizirauteko beharrezkoa dugunaren agortzea eta suntsipena baitakar⁵. Funtsezkoa da, hortaz, analisi ororen erdigunean jartzen duen pentsaera antropozentrikoa kuestionatu eta begirada biozentrikoago bat barneratzea (Begiristain, 2021; Puleo, 2011).

Ekofeminismoek, naturarekiko dependentziaz gain, pertsonon arteko dependentzia ere aitortzen dute, hots, interdependentzia. Bizitza osoan zehar, baina batez ere bizi-zikloaren une batzuetan (haurtzaroan, zahartzaroan, gaixorik gaudenean...) ezingo genuke biziraun beste batzuk zainduko ez bagintuzte (Herrero, 2015: 5). Aitzitik, esparru pribatua eta lan erreproduktiboa gutxiesten dituen pentsaera dikotomikoan, "itsukeria patriarkala" gailentzen da eta zaintza ikusezina bihurtzen da (Carrasco, 2016). Ez da kasualitatea, halaber, banaketa sexualaren ondorioz zaintza lanez arduratu izan direnak orokorrean emakumezkoak izatea. Feminismoak mahaigaineratu duena da "bere burua eraiki dezakeen" subjektu moderno independentearen ideala fantasia bat dela. Inor zaintzen ez duen, eta (teorian) inoren zaintza behar ez duen subjektu hori begirada androzentriko batetik

⁵ Komunitate zientifikoak hamarkadak daramatza hazkunde mugagabearen eragin ekologikoez ohartarazten. Erromako Klubak 1972an "Hazkunderaren mugak" (*The Limits to Growth*) txostena argitaratu zuenetik, argi geratu zen garaiko hazkunde ekonomikoaren erritmoa sostengaezina zela, alde batetik, lurreko baliabide fisikoak mugatuak direlako, eta, bestetik, kapitalismoaren metabolismoak eta bizitza erreproduzitzea ahalbideratzen duten naturaren erritmoak oso desberdinak direlako.

eraikia da. Ekonomia feministan BBVAh izena ematen zaio maiz subjektu pribilegiatu horri, gaztelera *burgués, blanco, varón, adulto* eta *heterosexual* hitzen siglak jasotzen dituen (Pérez Orozco, 2014: 39).

Kapitala-bizitza gatazka: ekonomia birpentsatzeko beharra

Mundua sailkatzen eta hierarkizatzen zuen pentsaera moderno dikotomikoaren eskutik sistema sozioekonomiko jakin bat gauzatu zen: kapitalismoa. Eta, horrekin batera, bere funtzionamendua azaldu, justifikatu eta sustatu duen teoria ekonomiko ortodoxoa. Ekofeminismoek, ekodependentziaren eta interdependentziaren aitortzatik abiatuta, kapitalismoaren eta ekonomia ortodoxoaren oinarriak kolokan jarri dituzte. Ekonomiaren helburua beharrak asetzeko baliabideak era eraginkorrean kudeatzea bada, gure buruari galdetu beharko diogu: zein dira behar horiek? zertan datza eraginkorra izateak? eta, bereziki, nola kudeatu ditzakegu baliabide horiek bizitza mantendu ahal izateko? (Herrero, 2016: 145).

Ekofeminismoek azpimarratzen dute ekonomiaren xedea bizitza mantentzea ahalbideratzen duten baliabide eta jardueren kudeaketa izan beharko litzatekeela. Hainbestetan entzun eta irakurri dugun “denon bizitzak erdigunean” esaldia aintzat hartu behar dela, baita analisi ekonomikoan ere. Baina, esan bezala, gaur egun ekonomiaren erdigunean dagoena kapitala da, ez bizitza. Sistema kapitalista batean (non helburua kapitalaren metaketa den) bizitza ez da inoiz xedea, bitartekoa baizik. Amaia Pérez Orozco ekonomialari feministak dioenez, kapital-lana gatazka klasikoaz haratago, gatazka nagusia kapitalaren eta bizitzaren artekoa da:

“Kapitalismoaz hitz egitea merkatu kapitalistak epizentroan daudela esatea da eta, ondorioz, bizitza bere osotasunean mehatxupean dagoela, kapitala metatzeko prozesuaren esku jartzen baita (hegemoniko bihurtu diren bizitza gutxi batzuen esku). Egitura honen baitan ez dago eta ezin da egon bizitzari eusteko erantzukizun kolektiborik; sistema biozida bat da, heriotza-ekonomia bat, epe labur nahiz luzera” (2014: 195).

Ekonomia ekologikotik azpimarratu da ekonomia biosferaren barne dagoen azpisistema dela, eta beraz, muga planetarioen barruan era jasangarrian bizitzeko moduak bilatu beharko lituzkeela. Azken hamarkadetan ekonomia ekologikoaren baitan garatutako hamaika korrante eta proposamenen artean, desazkundearena da nabarmenetako bat. Desazkundera jardun ekonomikoaren eskala-aldaketa aldarrikatzen duen mugimendu ekonomiko, sozial eta politikoa bezala definitu

dezakegu (Vallo eta Saralegi, 2024: 249). Muga planetarioekin eta naturaren erritmoarekin bateragarriak diren kontsumo eta ekoizpen ereduak aldarrikatzen ditu, sistemaren bideragarritasuna gizartearen ongizate mailaren (eta ez Barne Produktu Gordinaren) bitartez neurtu beharko litzatekeela proposatuz. Gainera, trantsizio ekologiko kontrolatu baten defentsa egiten du, soilik horrela bermatu baitezakegu trantsizio hori justua, demokratikoa eta berdinzalea izango dela (Herrero, 2016; Vallo eta Saralegi, 2024).

Ekonomia feministatik ekonomia ortodoxoaren analisitik kanpo geratu ohi den zaintza (eta hori eusten duten jarduerak, pertsonak, denborak) analisi ekonomikoaren erdigunean jartzea aldarrikatzen da (Aboitiz, 2018). Esan bezala, zaintzen dutenen lana ikusezina bihurtzen den arren, honen esplotazioa ezinbestekoa da egungo sistema mantentzeko; Pérez Orozcok dioenez, “bizitza gabe ez baitago ezer, ezta kapitalismorik ere” (2014: 195). Aitortza horrek zaintza afera sozial eta politikoa gisa ulertzea garamatza, zaintzeko ardura esfera pribatutik (familietatik) esfera publikora (erakunde publikoetara eta komunitatera) desplazatzera, neurri batean behintzat (Carrasco, 2003: 7). Gizonen eta emakumeen arteko rola birpentsatzea eta zaintza lana modu berdinzalean banatzea ere ezinbestekoa da. Bestela, zaintzaren antolakuntza komunitarioan genero desberdintasunak erreproduzitzeko arriskua dago (Pérez Orozco, 2014: 179).

Ikus dezakegunez, analisi eta proposamen interesgarriak egin dira ekonomia ekologikotik nahiz feministatik. Hala ere, paraleloan garatu dira maiz, bakoitzak bere ildotik lanean jarraitu du bestearen analisisiei gehiegi erreparatu gabe (Bosch, Carrasco eta Grau, 2005). Ekofeminismoen indargune nagusia, hain zuzen ere, bi analisi hauek uztartzean da. Desazkundera ez da benetan justua izango genero-desberdintasuna gainditzen ez bada; eta, aldi berean, bizitzaren zaintza ez da posible izango zaintza hori ahalbideratzen duten baliabideak eta ingurunea suntsitzen badira (Herrero, 2016: 148). Kapitalismoa bai antropozentrikoa, bai heteropatriarkala dela ikusarazteak analisi konplexuagoak eta osatuagoak egitea ahalbideratzen digu eta alternatiba antolatzeke gakoak ere ematen dizkigu (Herrero, 2016). Pentsaera-marko eta logika kapitalista partekatuek eragindako lurraren eta emakumeen esplotazioa ezin dira bi zapalkuntza bereizi bezala ulertu, ezingo da bata gainditu bestea gainditu gabe.

Mantra teknologikoari eta hazkunde promesei kritika

Nazioarteko agenda politikoan (diskurtsiboki behintzat) egungo hazkunde ereduaren jasangarritasun eza aitortu da. Haatik, hazkundearen idealak irmo jarraitzen du, eta orokortu den diskurtsoaren arabera “auzitan jarri beharrekoa ez da

hazkundera, baizik eta hazkunde hau” (Azkarraga, 2014: 26). Hortaz, *hazkundera alternatiba* bilatu beharrean, *hazkunde alternatiboak* bilatzean jarri da fokoa, eta, prozesu horretan, “mantra teknologikoa” gailendu da (Begiristain, 2021: 26). Badirudi zientzia eta teknologiaz baliatu gaitzkeela ekonomia desmaterializatu eta produkzioa deskarbonizatzeko, “I+G+Bn inbertsioa handituz, birziklatzearen industria indartuz, eraikuntzan energia- eraginkortasuna hobetuz edota energia fosilak energia berriztagarriekin ordezkatzuz”, besteak beste (Pazos, 2018: 178).

Hainbat korrante ekofeministetatik irtenbide teknologikoari kritika egin zaio. “Ekoefizientzia” lagungarria izan daiteke epe laburrerako, baina epe luzera ez da irtenbidea (Azkarraga, 2014). Alde batetik, ongizatea zentzu materialean definitzen eta neurtzen den bitartean, zaila da ekonomiaren desmaterializazioa irudikatzea. Bestetik, irtenbide teknologikoaren posibilitate bera zalantzan jarri izan da. Energia berriztagarrien auzia horren adibide argia da. Izan ere, energia berriztagarri eta garbiagotara trantsizioa egitea beharrezkoa den arren, energia iturri horiek ezin dute energia fosiletan oinarritutako egungo energia kontsumo maila ordezkatu, itzulera energetikoaren tasa baxuagoa baitute (Herrero, 2015). Horrek ez du esan nahi teknologiarri uko egin behar zaionik. Azkarragak dioenez, “kontua ez da zientzia eta teknologia gutxiago eskatzea, ezpada gehiago, baina bestelakoa: gizartearen zerbitzurako eta trantsizio ekosozialerako diseinatua” (Azkarraga, 2014: 28). Zentzu honetan, gogoan izan behar da zientziak eta teknologiak ez dietela interes neutroei erantzuten eta, beraz, teknologia burujabetzaren elkarrizketa ere funtsezkoa dela ekofeminismoen baitan (Begiristain, 2021: 40).

Nolanahi ere, mantra teknologikoaren ahulgune nagusia krisi ekosozialaren arazoa errotik ez kuestionatzea da. Lehenik, zaila da metatze logika kapitalistan eta naturaren menderatzean oinarritutako sistema errotik birplanteatu gabe benetan jasangarria izango den hazkunde bat irudikatzea. Eta, gainera, energia edo baliabide krisia gainditzea posiblea balitz ere, horrek ez lieke bestelako zapalkuntza-dinamikei irtenbide bat eskainiko. Herreroen hitzak berreskuratuz, gizarte bat jasangarria edo ekoefizientea izan daiteke eta aldi berean sistema patriarkal batean oinarritua egon (Herrero, 2016: 146). Patriarkala, arrazista, koloniala... Ondorioz, nonahi aurkitu ditzakegun “hazkunde jasangarria”, “garapen iraunkorra”, “kapitalismo berdea” eta antzerako kontzeptuak oximoronak dira, ezberdintasuna areagotzen duten berdintasunaren promesak.

Hazkunderaren aldeko beste argudio bat mundu mailako berdintasunarena da. Hau da, hazkundera herrialde industrializatu eta ongizate maila handitu badu, eta

milioika pertsonen garapenaren oinarria izan bada, ez al litzateke mundu osora zabaldu beharko? Maria Mies eta Vandana Shiva autore ekofeministek kritika sakona egin diete Mendebaldetik datozen garapen eta hazkunde promesei. Miesek “harrapa daitekeen garapenaren mitoaz” hitz egiten du (*myth of catching-up development*) (Mies eta Shiva, 1993: 55). Mito hau historiaren irakurketa ebolutibo eta lineal batean oinarritzen da, non garapen-lerroaren puntan herrialde industrializatuak gizon zuriak dauden eta besteak (“garatu gabeko” herrialdeetako biztanleak, emakumeak, pertsona arrazalatuak, pobreak...) atzean geratu diren (Mies eta Shiva, 1993: 55). Dena den, “garatu gabe” edo “garapen bidean” dauden horiek herrialde aberatsen egoera berdinerira iritsi daitezke pausu jakin batzuk jarraitzen badituzte: industrializazioa, aurrerapen teknologikoak, kapitalaren metatzea...

Mendebalde aberatseko bizimodua mundu guztira zabaltzea ezinezkoa dela mahaigaineratzen dute Mies eta Shiva. Izan ere, “garatu gabeko” herrialdeen pobrezia ez da atzean geratu izanaren ondorioa, herrialde industrializatu aberatsen garapenaren ondorio zuzena baizik. Kolonialismo garaian zentroaren eta periferiaren arteko (biolentziaz mantendutako) esplotazio eta dependentzia harremanak begi-bistakoak ziren. Gaur egun, deskolonizazio prozesu formal bat eman den arren, bestelako harreman kolonialek elikatzen dute hazkunde mugagabearen fantasia. Natura “gizon zuriaren kolonia” bihurtu da (Mies eta Shiva, 1993: 56). Izan ere, herrialde industrializatuak kontsumo mailak eragindako kostu ekonomiko, sozial eta ekologiko gehienak Hegoaldeko herrialdetan kanporatzen dira eta haien ingurumenak eta biztanleriak pairatzen dituzte (Khalfan et al., 2023). Sistemak “barne koloniak” ere baditu:

“Gizarte industrialen barnean biztanleria aktiboa erreproduzitzeak eta zaintzeak dakartzan kostu sozial gehienak gizarte horietan bertan kanporatzen dira. Sexuaren araberako banaketa patriarkal kapitalistak errazten du hau. Emakumeen etxeko lana ez da produktibotzat jotzen eta, beraz, ez da ordaintzen. Emakumeak sistemaren barne kolonia dira” (Shiva eta Mies, 1993: 58).

Are, zaintzaren auzia ikuspuntu globaletik begiratzen badugu, barnekoaren eta kanpokoaren arteko lerroak desitxuratu egiten dira. Horren harira, neoliberalismoak eragindako zaintza-kate globalak aipatzea ezinbestekoa dela deritzot. Izan ere, gaur egun, “emakume atzerritarrek hartu dituzte lehen bertako emakume pobretuek egiten zituzten zaintza-lanak, migratzaile emakume horiek esku-lan merkea direlako sistema kapitalistaren egiturari” (EHBF eta Emagin, 2022: 154).

Finean, ikus dezakegu garapenerako eskubide unibertsalean oinarritutako hazkunderaren defentsa kolokan jartzen dela ikuspuntu ekofeministatik. Izan ere, orokortzeko modukoa ez dena ez da eskubidea, pribilegioa da (Azkarraga, 2014; Herrero, 2016). Agian, benetan deserosoa dena ez da gure bizimodua unibertsalizatzeko ideiariko uko egin beharra, gure bizimodua pribilegiatua dela eta horri uko egin beharko geniokeela onartzea baizik (Azkarraga, 2014: 21).

2.2.1. Ekofeminismoetan murgilduz: esentzialismo-konstruktibismo eta Ipar-Hego hausturak

Ekofeminismoen zenbait oinarri teoriko partekatu azaldu ondoren, atal honetan haustura nagusietan sakonduko dut. Jorratuko ditudan haustura nagusiak honakoak dira: esentzialismo-konstruktibismo haustura eta Ipar- Hego haustura⁶. Esan bezala, ekofeminismo konstruktibistago batetik abiatzen naiz; eta, kokapen geografikoari dagokionez, Mendebaldetik/Iparralde Globaletik egindako analisia da. Dena den, haustura hauetan sakontzea garrantzitsua dela deritzot, teoria nahiz praxi ekofeministan aurkitu ditzakegun aniztasuna eta barne-tentsioak mahaigaineratzeko baliagarria baita.

Esentzialismo-konstruktibismo haustura

Arestian azaldu bezala, ekofeminismo orok naturaren eta emakumearen menderatzearen atzean logika patriarkal partekatu bat dagoela mahaigaineratzen du. Haatik, ez dago adostasunik natura-emakumea harremanaren izaeraren inguruan. Ekofeminista esentzialistek harreman hori eraikuntza biologiko edo esentzial batean oinarritzen dela defendatzen dute; ekofeminista konstruktibistentzat, berriz, naturaren eta emakumearen arteko lotura sozialki eraikia da (Mellor, 2000: 91).

Ekofeminista esentzialistek maskulinitatea naturaren suntsipenarekin eta zapalkuntza sozialarekin identifikatzen dute, eta feminitatea esentzia zaintzaile batekin (Mellor, 2000: 18). Hau da, zaintzeko sena edo bultzada emozionala duena emakumea da. Beraz, planetaren salbazioa maskulinoari uko egitearen eta femeninoa berreskuratzearen eskutik etorriko da. Elizabeth Gould Davisek *The First Sex* liburuan dionez:

⁶ Korrante ekofeministak eta haien arteko hausturak sailkatzeko irizpide desberdinak erabiltzen dira. Kasu honetan, esentzialista eta konstruktibista terminoak erabiltzen ditut literatura ekofeministan oso erabiliak direlako eta teoria anitzak biltzen dituztelako. Dena den, bien arteko bereizketa ez da agerikoa kasu guztietan eta zenbait teoria nahiz praxi ekofeminista erdibidean koka ditzakegu.

“Gizona naturaren etsaia da: hiltzea, errotik ateratzea, suntsitzea, kutsatzea dira bere erreakzio bereizgarriak. Emakumea [...] naturaren aliatua da, bere sena zaintzea da, elikatzea, oreka ekologikoa mantentzea. Emakumeak dira gizartearen eta zibilizazioaren zaindariak, eta gizonek autoritate natural original hori eskuetatik kendu izanak erabateko kaosa ekarri digu” (1971: 335-336; hemen aipatua: Mellor, 2000: 19).

Ikuspuntu honen arabera, naturaren eta emakumearen arteko lotura, esentziazkoa izateaz gain, gorpuztu egiten da. Hori dela eta, enfasi handia jartzen da emakumeen erditzeko eta edoskitzeko gaitasunean, bizitza sortzeko eta mantentzeko gaitasun naturalaren adierazle gisa ikusten baitira. Gainera, ekofeminismo esentzialistek lotura izan dute espiritualtasunera eta mistizismora jotzen duten diskurtsoekin; “feminitate basatia” edo “matriarkatu primitiboa” berreskuratzea aldarrikatu dute, besteak beste (Herrero, 2015: 2).

Irakurketa ekofeminista klasikoago honek mesfidantza sortu du feminismoen baitan. Alde batetik, generoaren irakurketa oso binarioa eta determinista egiten duelako; eta bestetik, emakumeak esentzia zaintzaile batekin lotzen dituelako, genero rol zapaltzaileak eta lanaren banaketa sexuala naturalizatuz. Emakumearen eta zaintzaren esentziazko lotura emozionalari dagokionez, esaterako, zaintza-emakumeak-maitasuna lotura sinbolikoa problematizatu izan da (Aboitiz, 2018). Jone Martínezen hitzetan, “etxearen zaindari jatorra den emakumearen estigmatizazioak” emakumea lehengo leku berdinean uzten du “trantsizioan dagoen gizarte patriarkal gaurkotuan” (2007: 113).

Aipatutako kritika horietatik abiatzen da ekofeminismoaren beste korrante nagusia: ekofeminismo konstruktibista. Esan bezala, ekofeminista konstruktibistentzat emakume-natura harremana gizarte-eraikuntza bat da, lanaren banaketa sexualaren ondorioa. Hau da, historian zehar emakumeak etxeko ekonomian izan duen rola ingurumenarekiko elkarreragin handiagoa izatera bultzatu du (Martínez, 2007: 110). Ez dago, beraz, “esentzia” zaintzailerik, kontestu historiko eta behar material jakin batzuei erantzuten dien antolamendu sozial bat baizik.

Hala ere, emakume-natura harremana “naturala” ez izateak ez du esan nahi existitzen ez denik. Azken finean, naturarekiko gertutasunak emakume askori hura zaintzeko jakituria eta esperientzia eman die. Zentzu honetan, zenbait autore ekofeministek defendatzen dute emakumeek natura zaintzeko orduan abantaila epistemologiko bat dutela (nahiz eta kasu honetan esperientzia den abantaila horren

iturria eta ez lotura biologiko edo esentzial bat) (Puleo, 2011). Halaber, esperientziatik datorren eta gutxietsi izan den emakumeen jakituria tradizionala berreskuratzearen eta aintzat hartzearen garrantzia azpimarratzen da (Mies eta Shiva, 1993; Puleo, 2011).

Gainera, ez du esan nahi naturarekiko lotura desiragarria ez denik. Bizitza mantentzea ahalbidetzen duena zaintza bada (naturaren eta pertsonen zaintza), ez da komenigarria zaintzari uko egitea; are gehiago, interdependentzia eta ekodependentzia aitortzen baditugu, ez da bideragarria. Desiragarria ez dena, ikuspuntu honetatik, zaintza lana sistematikoki emakumeengan erortzea da. Horregatik aldarrikatzen da zaintzaren desfeminizazioa. Desfeminizazioaz hitz egitean ez dira ari emakumei zaintza lanen erantzukizuna kentzeaz, pisu hori gizartean era berdinzalean banatzeaz baizik. Yayo Herrerok dioenez, “kontua ez da emakumea desnaturalizatzea, gizonak birnaturalizatzea baizik” (2016: 154).

Ekofeminista konstruktibistek gorpuztasunaren inguruan ere hainbat gogoeta mahaigaineratu dituzte. Mary Mellor autoreak gaiaren inguruan analisi materialista bat egiten du, esaterako. Bere ustez, gorpuztasunaren aitortzak ez du zertan esentzialista izan, genero rolek eta lanaren banaketa sexualak ere eragina baitute materialtasunaren pertzepzioan. Gizonak subjektu askeak, autonomoak eta “transzendentek” izateko emakumeek gizakion gorpuztasunaren eta inmanentziaren pisua eraman behar izan dute (Mellor, 2000). Hau da, lanaren banaketa sexuala berdinzalea ez den gizarte batean, emakumeak beraien eta zaintzen dituztenen gorputzetara (materialtasunera) oso lotuta daude gizonezkoen “transzendentziaren fantasia” elikatzeko. Berriro ere, horrek ez du esan nahi berdintasunak emakumeen transzendentziaren aitortza dakarrenik, gizonezkoen inmanentziaren eta zaugarritasunaren onarpena baizik.

Esan bezala, ekofeminista esentzialistentzat emakumearen zapalkuntzarekin eta naturaren suntsipenarekin amaitzeko beharrezkoa da esentzia “femenino” zaintzailea berreskuratzea eta sistema ikuspuntu horretatik berrantolatzea. Konstruktibistentzat, ordea, gakoa gaur egungo egitura eta erakundeen aurkako borroka politiko aktiboan dago (Mellor, 2000: 78). Begirada konstruktibista batetik eraikia izan dena deseraiki egin daiteke. Beraz, zapalkuntzaren iturria sistema sozial eta ekonomiko jakin bat bada (kapitalismo heteropatriarkala), sistema hori iraultzean eta egitura alternatiboak eratzean datza irtenbideak. Generoa ere, botere-harremanak eragiten dituen gizarte-eraikuntza dinamiko, historiko, eta aldakorra izanik, deseraiki egin beharko da (Bullen eta Hernández, 2010), eta, deseraikitze prozesu horretan, hezkuntza ekofeministak rol garrantzitsua joko dezake (Herrero, 2016).

Ipar-Hego haustura

Bigarren haustura hau jorratzea garrantzitsua da ekofeminismoen baitan ematen diren barne-tentsioak eta botere-harremanak mahaigaineratzeko. Teoria nahiz praxi ekofeministen garapena ezin da testuinguru globaletik (eta horren eskutik datozen desberdintasun eta esplotazio-harremanetatik) bereizi. Egia da teoria ekofeminista, definitutako pentsaera korrante gisa, batik bat Iparralde globalean garatu izan dela. Dena den, pentsamendu ekofeministaren garapenak (zentzu orokorrago batean) zerikusi handia du munduan zehar ingurumenaren defentsan antolatutako emakumeen borroekin (Mellor, 2000). Hori dela eta, ekofeminismoari Hegoaldean borrokatzen den baina Iparraldean teorizatzen den mugimendua izatea leporatu izan zaio:

“emakume pobreek, esplotatuek eta baztertuek degradazio ekologikoaren inpaktu fisiko, ekonomiko eta sozial handia jasaten duten eta hurbileko ingurumen-borroketan konprometitzen diren bitartean, beren klaseagatik, jatorriagatik eta arrazagatik pribilegiatuak direnek izendatzen eta teorizatzen dute mugimendu hori” (Mellor, 2000: 16-17).

Esaterako, Iparraldeko pentsalari ekofeministei emakumea-biologia-natura gatazkari gehiegizko pisua ematea leporatu zaie. Ikuspuntu honetatik, ekofeminismoak zerikusi handiagoa du gosea, esplotazioa, gaixotasunak eta heriotza ekiditearekin emakumearen esentzia zaintzailearen inguruko gogoeta teorikoarekin baino (Mellor, 2000). Kritika honek mahaigaineratzen duena zera da, Mendebaldeko feminista pribilegiatuen kezka lehenestek munduan zehar emakume gehienek pairatzen dituzten arazoak alde batera uztea eragin dezakeela. Dena den, Mendebaldeko ekofeminismoa pribilegiotik sortu den teoria izateak ez du esan nahi pribilegio hori mantentzeko asmoa duenik. Mellorrek dioenez, literatura ekofeministak “alternatiba kritiko eta erradikal bat” eskaintzen du eta Mendebaldeko logika kapitalista eta androzentrikoei aurre egiten die (Mellor, 2000: 62).

Nolanahi ere, ezinbestekoa da pribilegioen aitortza bat egin eta analisi ekofeministetan begirada interseksionala txertatzea. Egia da teoria ekofeministan generoak (analisi kategoria bezala) garrantzia berezia hartzen duela. Baina generoa ez da esperientzia unibertsala. Kasu honetan, emakume guztiek ez dute krisi ekosoziala berdin bizitzen, ez dituzte krisi honen eraginak berdin pairatzen. Generoa beste zapalkuntza batzuekin inbrikatzen edo korapilatzen da (arraza, klasea,

sexualitatea...) (Crenshaw, 1989). Nahiz eta zapalkuntza denak maila berdinean aztertzea eta borrokatzea ezinezkoa den, funtsezkoa da zapalkuntza-geruza hauek gure analisi eta praktketan aintzat hartzea.

Azkenik, Mirene Begiristainek azpimarratzen duen moduan, teoria eta praxi ekofeministak garatzerakoan garrantzitsua da hauek lurreratu eta "kosmobisio kokatuak" garatzea (Begiristain, 2021: 38). Kosmobisio kokatuak garatzeak munduko beste lekuetako kosmobisioen kolonizazioa eta kooptazioa ekiditea ahalbideratuko digu, eta, bide batez, tokian tokiko arazo, gatazka eta menderakuntza zehatzei aurre egitea (Begiristain, 2021: 38). Teoria eta praxi hau kokatzeak gure ikuspuntua lerratua edo mugatua dela aitortzera garamatza, begirada feminista batetik ezinbestekoa den ariketa bat.

2.3. Praxi ekofeminista

Lehenengo atalean aipatu dut utopiak, ez-lekua izateari uzteko, praxiaren bitartez gauzatu behar direla. Praxi honen garapena da, hain zuzen ere, ekofemismoen erronka nagusia (Begiristain, 2021; Martínez, 2007). Aurreko atalean ekofemismoen alderdi teorikora mugatu naiz. Testuinguru teorikoaren azken atal honetan, ordea, ekofemismoen alde aplikatuagoan murgilduko naiz, hots, praxi ekofeministan. Ezer baino lehen, aipatu beharra dago praxi ekofeminista ez dela teoria ekofeminista bezainbeste garatu, eta, ondorioz, ez dela hainbeste ikertu eta teorizatu gai honen inguruan. Erronka bat izan da gaiari nola heldu erabakitzea, baina, ikertuta dagoen gutxi horretatik eta praktikan erreparatu dudanetik abiatuz, praxi ekofeminista zer den eta nola gauzatzen den argitzeko zenbait gako identifikatu ditut.

2.3.1. Zertaz ari gara praxi ekofeministaz ari garenean?

Zer da praxi ekofeminista eta zenbateraino dago garatuta? Mellorrek dio mugimendu ekofeministaren garrantzia eta eragin esparrua praxi ekofeministari ematen diogun definizioaren arabera izango dela. Esplicituki ekofeminista gisa auto-izendatzen diren mugimenduak soilik kontuan hartuz gero, ekofemismoaren eragina urriagoa da, eta baita “praxi ekofeminista” deritzogunaren esparrua ere. Haatik, definizio zabalago batetik abiatuta –zeinaren arabera gai edo aldarri feministak eta ekologistak uztartzen dituzten mugimenduak ekofeministatzat jo daitezkeen- praxi ekofeminista hedatuago dagoela esan genezake (Mellor, 2000: 16). Lan honetan, ikuspegi zabalago honi helduko diot; praxi ekofeminista, beraz, naturaren eta emakumeen zapalkuntza partekatuaren analisi kritikotik abiatzen den jardun eraldatzailea da, lurraren defentsa, feminismoa, bizitzaren zaintza, begirada interseksionala eta abar ardatz dituena. Argitu beharra dago, baita ere, praxi ekofeminista ez dela emakumeek egiten duten zerbait (edo behintzat, ez duela zertan izan). Azaldu bezala, emakume-natura harremana gizarte eraikuntza bat da, eta beraz, ekofemismoak ez du emakumearekin edo femeninoarekin berezko loturarik. Ekofemismoa begirada edo abiapuntu bat da, eta edozeinen esku dago begirada horretatik analisi eta jardun eraldatzaileak garatzea (Herrero, 2016; Puleo, 2011).

Bigarrenik, praxi ekofeministaren beste ezaugarri bat bere izaera kolektiboa da (Begiristain, 2021). Kolektibotasun horren baitan alderdi indibidualak zaindu beharreko leku bat du, noski; baina, kapitalari eta patriarkatuari aurre egiteko bide bakarra kolektiboa dela argi dute ekofemismoa ardatz duten mugimenduek. Bestalde, teoria ekofeministaren antzera, praxi ekofeminista ere oso anitza da; hainbat begiradetatik abiatzen da eta sektore edo jarduera-esparru desberdinetan eragiten du:

elikadura burujabetza, energia, mugikortasuna, urbanismoa... (Pascual eta Herrero, 2011).

Lurraren defentsa eta feminismoa uztartzen dituzten kolektiboak eta borroka mundu guztian zehar aurkitu ditzakegun arren, praxi ekofeminista Hegoalde Globalean garatu da batez ere. Hau ez da harritzekoa, Hegoaldeko lurraldeak baitira krisi ekosozialaren ondorioak eta kapitalismo neoliberalaren logika estraktibistak gehien pairatu dituztenak (Mies eta Shiva, 1993; Oxfam, 2023). Praxi honen adibide esanguratsuak dira Indiako Chipko mugimendua, Keniako Green Belt Movement edota Abya Yalako feminismo komunitarioak, besteak beste (Mellor, 2000).

Bestalde, aipatu beharra dago praxi ekofeministak presentzia handiagoa izan duela landa-eremuan eremu urbanoan baino. Feminismoa eta lurraren defentsa uztartu dituzten borroka hauek elikadura burujabetzari eta agroekologiari lotuta egon dira askotan. Mies eta Shivak azpimarratzen dute ez dela harritzekoa emakumezkoek elikadura osasuntsua ingurumen-borroken ardatz nagusi gisa identifikatzea, historikoki haiek izan baitira bizitza mantentzeaz arduratu izan direnak (Mies eta Shiva, 1993). Gainera, agerikoa da nekazaritza eta abeltzaintzaren intentsifikazioak sektoreko emakume asko egoera prekarizatuan utzi dituela, haiek baitira (orokorrean) ekoizpen eredu ez-industrial eta jasangarriagoak bultzatzen dituztenak (De Gonzalo eta Urretabizkaia, 2012: 74).

Hortaz, garatu ahal daiteke praxi ekofeminista hirietan? Hirien kasuan, badirudi pertsonen naturarekin duten konexioa ez dela hain esplizitua; azken finean, "ez dute ura jasotzen, ez dituzte haziak landatzen, ez dituzte animaliak zaintzen... kasu askotan ez dute zaintzeko komunitaterik ere" (Pascual eta Herrero, 2011: 68). Dena den, argi dago hirietan ere bizitza mantendu egin behar dela. Kontua da askotan bizitza sostengatzen duten jarduerak arlo pribatuan garatzen direla, eremu "ez-produktibo" eta beraz ikusezinean. Edozein kasutan, hirietan ere badaude ekofeministatzat jo ditzakegun aldarrikapen edo mugimenduak; esaterako, elikadura sistema lokal, jasangarri eta burujabeen alde egiten duten kontsumo taldeak edota urbanismoaren zein mugikortasunaren arloan hiri eredu jasangarriagoak aldarrikatzen dituzten kolektiboak (Pascual eta Herrero, 2011).

3.2.1. Praxi ekofeminista nola aztertu

Gehiegi ez badira ere, badaude praxi ekofeminista aztertzen duten zenbait ikerketa. Eta, haien haritik tiraka, praxi ekofeministari begiratzeko bi maila edo geruza nagusi identifikatu ditut: alde batetik, praxi diskurtsibo ekofeminista; eta, bestetik, praxi ekofeministaren geruza aplikatuagoa, taldeen antolakuntzan eta parte-hartze espazioen zaintzari erreparatzen diona.

Praxi diskurtsibo ekofeministaren analisia Sevillako mugimendu ekologisten inguruko ikerketa batetik abiatzen da (Mediavilla et al., 2023). Mediavilla et al.-ek proposatzen dutena da kolektibo batek ekofeminismoa barneratu duen ala ez jakin daitekeela krisi ekosozialaren inguruan egiten duten irakurketaren edo diagnostikoaren arabera. Beraz, talde bat ekofeminista dela esan dezakegu haien deskribapen, helburu, argitalpen, hitzaldi edo bestelako diskurtsoetan honakoak agertzen badira:

“Pertsonen arteko eta pertsonen eta naturaren arteko harreman patriarkalaren aipamena; antropozentrismoari eta androzentrismoari kritika; produkzio, kontsumo eta metatze sistema kapitalistari kritika; ingurumen-justizian eta kultura-aniztasunean arreta berezia; eta pertsonak eta natura zaintzearen garrantzia” (Mediavilla et al., 2023: 87).

Marta Pascual eta Yayo Herrero diotenez, ekofeminismoa diskurtsoan barneratzea bere “onarpen arrazionalaren” isla da (Pascual eta Herrero, 2011: 73). Haatik, praxi ekofeminista benetan barneratuta dagoen ala ez jakiteko kolektiboaren eguneroko praktikei erreparatu behar diegula proposatzen dute. Hori da, hain zuzen ere, praxi ekofeministaren bigarren geruza.

Diskurtso ekofeministen abiapuntua argia da: bizitza oro erdigunean jarri behar da. Zer suposatzen du horrek kolektiboaren barne-antolakuntzari dagokionez? Alde batetik, bizitza zaintzen eta sostengatzen duten jarduerekin bateragarria den militantzia bat beharrezkoa dela; eta, bestetik, parte-hartze-espazioak ere bizigarriak izan behar direla, hots, horizontaltasunean, inklusibitatean, genero-berdintasunean, aniztasunean, eta elkar-zaintzan oinarrituak (Pascual eta Herrero, 2011). Egia da gizarte mugimenduei, parte-hartze politikorako espazio alternatiboak eta kontrahegemonikoak diren heinean, horizontaltasunarekin eta inklusibitatearekin konpromezu bat aurreuposatzen zaiela. Alabaina, botere-harremanak eta egiteko modu patriarkalak gailentzen dira oraindik ere (Álvarez, 2012). Hortaz, espazioen bizigarritasunari dagokionez, kolektibo bat ekofeminista izango da parte-hartze

espazioetan hitzaren banaketari erreparatzen badio edota erabakiak hartzerakoan adostasun logikak lehenesten baditu, besteak beste (Pascual eta Herrero, 2011). Begiristainek ere bat egiten du ideia honekin. Bere hitzetan, kolektibo ekofeministen eraikuntzan feminismoak oinarrian egon behar du “bai antolaketa egitura, botere banaketa eta dinamizazio mekanismoei dagokienez, eta baita konfiantzazko harreman eta komunikazio modu horizontal eta eraginkorrak jorratzean ere” (2021: 39).

Bestalde, aipatu bezala, bizitzaren zaintza aldarrikatzea funtsezkoa den arren, ez da nahikoa izango kolektiboetako erritmoa zaintza horrekin bateragarria ez bada. Horren harira, bereziki interesgarria da Marina Sagastizabalek *Hiruki Gatazkatsua* liburuan egindako analisia. Sagastizabalek mahaigaineratzen duena da denboraren antolakuntza ez dela neutroa, kapitalaren interesen menpekoa baizik; eta zaintza lana, ikusezina eta gutxietsia izanik, denbora hegemonikoaren banaketatik kanpo gelditzen dela (Sagastizabal, 2020). Horrek, nahitaez, gizarte mugimenduen antolakuntzan eragiten du eta pertsona konkretu batzuk (oro har, emakumeak) parte-hartze soziopolitikorako espazioetatik kanpo gelditzea eragiten du:

“Aintzat hartu behar dugu mugimenduetan darabilgun tempoak. Kapitalaren aurka borrokatzen gara kapitalismoaren erritmo berdinetan eta bizitza aldarrikatzen dugu bizitzaren iraunkortasuna bermatu ezin duten erritmoetan. (...). Horrek, etxeko eta zaintza lanak zuzenean ezabatzen ditu mapatik. Mugimendu sozialen eremuan ere, pautak hegemoniko hau birproduzitzen da: lan merkatuaren logikaren arabera egituratzen dira parte hartzearen ordutegiak (bileren ordutegiak, esaterako). Horrez gain, sarritan, lan merkatuaren exijentzia maila berberarekin jokatzeko dugu: edo ehuneko ehuneko gaude edo ez gaude; beraz, erritmo biziak jarraitu ezin dituzten horiek erabakietatik eta prozesuetatik kanpo geratuko dira” (Sagastizabal, 2020: 45).

Ekofeminismoek kapitalismo heteropatriarkalaren alderdi guztiak zalantzan jarri eta bestelako errealitateak eraiki nahi badituzte, denboraren auzia ere aintzat hartu beharko dute (baita mugimenduen antolaketan ere). Zentzu horretan, Sagastizabalek dio utopiarekin amesteaz gain “ukroniarekin” (denboraren-utopiarekin) ere amestu behar dugula, “bizitzarako tartea utziko duen antolaketa irudikatu eta norabide horretan pausoak emateko” (2020: 80).

Azkenik, praxi ekofeministaren analisisian txertatu ez bada ere, badago kolektibo eraldatzaileen azterketan gehitu daitekeen beste analisi geruza bat: kanpo-harremanena. Zentzu horretan, interesgarria da *Komunitateak ehunduz herri*

mugimenduetatik ikerketa (Esteban et al, 2020), eta bereziki, sozioekologiari eskainitako atala (Barcena et al., 2020). Bertan mahaigaineratzen da eraldaketa gauzatu ahal izateko kolektiboen barne-funtzionamendua bezain garrantzitsuak direla hauen kanpo-aliantzak. Harreman instituzionalei dagokienez, aipatzen da Euskal Herriko ekologismo klasikoak harreman nahiko urria eta gatazkatsua izan duela erakunde publikoekin. Haatik, harreman hori birplanteatzen ari da gaur egun garatzen ari diren mugimendu “ekoalternatiboetan”, hau da, ikuspuntu ekologistatik eta “abiapuntu eraikitzaile eta eraldatzaile batetik maila mikro/ertainean bizitzeko bestelako aukerak (...) bultzatzen eta egikaritzen dituzten” kolektiboetan (Barcena et al., 2020: 64). Ekofeminismoetatik eragiten duten kolektiboak hor koka ditzakegu, eta beraz, interesgarria da alderdi horri ere erreparatzea. Bestalde, mugimendu ekoalternatiboen arteko aliantzen garrantzia azpimarratzen da ikerketan. Ondorioztatzen da orokorrean elkarlanaren aldekoak direla, baina praktikan batzuetan barne-tentsioek edo konfiantza faltak bidea oztopatu dezaketela (Barcena et al., 65). Horrenbestez, kolektiboen barne zaintza bezain garrantzitsua da kanpo-harremanak eta aliantzak zaintzea. Joseba Azkarragak dioenez, “alternatiba txiki ugariz sorturiko konstelazioa” ehuntzen joan behar da krisi ekosozialari erantzun kolektibo sendo bat eman nahi bazaio (Azkarraga, 2020: 33).

3. METODOLOGIA

3.1. Nondik aztertu: epistemologia feminista zeharlerro gisa

Lehenik eta behin, aipatu beharra dago lan hau epistemologia feministatik abiatzen dela eta horrek gaiaren aukeraketan, ezagutza-helburuetan eta ikerketa prozesuan eragin duela. Ikuspegi positibista batetik, objektibitatea eta inpartzialtasuna eskutik doazenez, premiazkoa da ikertzailearen neutraltasuna mantentzea. Epistemologia feministatik, ordea, objektibitatearen irakurketa kritiko bat egiten da. Donna Harawayen arabera, ezagutza oro “kokatua” da, hau da, ikertzailearen bizipenek, kokaleku sozialak, jakintza metatuek eta abarrek gurutzatzen dute ikerketa prozesua. Horrenbestez, ikerketa ekintza politiko eta kontziente gisa ulertzen da: zertaz hitz egin, nondik, zeinen ahotsa jaso... intentzio jakin batekin hartzen diren erabakiak dira (Biglia, 2015: 25). Haatik, ikuspuntu partzial batetik abiatzeak ez du esan nahi ikerketa feministan denak balio duenik. Kontrara, objektibitate feministaren oinarrian ikerketarekiko jarrera kritikoa, zehaztasuna eta ardura daude; eta, are, sortutako ezagutzaren mugen eta kontraesanen inguruan hausnartzera ere bultzatzen gaitu (Gandarias eta García, 2015: 101).

Kasu honetan, trantsizio ekosozialaren inguruko eztabaidan aintzat hartu beharreko ahotsak eta esperientziak jaso nahi izan ditut. Pérez Orozcok dioenez, merkatuaren eta heteropatriarkatuaren zentralitatea kolokan jartzen duten horiek sistemaren marjinetan geratu ohi dira (Pérez Orozco, 2023: 16), eta marjina horietan jarri nahi izan dut nik fokua. Egia da marjinetan egote horrek, berez, ez duela kokaleku epistemologiko pribilegiatua eskaintzen (Biglia, 2015: 25). Baina, nolana ere, interesgarria da ezagutza hegemonikoarentzat “ikusezinak” izan ohi diren begiradak jasotzea, menderatze-ardatzetatik haratago doazen munduak arakatzea ahalbideratzen baitigu (Gandarias eta García, 2015: 101).

Esan bezala, ikerketaren izaera kokatua eta politikoa azpimarratzeaz gain, epistemologia feministak ikerketa prozesuarekiko kritikoak izatearen beharra areagotzen du (Biglia, 2015). Zentzu honetan, ezinbestekoa da ikerlari-ikertu hierarkiaren inguruan hausnartzea. Argi daukat, ikerketa hau posible izateko, nik txertatutako begirada akademiko edo analitikoaz gain (bide batez, besteek sortutako ezagutzaz elikatzen dena), elkarrizketatuengandik jasotako ezagutza ere ezinbestekoa dela. Horrenbestez, analisisan zehar, elkarrizketatuen hitzak, irakurketa teorikotik jasotako kontzeptuak eta nire interpretazioa etengabe gurutzatzen eta ehuntzen dira. Onartzen dut burututako lana ezagutza-sorkuntza prozesu kolektibo bat izatetik oso urrun dagoela oraindik, baina norabide horretan doa.

3.2. Zer aztertu: aztergai diren kolektiboak

Ikerketaren aztergaia aukeratzea ez da erraza izan. Praxi ekofeminista kolektiboan antolatzen denez, argi neukan begirada kolektiboetan jarri nahi nuela. Gainera, esan bezala, praxi ekofeministaren adiera zabalago batetik abiatzen naiz, eta beraz, haien burua “ekofeministatza” definitzen ez duten kolektiboak ere aztertzea erabaki dut. Kontuan hartu dudan beste faktore bat aniztasuna izan da, utopia ekofeminista ertz askotatik eraiki baitaiteke. Beraz, esparru jakin batean sakondu beharrean, alternatiba ildo desberdinetatik eraikitzen duten esperientziak jaso nahi izan ditut. Kolektiboen aukeraketa mugatzeko beste hainbat irizpide ere ezarri ditut:

- **Kokapena:** Hego⁷ Euskal Herrian sortu eta bertan jarduten duten kolektiboak aztertu ditut. Alde batetik, kontestualekiko gertutasunagatik, eta, bestetik, “kosmobisio kokatuak” garatu nahi ditudalako; kasu honetan, Hego Euskal Herriko kontestuan praxi ekofeministak dituen abagune eta erronka zehatzak identifikatuz.
- **Lurraren defentsarekin lotura:** aztertutako kolektiboen jarduera esparrua lurraren defentsara lotuta dago, modu baten edo bestean. Mugimendu ekologista klasikoagoak ez ezik, esperientzia “ekoalternatiboak” ere kontuan hartu ditut, hau da, ekologismoarekin nolabaiteko lotura duten eta maila mikro/ertainean eragiten duten kolektibo edo proiektu eraldatzaileak (Barcena et al., 2020: 64).
- **Feminismoa ardatz izatea taldearen antolakuntzan:** euren jarduera feminismora bideratuta ez egon arren, feminismoarekin lotura duten eta taldearen antolakuntzan feminismoa aintzat hartzen duten kolektiboak aztertu ditut (kasu batzuetan feminismoarekin lotura hori oso agerikoa da, eta beste batzuetan, inplizituagoa).

Azkenean, bost proiektu edo elkarteetako esperientzia jaso dut: Amillubi, Etxaldeko Emakumeak, Jauzi Ekosoziala, Lakabe eta MTB Andreak. Hurrengo paragrafoetan kolektibo bakoitzaren aurkezpen labur bat egingo dut:

⁷ Hasiera batean ikerketaren esparru geografikoa Euskal Herri osora zabaltzeko asmoa nuen (Iparraldeko *Bizi!* mugimenduak ekofeminismoa lantzeko sortutako azpitaldea aztertzea interesgarria iruditzen zitzaidan, esaterako). Alabaina, haiekin kontaktuan jartzeko zailtasuna eta Hegoaldeko kontestualekiko gertutasuna dela eta, oraingoz ikerketa Hego Euskal Herrira mugatzea erabaki dut.

- **Amillubi:** Urola ibaiaren meandroan kokaturiko proiektu agroekologiko kolektiboa da (zehazki, Iraetako auzoan dago kokatuta, Zestoan). Amillubik tokiko nekazarien lurra zaintzea eta kolektibizatzea eta elikadura burujabetzaren estrategia indartzea ditu helburu. Halaber, proiektuak lehen sektoreko erreleboaren arazoaren balizko irtenbideak arakatzeko aukera ere eskaintzen du. 2023an jarri zuen martxan Biolurrek⁸ eta, hilabeteetan diru-bilketan ibili ondoren, jada ekin diote porru, baba eta arto landaketari, besteak beste.
- **Etxaldeko Emakumeak:** emakume baserritarrek eta landa-eremuko emakumeek sortutako taldea da, elikadura burujabetza eta feminismoa ardatz dituen. 2015ean sortu zen Etxalde mugimenduaren⁹ baitan, eta EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna) Bizkaia sindikatuari lotzen da batik bat. Taldearen helburu nagusiak emakume baserritarren beharrak entzun eta haien eskubideak bermatzea eta elikadura osasuntsu, tokikoa eta burujabea izateko eskubidea sustatzea dira. Halaber, agroekologia feminismoz blaitzea eta feminismoa agroekologiaz blaitzea lortu nahi dute. Askotariko formakuntzak egiten dituzte (iaz lehen eskola agroekologiko feminista antolatu zuten, adibidez) eta auzolanen bitartez emakume baserritarren elkarlana sustatzen dute.
- **Jauzi Ekosoziala:** begirada ekosozialista ardatz duen gizarte mugimendu kultural eta ekintzaile ekologista da. 2022an Portugaleten egindako Ekotopaketetan¹⁰ Hego Euskal Herriko ekologismoak jauzi kualitatibo eta kuantitatiboa emateko beharra identifikatu zen, eta hortik abiatutako dinamika batetik sortu zen Jauzi Ekosoziala. Taldearen helburu nagusiak trantsizio ekosozialaren inguruko gogoeta gizarteratzea, gainontzeko gizarte

⁸ Biolur 1993a geroztik Gipuzkoan nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoaren alde lan egiten duen elkarte da. Hainbat baserritar eta herritar elkartzen dituzten kontsumo taldeak sustatu, ekoizleei aholkularitza eskaini eta nekazaritza ekologikoa gizarteratzeko ekimenak antolatzen dituzte. Informazio osoa Biolurren webgunean: <https://www.biolur.eus/eu/inicio>

⁹ Etxalde mugimendua baserritarrek edo nekazaritzari loturiko pertsonen osatzen dute. Mugimenduaren helburuak Euskal Herriko elikadura burujabetzaren alde egitea eta tokiko elikadura-sistema iraunkorrak artikulatzea dira. Informazio gehiago eskuragarri hemen: <https://www.elikaherria.eus/eu/etxalde/>

¹⁰ 2022an gai ekosozialez aritzeko jardunaldi irekiak antolatu ziren Portugaleten, "Azken krisia, gure garaia!" lelopean. Topaketetan helburu nagusiak krisi ekosoziala erdigunean jartzea eta euskal ekologismoak behar zituen tresna berrien inguruko elkarriketa estrategikoa garatzea izan ziren. <https://sites.google.com/view/ekotopaketak2022/hasiera>

mugimenduekin ekologismoaren gaia era transbertsanean lantzea eta ekologiari lotutako tokiko mugimenduak saretzea dira.

- **Lakabe:** Artzibarko bailaran kokaturiko ekoaldea eta proiektu komunitarioa da. 1980an Bilbotik iritsitako kontzientzia-egozpenari loturiko gazte talde batek okupatu zuen Lakabe eta, 44 urte beranduago, martxan jarraitzen du. Proiektuaren ardatz nagusienetakoak naturarekiko errespetuzko harremana eta feminismoa izan dira. Gainera, kolektiboan bizitzearen onurak eta erronkak aztertu dituzte hamarkadetan zehar eta antolatzeke eta egiteko modu alternatiboak pentsatzen eta sortzen joan dira. Haien hitzetan, proiektuaren xedea utopia posible egitea eta esperimintatzea da.
- **Mendiko Txirrindulari Basatiak Andreak (MTB Andreak):** Bilbo inguruko emakume txirrindulariak biltzen dituen emakumeen taldea da, 2017an sortua. Aisialdiari lotutako kirol talde bat izateaz gain, mugikortasunaren gaia (eta bereziki, txirrindularitza) ikuspuntu feministatik lantzen dute. Taldearen zaintzan eta horizontaltasunean ere arreta handia jartzen dute eta argi dute txirrindularitza emakumeak ahalduzkeko esparrua bihurtu nahi dutela. Feminismoaz gain, beste hainbat ardatzek zeharkatzen dute MTB Andreaken jarduna; hala nola, naturaren edota euskararen defentsak.

3.3. Nola aztertu: ikerketaren diseinu metodologikoa

Nire asmoa Hego Euskal Herriko praxi ekofeministara lehen hurbilpen bat egitea denez, metodologia kualitatiboa hobetsi dut. Izan ere, metodologia kualitatiboak eskaintzen dituen malgutasuna eta dinamismoa bereziki aproposak dira ikerketaren helburuei erantzuteko (González, 2009). Erabilitako ikerketa-teknika, zehazki, sakoneko elkarrizketak izan dira, gidoi erdiegituratu baten oinarritu direnak (eranskinetan gehitua). Gidoi erdiegituratu bat erabiltzeak jorratu nahi nituen gaiei heltzea eta ikerketa-helburuei era sistematikoagoan erantzutea ahalbideratu dit. Baina, aldi berean, malgutasuna eskaini dit. Elkarrizketak egin ahala, aurreikusi ez nituen gai berriak azaleratu dira eta gidoiaren itxura ere pixkanaka aldatzen joan da. Gainera, malgutasun horrek elkarrizketa(tu) bakoitzari egokitzeko aukera eman dit. Adibidez, elkarte edo proiektu bakoitzaren jardun espezifikoari (agroekologia, mugikortasuna, bizitza komunitarioa etab.) dagozkien galderak gehitu ditut, eta, hainbat kasutan, elkarrizketaren erritmoa edo galderen ordena moldatu edo galdera berriak gehitu behar izan ditut, momentuko premiei erantzuteko.

Bost elkarrizketa egin ditut, horietako bat kolektibo bereko bi kideei (guztira sei elkarrizketatu dira, beraz). Elkarrizketak 2024ko maiatza eta uztaila artean egin dira; motzenak 50 minutu inguru iraun du eta luzeenak, ordu eta erdi baino zerbait gehiago. Elkarrizketen formatuari dagokionez, elkarrizketatuek nahiago zuten edo gehien komeni zitzairen moduan burutu ditut: bi telefonoz eta beste hirurak aurrez aurre. Kasu guztietan, elkarrizketak grabatu eta transkribatu egin dira parte-hartzaileen baimen informatuarekin. Elkarrizketatuak eroso sentitzen ziren hizkuntzara moldatu naiz. Azkenean, lau elkarrizketa euskaraz egin ditut eta bat gazteleraz (zenbaitetan euskara eta gaztelera tartekatzen joan dira elkarrizketan zehar). Analisia euskaraz egin dudan arren, elkarrizketatuek esandakoari zuzeneko erreferentzia egiterakoan haiek erabilitako hitz zehatzak mantentzea erabaki dut (hau da, itzulpenik eta zuzenketa egin gabe).

Elkarrizketatuei dagokienez, denak emakumezkoak dira, 28-74 urte bitartekoak. Aipatu beharra dago printzipioz ez dudala elkarrizketatu-profil zehatz bat bilatu. Hain zuzen ere, hasiera batean zuzenean kolektiboekin harremanetan jarri eta elkarrizketatzeko pertsona aipatuen aukeraketa haien esku utzi nuen (gaiarekiko gertutasuna eta prestutasuna zeukaten pertsonetara iritsi ahal izateko). Horrela lortu nuen lehen elkarrizketa batzuk ixtea. Alabaina, ikerketa prozesuan zehar, kontaktu pertsonalen eta “elur bolaren” teknikaren bitartez beste kolektibo eta pertsonetara iritsi naiz, eta horrela lortu ditut elkarrizketa gehienak. Egia da elkarrizketek, hein handi batean, kolektiboen diskurtsoak, jardunak, antolakuntza, sareak eta abar dituztela ardatz eta elkarrizketatuek haien kolektiboen ikuspuntua eskaintzeko asmoarekin hartu dutela parte ikerketan. Haatik, ezin da pertsona baten iritzia talde osora orokortu eta beraz haiengandik ez da taldearen ikuspuntua ordezkatzeko espero. Norberaren ikuspuntua, esperientzia eta gogoetak kolektiboarekin gurutzatzea saihestezina da, eta, hain zuzen ere, analisia aberasten duen faktorea dela deritzot.

Hauek dira elkarrizketatuak¹¹ eta ikertutako gaiarekin duten lotura:

- **Mirene Begiristain** eta **Oihana Usabiaga** (Amillubi). Mirene militante feminista da. EHUko irakaslea eta ikerlaria da, eta bere ikerketetan elikadura sistemak aztertu ditu agroekologiaren eta ekofeminismoaren ikuspuntutik. Ekoizpen proiektu txiki bat edukitzeaz gain, Biolurreko kidea da. Amillubin alderdi sozioekonomikoaz arduratzen da. Oihana ere militante feminista da eta

¹¹Elkarrizketatuek haien benetako izenak erabiltzeko baimena eman didate.

beti piztu izan dio interesa lurraren defentsak. Orain dela urtebete iritsi zen Amillubiko proiektura eta komunikazio lan-taldean dabil.

- **Amets Ladislao** (Etxaldeko Emakumeak). EHNE Bizkaiko eta Etxaldeko Emakumeetako kide izan da urte luzez. Orain etenaldi batean dagoen arren (elikadura burujabetzaren inguruko formakuntzak egiten, besteak beste) urteak daramatza Bizkaigane abeltzaintza proiektu kolektiboan lanean. Elikadura burujabetzaren aldeko mugimenduan jarraitzen du, feminismoarekin ere etengabeko elkarlanean.
- **Alaitz Ajuriagerra** (Jauzi Ekosoziala). Militante ekologista da, Euskal Herriko Gune Ekosozialistako kidea. Ekotopaketen antolakuntzan ibili zen eta orain Jauzi Ekosozialeko talde motorean dago. Jauzi Ekosozialeko emakumezkoen taldean ere badabil, autore ekofeministen testuak komentatu eta Euskal Herriko kontestuan lurreratzen. Elikadura burujabetzari loturiko proiektuetan ere parte hartu izan du (Bilboko Kidekoop kooperatiban edota Labore kontsumo-elkartean, esaterako).
- **Mabel Cañada** (Lakabe). 1980an Lakabera iritsi zen gazteetako bat da Mabel. Ia bere bizitza osoa igaro du komunitatean bizitzen; berak dioenez, hori da bere iraultza. Feminista da eta lurrarekin harmonian bizi nahi du. Mundu mailako eta bertako mugimendu sozialekin ere konprometituta dago. Hortaz gain, esperientzia du taldeen fazilitazioan.
- **Gema Sardonís** (MTB Andreak). Kirolzale amorratua da eta batez ere mendiko txirrindularitzan dabil gaur egun. Urteetan zehar talde mistoetan ibili ondoren, beste emakume txirrindulari batzuekin emakumeentzako talde bat osatzea erabaki zuen, eta horrela jaio zen MTB Andreak. Hainbat urtez bizikleta-bidezko mugikortasunaren aldeko defentsan jardun da Biziz Bizin¹².

¹² Biziz bizi 1993an Bilbon sortutako txirrindulari urbanoen elkarte da, mugikortasun eredu alternatibo baten alde borrokatzen duena. Informazio gehiago hemen: <https://bizizbizi.org/eu/hasiera/>

Elkarrizketatuaren izena	Parte den kolektiboa	Kolektiboaren jarduera esparrua	Elkarrizketaren formatua
Oihana	Amillubi	Agroekologia (elikadura burujabetza), kolektiboa	Aurrez aurre (Mirenerekin batera)
Mirene	Amillubi	Agroekologia (elikadura burujabetza), kolektiboa	Aurrez aurre (Oihanarekin batera)
Amets	Etxaldeko Emakumeak	Agroekologia (elikadura burujabetza), feminismoa	Telefonoz
Alaitz	Jauzi Ekosoziala	Ekologismoa, ekosozialismoa	Aurrez aurre
Mabel	Lakabe	Ekoaldea, bizitza komunitarioa, feminismoa	Aurrez aurre
Gema	MTB Andreak	Mendiko txirrindularitza, mugikortasun jasangarria, feminismoa	Telefonoz

1. **Taula:** elkarrizketatuen, kolektiboen eta elkarrizketen inguruko informazioa laburtuta. Iturria: norberak sortua.

4. ANALISIA

Analisia lau atal nagusitan dago banatuta, sarreran azaldutako helburu zehatzei erantzutea helburu dutenak: lehenik, praxi diskurtsibo ekofeminista murgilduko naiz. Horretarako, elkarrizketatuen diskurtsioan teoria ekofeminista nola txertatzen den azertu dut. Hurrengo bi ataletan praxiaren zentzu praktikoari heldu diot. Bigarren atalean kolektiboen barne-antolamendua azertu dut, bizigarriak eta bizitzaren zaintzarekin bateragarriak diren parte-hartze espazioak sortzeko ahalegin eta erronketan fokua jarrita. Hirugarren atalean, berriz, kolektiboen kanpo-harremanei erreparatu diet, erakunde publikoekin eta gainerako gizarte mugimenduekin eraiki dituzten aliantzei. Azken atalean, utopiaren gaiari heldu diot. Horretarako, lehendabizi, errelato distopikoak eta alternatiba ezak kolektibo eraldatzaileei nola eragiten dieten azertu dut; eta, ondoren, utopiak praxi ekofeministarekin duen lotura arakatu dut.

4.1. Praxi diskurtsibo ekofeminista

4.1.1. Auto-izendapena eta ekofeminismo kontzeptuaren inguruko gogoetak

Lehenik eta behin, esan beharra dago elkarrizketatu guztiek ekofeminismo kontzeptua eta bere esanahia ezagutzen zituztela. Halaber, zentzu batean edo bestean, haien kolektiboek ekofeminismotik edaten dutela identifikatzen dute, hasiera batean lotura hori esplizituki egin ez bazuten edo izen hori eman ez bazioten ere:

“Hasieran kirola egiteko talde bezala hasi ginen, asmoa ez zen feminismoa egitea edo bultzatzea, baina berehala ikusi genuen egiten genuena feminismoa zela. Eta ekofeminismoaren aldetik, ba justu... es que naturaren maitaleak gara. Asko gustatzen zaigu natura. Gero gure bizitzan ere, saiatzen gara balore hauek martxan jartzen. Eta gero... topaketak egiten ditugunean saiatzen gara, ba hori, hacer una gestión de residuos eficiente, garraio publikoa erabiltzea lekura iristeko, mendia aurkitzen duguna baino garbiago uztea... Bueno, gauza horiek” (Gema)

“Sí que es verdad que uno de nuestros ejes es el cuidado de la tierra y por tanto muchas de las cosas que hacemos tienen su inspiración en defender esos espacios. Entonces, bueno, hay cosas que nosotras las vemos más desde este lado del cuidado de la tierra y de todo lo que es y también desde esa parte un poco de lo femenino, otros valores, que son los valores que tienen que ver con los espacios compartidos, con la colectividad, el bienestar de las personas y del territorio... ese equilibrio. En ese sentido sí que es ekofeminista” (Mabel).

“Bide horretan gaude, ba ekofeminismoan aipatzen ditugun elementu asko hor daudelako. Ekodependentzia, interdependentzia... hor daude, ez? Oso presente daude. Eta gero hainbat elementu lurraldeari lotuta, euskaraz egiten dugun proiektu bat da, euskalduna da, ez? Gure desberdintasunak kontuan hartuta, krisi ekologikoa kontuan hartuta, konplexutasun hori kontutan hartuta, duintasun hori kontutan hartuta... elementu asko dauzka ekofeministak direnak” (Mirene).

Alabaina, elkarteari edo proiektuari ekofeminista adjektiboa jarriko lioketen galdetzerakoan, ez baiti ageri dira. Hainbat faktore identifikatu ditut zalantza edo erresistentzia horren atzean. Lehenik, ekofeminismoa eta bere planteamenduak ezagutzen dituzten (eta haiekin bat egiten duten) arren, nabaria da auto-izendatzeko orduan kontzeptu arrotza dela oraindik ere. Mireneren hitzetan:

“Zein sentitzen da ekofeminista? Zenbateraino esaten da ‘ekofeminista naiz’? Oraindikan terminoa egiten da arrotza bezala, ez? Baina ni neu, nik neuk nondik egiten deten hau? Ekofeministotik egiten det, o sea ni ekofeministotik saiatzen naiz ekarpena egiten. Beste norbaiti incluso ‘feminista naiz’ esatea arraroa egingo zitzaion. Eta igual ez da... nik ere oso gutxitan esaten det ‘ni ekofeminista sentitzen naiz’, baina ekofeministotik bizi naiz edo saiatzen naiz bizitzen. Eta feminismoarekin segur aski berdina gertatzen da. Jende bat da... ba feministotik ari da baina ez dio hola deitzen askotan edo. Ez dago hola identifikatuta”.

Bestalde, elkarte eta proiektuak definizio batera mugatu nahi ez duenik ere bada. Hau da, aipatzen da proiektuak irakurketa edo ikuspuntu zabal eta anitzetatik eraikitzen direla eta zaila dela haien jarduna adjektibo edo aurrizki jakin baten bitartez definitzea:

“Ez zaigu asko gustatzen definizioetan sartzea. Baina ekofeminismoa... ba bai, egia da edaten dugula hortik, asko. Bueno leku askotatik edaten dugu. Orduan, horrela, definizio bat... guretzat ez da erraza, egia esan” (Amets).

“Nos podemos nombrar como ecofeministas, pero también nos podemos nombrar como otras muchas cosas” (Mabel).

Halaber, batzuetan kolektiboen partetik zilegitasun eza ere antzematen da. “Ekofeminista ona” edo “nahiko ekofeminista” ez izatearen autopertzepzioak terminoa ez bereganatzera eramaten gaitu. Mirenek aipatzen duenez, ez da existitzen elkarte baten ekofeminismo maila determinatzen duen *checklist* edo irizpide zerrendarik. Gainera, ekofeminismoen aniztasuna kontuan izanda, zaila izango litzateke irizpide zehatz batzuk finkatzea. Zentzu horretan, nahiz eta ekofeminismoa

iparrorratz argia izan aztertutako kolektiboentzat, ez da orainaldiko praktiken izaera definitzeko erabiltzen:

“Klaro, ez daukagu teorizatuta edo adostuta zein diren irizpide ekofeministak eta zenbaiteraino checklist horretan Amillubik pasatzen dituen edo ez, neretzako... Bueno, hori zuk esango dezu...” (Mirene).

“Bueno, nahi dugu izan. Ekofeminista bezala aurkeztuko gara, baina deseraikitze prozesu batera begira. Gure asmoa nolabait lanketa edo ikuspegi hori txertatzea da gure praktketan ere bai eta irakurketa propioa ba garatzea horren inguruan. Eta, bueno... ba hor gabilta apur bat emakume ekologistak eta feministak irakurtzen gero gure irakurketa propioa egiteko Euskal Herrira egokituta. Hau da, bai, ekofeministak nahi dugu izan, baina gaurkoz ez gara” (Alaitz).

Azkenik, zenbait kasutan ekofeminismo hitza problematizatu egin da. Testuinguru teorikoan azaldu bezala, ekofeminismoari egiten zaion kritiketako bat Hegoaldean borrokatu baina Iparraldean izendatzen den korrante bat izatea da (Martínez, 2007; Mellor, 2000). Egia da aztertutako elkarten jarduna Iparraldean kokatzen dela, baina horrek ez du esan nahi mundu mailako dinamiketarik at dagoenik. Adibidez, Etxaldeko Emakumeak La Via Campesinaren¹³ parte denez, Abya Yalako zenbait kideek ekofeminismoaz egindako kritika dekolonialak eragina izan du haien auto-izendatzeko moduan:

“Gu Via campesina barruan gaude, orduan, Abya Yalako baserritarrei ez zaie gustatzen ekofeminismo hitza ze uste dute oso hitz europeoa eta kolonialista dela... pin, pan! Orduan, Via Campesinan adostuta daukaguna da feminismo campesino y popular eta gu, ba hori, feminismo baserritarra” (Amets).

Gainera, Ametsek dio terminoa haiei ere arrotza egiten zaiela eta gertukoagoa sentitzen dutela feminismo baserritarra, haien nortasuna hobeto jasotzen duelako:

“Bai, bueno, agroekofeminismo hitza okurritu zitzaigun, horrelako mega hitz bat. Baina igual sinplifikatzeko feminismo baserritarra ere asko gustatzen zaigu. Ze bueno, gu... baserritar identitate hori lapurtu digute, ez? edo historikoki gutxietsi digute izaera hori. Baina egia da agroekofeminismo... agroekologiaren mundua eta feminismoa uztartu nahian asmatu genuela hitza. Baina igual ez da erraza ez esaten ez ulertzen” (Amets).

¹³ La Vía Campesina mundu mailako elikadura burujabetzaren aldeko mugimendua da, nekazari txiki eta ertainak, landa-eremuko emakumeak, komunitate indigenak, lurrik gabeko nekazariak eta abar batzen dituena.

Halaber, akademiatik egindako izendapenak eta irakurketak baztertu eta diskurtso propioa garatzea ere lorpen bat izan da Etxaldeko Emakumeentzat:

“Guk sortu dugunez gure diskurtso propioa, oso hurbila egiten zaigun diskurtso bat da eta horregatik balio du, edo balio digu. O sea ez zaigu akademiatik inor etorri azaltzen... edo bueno, bai, asko saiatzen dira guri azaltzen zer garen edo nor garen gu, baina guk argi daukagu guk gure ahots propioa daukagula eta esateko gauza asko ditugula. Eta hor dago, nik uste dut, gure diskurtsoaren arrakasta” (Amets).

Ikus dezakegu, beraz, “ekofeminista” hitza ez erabiltzea eta diskurtzio propioak garatzea, mundu mailako kritika dekolonialaren isla izateaz gain, Euskal Herriko kontestuan ematen diren botere-harremanei aurre egiteko modu bat ere badela.

4.1.2. Lurraren eta emakumeen zapalkuntzaren askotariko loturak

Ekofeminista gisa definitu ala ez, elkarrizketatu guztiek aipatu dute haien kolektiboek analisi ekofeministatik edaten dutela. Analisiaren zati honetan, beraz, krisi ekosozialaren inguruan egiten dituzten irakurketan ekofeminismoak duen presentzia aztertu dut. Hurrengo gai nagusiak identifikatu ditut: patriarkatuaren eta kapitalaren aliantza, androzentrismoari eta antropozentrismoari kritika, bizitzaren zaintzaren zentralitatea eta lurraren zapalkuntzaren gorpuztasuna.

Kapitalismoaren eta patriarkatuaren (eta haiek eragindako zapalkuntzen) lotura elkarrizketa guztietan mahaigaineratu da. Zentzu batean edo bestean, aztertutako kolektiboek diagnostiko honetatik abiatzen dute haien jarduna, borroka antikapitalistaren eta feministaren konplizitatea azpimarratuz. Esan beharra dago feminismitik abiatzen diren proiektuetan ohikoagoa dela kapitalaren eta patriarkatuaren aliantzaren inguruko analisia (eta, beraz, analisi ekofeministarantz pausua automatikoagoa izan daitekeela). Ekologismoa ardatz duten mugimenduetan, berriz, genero-ikuspuntua zein begirada feminista txertatzea ez da hain ohikoa (Mellor, 2000; Herrero, 2016). Alabaina, Alaitzek dioenez, Jauzi Ekosozialekoek argi daukate krisi ekosoziala anizkoitza dela eta kapitalismoa ez ezik, patriarkatua ere iturri duela:

“Esaten dugu krisi anizkoitza dela, ez dela bakarrik krisi ekologikoa, lotuta doala ere bai zaintza krisiarekin eta, bueno, pobreziarekin eta... bestelako gai sozialekin, dana dagoela lotuta eta azkenean muinean zapalkuntza bera dela, patriarkala, ekozida... zapalkuntza guztiak elkar loturik daudela eta muina dela patriarkatua eta kapitalismoa bera” .

Elkarrizketetan aipatzen den beste ideia bat sistemaren izaera androzentrikoa da. Hau da, salatzen da gizartea gizonezkoen nahi eta beharretara egokitzen dela eta orokorrean gizonezkoen lotzen diren balioak eta jarduerak hobesten direla. Hau da, ustezko subjektu unibertsal eta neutroa gizonezkoa da. Adibidez, mugikortasunaren inguruan, Gemak dio herri eta hiriak autoen erabilerarako prestatuta daudela eta, garraiobide alternatiboak (bizikleta, kasu honetan) erabiltzea zailagoa dela. Herri eta hirietako mugikortasun plangintza horrek, bere ustez, gizonezkoen beharrei erantzuten die:

“Nik uste dut dela, ba hori... un modelo social destinado a hombres. Ni Bilbon bizi naiz, eta kotxeak sartzan direnean, claro, nik pasatzen ditut bizikletaz kotxe ilarak eta ikusten ditut kotxe bakoitzean pertsona bat eta gehienetan gizonezkoak dira. [...] Badaude ikerketak bizikletaren erabileraren eta generoaren inguruan, oso interesgarriak, eta hor esaten da zaintza lanetan ibiltzen garenok ere bai arriskua kontuan hartzen dugula mugitzeko orduan eta ez dugula kotxea hainbeste hartzen. Baina klaro, ume txikiakin edo nerabeekin bizikletan ibiltzeko orduan hiriak eta herriak prestatu egin behar dira segurtasuna bermatzeko. Ze bestela emakumeak ere ez gara ausartzen” (Gema).

Gemaren usteak ez dira errealitatetik gehiegi aldentzen. Emakumezkoen eta gizonezkoen mugikortasun ereduak desberdinak dira. Emakundek egindako ikerketa baten arabera, distantzia laburretan gizonezkoek autoaren erabilera hobesten dute eta emakumeak, berriz, oinez desplazatzen dira gehienetan (Emakunde, 2021). Garraio publikoaren erabiltzaile gehienak ere emakumezkoak dira. Horren atzean hainbat arrazoi identifikatzen dira, hala nola, emakumeen baliabide ekonomiko urriagoak, segurtasunaren inguruko kontzepzio desberdina, zaintza lanen ardurak, eredu produktibistatik aldentzen diren zeregin-kate konplexuagoak eta abar. Ikerketa horretan ondorioztatzen da egungo mugikortasun planifikazioak gizonezkoen behar eta ohituretara egokitzen direla eta eredu berdinzale eta jasangarriagoak sustatzeko beharrezkoa dela genero-ikuspegia txertatzea (Emakunde, 2021).

Ametsek, bere partez, elikadurara hurbiltzen du androzentrismoari kritika. Bere ustez, politika publikoek gehiago ekoizten duten tamaina handiko ekoizpen-proiektuak babesten dituzte, nahiz eta lurrarentzat kaltegarriagoak izan. Emakumeak sarritan ekoizpen proiektu txikiagoak eta jasangarriagoak sustatzen dituztenez, laguntza horietatik kanpo gelditzen dira:

“Ikusten duguna da emakumeok, gure gizarteratzeagatik ere bai, nekazaritzan bilatzen ditugula proiektu txikiagoak, jasangarriagoak, ekologikoagoak eta salmenta zuzenekoak. Eta justu proiektu guzti horiek laguntza publikoetatik kanpo geratzen

dira. Ze diru laguntzek precisamente guztiz kontrakoa babesten dute, ez? Tamaina, kopurua, ekoizpena... Hor jada emakumeen proiektu pila bat kanpoan gelditzen dira. Eta hori da batez ere guk aldarrikatzen duguna, ez? Ba azkenean, emakumeon eredu hori ere garrantzitsua dela sektore honetan”(Amets).

Pérez Orozcok dioenez, merkatu kapitalistaren zentralitatea maila desberdinetan gauzatzen da. Kasu honetan, Ametsek aipatutakoak zentralitate materialari eta politikoari egiten dio erreferentzia. Hau da, alde batetik, zer, nola eta zenbat ekoitzi erabakitzerakoan erdigunean dagoena etekina eta hazkundera helburu dituen merkatu-logika da, eta ez bizitzaren iraunkortasunaren logika. Bestetik, erakunde politikoak logika honen zerbitzura jartzen dira, eraldaketa bilatzen duten proiektuak sistemaren marjinetan utziz (Pérez Orozco, 2023: 16). Hori dela eta, esan genezake “inbertsio publikoak trantsizio ekofeminista ahultzeko bide berriak” direla (Bayas et al., 2022). Gainera, merkatu kapitalisten logika erdigunean jartzearen eraginak ez dira neutroak. Subjektu konkretu batzuk dira sistemaren marjinetan (egoera prekarioan) gelditzen direnak; kasu honetan, emakumeak.

Trantsizio ekologikoaren aldeko apustua egiten denean ere, trantsizio horren ardatz desberdinek ez dute pisu edo ikusgarritasun berdina hartzen eztabaida publikoan zein agenda politikoan. Esaterako, Oihanak aipatzen du krisi ekologikoaz hitz egitean maiz energia krisi bat (soilik) dirudiela. Gaiari helduz, Mirenek dio energia burujabetzaren diskurtsoa eta horri lotutako proiektuak maskulinizatuagoak egoteak baduela zerikusia gehiegizko ikusgarritasun horrekin:

“Joe, benetan orain elikadura burujabetzan ari ginala leku bat hartzen etortzen dira los machotes de turno con sus energías, sus máquinas y sus eólicas y toman la primera plana. Dala sektore bat oso maskulinizatua, hablando de megaboltios y... que les gusta mucho, ez? De hecho, energia kooperatiba gehienetan gizonezkoak dira gehiengoak eta ordezkariak ere gizonezkoek dute. Oso nabarmena izan da nola energia burujabetzak hartu dun zentralidade bat elikadura burujabetzak hartu ez duena”.

Sistemaren androzentrismoa salatzeaz gain, pentsamendu antropozentristari kritika ere nabarmena da elkarrizketatuengan. Azaldu bezala, begirada antropozentrista batetik natura gizakiaren zerbitzura dagoen ingurumen-baliabidea bihurtzen da, ustiatu eta menderatu beharrekoa. Mabelen ustez, joera antropozentrista hori nabaria da oraindik gure hitz egiteko moduan ere:

“Es muy fuerte, porque fijate que todo nuestro lenguaje agrícola es ‘explotación ganadera’, ‘explotación frutícola’... Hay que cambiar esto, colaboración o como se quiera llamar, pero explotación... ya el propio nombre es muy machirulo”.

Interesgarria da Mabelek begirada antropozentriko hori “matxiruloa” dela esatea. Arestian aipatu bezala, ekodependentziaren ukazioak gizaki independentearen fantasia elikatzen du, eta fantasia horrek patriarkatutik asko du. Hain zuzen ere, Alicia Puleok dio antropozentrismoa eta “nagusikeria patriarkala” eskutik doazela (Puleo, 2011: 155). Mabelen ustez, nagusikeria patriarkal horrek naturarekin harremantzeko modu auto-suntsitzaile batera garamatza:

“Yo alucino cuando todo el mundo está pensando en buscar otro planeta para cuando acabemos con la tierra y dices, a ver, ¿no sería más fácil no acabar con la tierra? Es como decir ‘voy a ver si me construyo otra casa porque esta la estoy bombardeando todo el día, está tan llena de mierda que no voy a poder vivir en ella, entonces me voy a buscar otra casa’. Hostia, pues limpia la casa. Básicamente es: limpia la casa. Y esto es patriarcado en estado puro, o sea, vamos a vivir todos inmersos en la mierda porque no quiero limpiar y entonces ya nos buscamos otra casa, o me iré a la tuya. Muy machirulo, muy machirulo”.

Bestalde, testuinguru teorikoan azaldu bezala, ekofeminismoetatik bizitzaren zaintza sistemaren erdigunean jartzea aldarrikatzen da. Zaintzaren gaia feminismo garaikidearen ardatz nagusietako bat izanik, lurraren defentsan diharduten feministen artean ere garrantzia handia duen gaia da. Elkarrizketatuen kasuan, zaintzaren bi dimentsio gailentzen dira. Alde batetik, kolektiboaren zaintza aipatzen da, hau da, espazio alternatiboeko harreman interpertsonaletan zaintzak daukan garrantzia (gai honi aurrerago helduko diot). Bestetik, naturaren edo lurraren zaintzaz hitz egiten da. Oihanaren arabera, mugimendu feministan zaintzaren inguruan hausnartzerakoan pertsonen zaintzan jartzen da fokoa, lurraren zaintza bigarren plano batean utziz:

“Nik uste det feminismuan agendan, ba bueno, bai ai dala sartzen, baina beste lehenetasun batzuk daudela. Zaintza bai, baina gehio pertsonen artekoa. Lurra, ba bueno... ez dao maila berdinian”.

Mabelen ustez ere, lurraren zaintza pertsonen zaintza bezain garrantzitsua da. Hori dela eta, Lakaben lurraren erritmoak errespetatzen dituzten egiteko moduen aldeko apustua egin dute:

“Luego está todo el tema de los cuidados al territorio, o al medio ambiente, o como le queramos llamar al espacio en el que se nos está permitiendo vivir. Es mucha dedicación, mucho silencio, mucha escucha al territorio... Y bueno, tenemos muy poca maquinaria y muchas manos, pero eso también es otra forma de estar en el territorio, con más cuidado, más despacio...”(Mabel).

Halaber, lurraren zaintzan jarduten dutenentzat ez da erraza lan produktiboa eta zaintza lanaren arteko muga non dagoen definitzea. Zaintzak, beraz, dimentsio asko ditu:

“Zaintza lanak direla eta, gure sektorean oso zaila da desberdintzea zer den lan produktiboa eta zer den la erreproduktiboa. Ze claro gu gure eredutan lurra zaintzen ari gara, ze ez ditugu fitosanitarioak botatzen, ez ditugu pestizidak erabiltzen, ez ditugu antibiotikoak erabiltzen... hori zer da? lan produktiboa? lan erreproduktiboa? Gero igual familia daukagu eta umeak ere zaintzen ditugu, baina bide batez ere gure bezeroak zaintzen ari gara, ze elikagai osasuntsuak eskaintzen ari gara. Eta gainera planeta zaintzen ari gara, ze salmenta zuzenaren bitartez ba gure garrioa ere oso murrizta da” (Amets).

Nekazaritza agroekologikoaren funtzio agerikoena ekonomiko-produktiboa den arren (elikagaien ekoizpena eta salmenta), “klima aldaketaren mitigazioa, biodibertsitatearen sustapena, lurzorua babesa eta kutsaduraren kudeaketa” ere burutzen ditu (Mikilua, 2023: 33). Gainera, Mirenek dioenez, agroekologiaren aldeko apustua egiten dutenentzat lurra zaintzea bezain garrantzitsua da lur horiek lantzen dituzten lan-baldintza duinak bermatzea eta elikadura osasuntsuaren aldeko eskubide kolektiboari erantzutea. Hau da, lurraren eta pertsonen zaintza eskutik doaz.

Merkatu logikaren zentralitate material zein politikoa aipatu ditut lehen, nola bizitza mehatxupear jartzen duten, nola proiektu eta subjektu jakin batzuk marjinetan uzten dituzten. Marjina horietan murgilduz, zapalkuntza partekatu horren beste geruza bat mahaigaineratu da elkarrizketetan, gorpuztutako zapalkuntzarena, alegia. Mari Luz Estebanek dio praxi politiko feminista hezur-haragizko jarduera gisa ulertu behar dela (2017: 106). Jasotako erresistentzia eta indarkeriak ere gorputza zeharkatzen digutela suposatzen du horrek. Zentzu honetan, elkarrizketatuek aipatzen dute lurraren defentsan diharduten emakumeak izateak nekea, bakardadea, segurtasun eza eta abar eragiten diela maiz:

“Beti eotia fuera de la norma da... benetan, un rollo. Agotador. Eskerrak batzutan gure burbujitai rebai” (Oihana).

“Eta askotan da, ba hori, algo tan simple como ocupar un carril y ya. Baina ez dute berdin hartzen emakume batek edo gizon batek egiten duenean. Gizonei ez diete esaten ‘¡que tienes que llevar casco!’ edo horrelako gauzak. Horretarako ere ausartu egin behar zara ” (Gema).

“Guretzat lurra eta gorputza... gauza bera da. Hori ere Abya Yalatic datorren

kontzeptu bat da. Gauza askotan... batek jasaten dituen erasoak besteak jasaten ditu ere bai, ez? Erasoak handiak dira baina batez ere ba hori, gure ereduak ez direlako... ba lurra zaintzen dugunez precisamente eta kriston lana egiten ari garenez horren inguruan, sistema honi ba hori ez zaio komeni. Guk asko daukagu esateko horren inguruan, ez dakit... emakume baserritarrak gutxietsiak eta inbisibilizatuak izan gara eta esan digute que no eramos profesionales eta bueno, beti egon gara baztertuak. Eta egoera oso prekarioa da. Ez dakit zenbat zailtasunekin, zailtasun pila bati aurre eginez, ez? baina antolatu behar izan gara” (Amets).

Ikus dezakegunez, gorpuztutako zapalkuntzari erreparatzekoan ezinbestekoa da begirada interseksionala kontuan izatea. Kasu honetan, lurraren defentsan murgilduta egoteak bere baitan zapalkuntza bat suposatzen duen arren, beste zapalkuntza batzuekin gurutzatzen da, dela emakumea izateagatik, egoera ekonomiko prekarioan egoteagatik, zein landa-eremukoa izateagatik. Faktore guzti horiek hamaika modutan gurutzatzen dira, hamaika modutan zeharkatzen dute gutako bakoitza.

Interseksionalitate horren baitan, interesgarria da Ametsek gorputzaren eta lurraren arteko lotura aipatu izana. Horretarako Abya Yalatik datorren “gorputza-lurraldea” (cuerpo-territorio) kontzeptuari egiten dio erreferentzia. Kontzeptu honek gorputzen eta naturaren arteko konexio sakona azpimarratzen du, gure bizitzen haragitasuna (Pérez Orozco, 2023: 13). Pérez Orozcoren ustez, Iparralde zuri hiritarrean konexio hori ez da hain agerikoa. Aitzitik, Ametsek landa-eremutik hitz egiten du. Esan genezake, beraz, Euskal Herriko kontestuan ere lurrarekiko deskonexioa, nahiko orokortua izan arren, ez dela homogenea; eta, are, lurraren konexio horrek, “osatzen¹⁴” gaituen arren, oraindik eta zaugarriago bihurtzen

¹⁴Euskal Herriko Bilgune Feministak “Osatze Feminista” jarduna martxan jarri zuen gorputza-lurraldearen gaia euskal kontestura hurbiltzeko eta sakonki lantzeko. Kapitalismo heteropatriarkalak naturarekiko eta gure gorputzekiko deskonektatu egiten gaituela argudiatzen da, eta burujabetza feministaren ideala guztiz gauzatu ahal izateko konexio hori berreskuratzea ezinbestekoa dela. Osatze Feminista ekodependentziaren eta interdependentziaren aitortzatik abiatzen den prozesu bat da. Osatze indibidual nahiz kolektibo holistikoa bilatzen du, gorputzetik, plazeretik, eta goxotasunetik abiatuta pentsamendua, harremanak, boterea, ekonomia, militantzia ereduak, instituzioak eta abar berreraikiko dituen. Begiristainek azpimarratzen duenez, subjektibitateak ekofeminismotik eraikitzeak zer suposatzen arakatzeko erreferentziazko hausnarketa dugu hau Euskal Herriko kontestuan (Begiristain, 2021). Dena den, nago (oraingoz behintzat) gehiago duela hausnarketatik edo desiratik errealitatetik baino. Proposamenaren inguruan informazio gehiago eskuragarri dago Emakumeen Mundu Martxako webgunean:

https://www.emakumeenmundumartxa.eus/wp-content/uploads/2020/04/OSATZE-FEMINISTA_Eus_Zuzenduta-definitiboa.docx.pdf

gaituela zentzu askotan.

Azkenik, gorpuztasunaren ideiarri lotuta, azpimarratu nahiko nuke nola elkarrizketatuentzat eraso eta zailtasunei aurre egiteko modua kolektiboan antolatzea izan den. Oihanak “burbujitari” eskerrak ematen dizkio; Ametsek zailtasun guztien aurrean antolatu behar izan direla aipatzen du. Azken finean, kolektiboak ematen digun eustea ere gorpuztasunaren beste alderdi bat da. Estebanek dioenez, herri mugimenduak gorputz kolektiboak dira (Esteban, 2017: 107). Agerikoa da praxi (eko)feministak gorputz kolektibo horren beharra duela eraldaketa posible egiteko, prozesu horretan murgiltzen direnentzat babesleku edo helduleku bihurtzen baita.

4.1.3. Gure hausturak kokatzera bidean

Arestian azaldu bezala, ekofeminismoak oso anitzak dira, eta, aniztasun horren baitan, zenbait desadostasun edo haustura nagusi nabarmentzen dira. Testuinguru teorikoan esentzialismo-konstruktibismo eta Ipar-Hego hausturen inguruko ideia nagusiak jaso ditut. Alabaina, ekofeminismoen diskurtsoak eta praxiak tokian-tokikoak direnez, kosmobisio kokatuak garatzera bidean ezinbestekoa da bertako tentsioak eta botere harremanak arakatzea (Begiristain, 2021). Hortaz, analisiaren lehen atal honekin amaitzeko, haustura horiek aztertutako kontestuan lurreratu nahi izan ditut.

Ekofeminismoa “femeninoa” ote?

Esan bezala, emakumearen eta naturaren zapalkuntzaren parekotasuna ekofeminismo orok azpimarratzen du; kontua da ea emakume-natura harreman hori esentziazkoa edo gizarte eraikuntza bat den. Elkarrizketetan emakumeek lurraren zaintzarekiko duten lotura mahaigaineratzen da. Esaterako, lehenago aipatu dudanez, Ametsek dio ekoizpen-proiektu txikiagoak eta jasangarriagoak aukeratzen dituztenak (gehienetan) emakumezkoak direla. Hala ere, elkarrizketatu denek adierazi dute haientzat lotura hori eraikia dela, eta ez esentziazkoa. Mabelek, egiteko modu eta sentimendu “feminoei” erreferentzia egiten dien arren, pertsona guztiek barneratu ditzaketan balioez ari dela argitzen du:

“Nosotras intentamos que nuestras personas, sean hombres o mujeres, se empapen de esta sensación. No es un sentimiento que pertenezca solo a las mujeres, pertenece a todas las personas. Las niñas y los niños cuando son pequeños son súper sensibles a la naturaleza, a todo. Se paran delante de una hormiguita, no quieren pisar esta flor... y luego no sabemos porque nos volvemos todas brutas y brutos. Te da igual, vas como una buldócer por el territorio”.

Nolanahi ere, elkarrizketatutako emakumeek ikuspegi konstruktibistago bat izateak ez du esan nahi Euskal Herriko kontestuan diskurtso esentzialista edo espiritualagoak ez daudenik. Mirenen ustez, askotan beste lurraldeetako begiradak bereganatzeko joera antzematen da:

“Badago elementu bat kontuan hartzekoa eta da zenbat lotzen dan ekofeminismoa esentzialismoarekin, o sea, ekofeminismo esentzialista bat. Agertzen da la Pacha Mama, Amalurra, nahi dezun bezala deitu. Lurra-emakumearen lotura hori... planteatzen danian espiritualismo horretan, gainea gaizki ekarrita beste lurraldeetako irakurketa ekofeministak, o sea ba da begirada kolonialista bat esentzialismo horretan ere, ez?”.

Vandana Shivak dio ekofeminismo espiritualaren eta politikoaren arteko bereizketa sinplista dela eta Mendebalde zuritik egindako irakurketa teorikoetara moldatzea helburu duela helburu (Mies eta Shiva, 1993). Hain zuzen ere, beste kontestu eta kosmobisioetan guri esentzialista edo espirituala iruditzen zaigunak zentzu eta potentzial politiko jakin bat izan dezake. Baina kosmobisioak ezin dira besterik gabe barneratu. Alde batetik, kontuan izan behar dugu beste lurraldeetako diskurtsoen kooptazioa mundu mailako botere-harremanak maila diskurtsibo edo epistemologikoan erreproduzitzeko era bat dela (Begiristain, 2021), hortik ere aipatutako ikuspuntu kolonialista. Bestetik, gogoratu behar da kosmobisio edo diskurtso horiek gure kontestuan hartzen duten zentzua bestelakoa dela. Generoaren eta natura-emakumea binomioaren inguruko eztabaida zentrala den kontestu honetan, diskurtso esentzialistek inplikazio jakin batzuk dituzte:

“Da precisamente sistemari perpetuatzeko ematen diozun aitzakia. Eta esaten degu, hor ematen da antzekotasun hori, ez? lurra zapaltzen da, emakumea zapaltzen da eta badagoela logika berdina zapalkuntza horretan. Baina horrek ez du esan nahi emakume-natura binomio bat ematen danik. Emakumeok ez daukagu gen berezi bat lurra hobeto zaintzeko, pertsonak hobeto zaintzeko... zaintzari lotutako gen bat. Ordun, kontuz, porque sistemari gainera interesatzen zaio logika hori erreproduzitzen jarraitzea. Ordun uste dut badagoela irakurketa hori eta badagoenean ere ibili behar dela kontuz, zeren batzuetan idealizatu egiten da landa-eremua edo idealizatzen da zaintza” (Mirene).

Ikus dezakegu, beraz, aztertutako kolektiboen praxi diskurtsiboan emakumea-natura harremanaren irakurketa konstruktibista gailentzen den arren, zentzu batzuetan begirada esentzialista barneratuta dagoela oraindik ere. Ildo beretik, Aboitzek dio kontuz ibili behar dela zaintza lanen eta emakumea-zaintza-maitasuna loturaren erromantizazioarekin. Gure diskurtsoetan emakumeen lanaren garrantzia onartu

behar bada ere, arriskutsua da zaintza “etikaren” edota “esentzia zaintzaile femeninoaren” diskurtsoak barneratzea (Aboitiz, 2018)

Hiri-landa haustura

Aurreko zatian azaldu bezala, zapalkuntzak aurpegi asko ditu. Hori dela eta, beharrezkoa da begirada interseksionala analisisira ekartzea. Eta, nahiz eta orain arte Ipar-Hego hausturaz hitz egin dudana, azpimarratu behar da Iparralde ere ez dela homoginoa. Mundu mailako dinamika kolonialak direnak dira, baina horrek ez du esan nahi “Iparralde zuri aberats hiritarren” denak zuriak, aberatsak edo hiritarrak garenik. Kasu honetan, kosmobisio kokatu bat garatu nahi badugu, ezinbestekoa da hiriaren eta landa-eremuaren arteko botere harremana aintzat hartzea. Leire Milikuak *Lur gainean, itzal azpian* liburuan jasotzen duenez, EAeko azaleraren %88 landa-eremua da. Eremu horretan, ordea, biztanleriaren %11a soilik bizi da; eta gainerako %89a, eremu urbano edo erdi-urbanoan. Horrek esan nahi “landa-eremuetara begirada luzatzen duten biztanleen gehiengoak landa-eremutik kanpo kokatutako toki batetik egiten duela” (Milikua, 2022: 20). Ondorioz, euskal gizartean pentsamendu “neutroa” hirikoa da, eta landa-eremua gutxietsi eta baztertu egiten da, subalternitatearen planoan utziz (Milikua, 2022). Elkarrizketatuek ere gaiarekiko ikuspuntu antzekoa partekatzen dute:

“Nik uste dut ekologismoak indarra izan duela landa-eremuan eta lurraren defentsari lotutako proiektuetan edo agroekologiarekin lotuta, baina badirudi hiritikan inposatutako gauza bat izan dela, ez dakit. Hor nik ere zalantzak ditut non gagoen indar korrelazioa” (Alaitz).

“Nos damos cuenta de que casi todo lo que se construye a nivel ideología es muy urbanocentrista... y mucha blanquitud, y mucho capitalismo... y aún queriendo ser muy alternativas y muy alternativos, es que es muy difícil, el mundo urbano es muy difícil” (Mabel).

“Interseksionalitatearen barruan ere ikusten dugu hiriaren eta landaren artean badagoela botere harreman bat eta badagoela nolabaiteko tendentzia bat gu beti azpitik kokatzeko” (Amet).

Gainera, botere-harreman hau ez da kanpotik datorren zerbait soilik. Periferian egote horrek landa-eremukoaren autopertzepzioan eragiten du eta askotan haien burua gutxietsi izan dutela dio Ametsek, askotan “txikiak” sentitu direla. Txikitasun sentimendu hori gainditzeko ahalduntze prozesu bat beharrezkoa izan da, atalaren hasieran azaldu bezala, diskurtso eta praktika propioak aldarrikatzetik abiatu dena:

“Ez da bakarrik hiritik zer datorren, guk geuk ere... da zelan sentitzen garen gu, konturatzen gara gauza hauetaz. Gertatu izan zaigu, ba txiki sentitze horretan igual, gure artean dekalogo bat idatzi eta azkenean guk ere ez ulertzea. Nahi genuen idatzi dekalogo bat super guay, super txukun, super militante... eta azkenean ez genuen ulertzen. Orduan azkenean ikasi duguna da ba bueno guk ditugula gure erritmoa, gure hizkuntza propia, gure egiteko moduak... eta baserritarrak dira” (Amets).

Hiriaren eta landaren arteko harremanaz hitz egiteko “haustura” terminoa erabiltzen da maiz. Milikuaren ustez, euskaldunak lurretik urrundu egin gara, “literalki eta metaforikoki” (2022: 18). Elkarrizketetan “deskonexioa”, “dibortzioa” eta “ezjakintasuna” ere aipatzen dira. Hala ere, desconexio horrek pertzepzio orokortu bati erantzuten dion arren, errealitatea bestelakoa dela uste dute elkarrizketatuek. Izan ere, hiria eta landa interdependentek dira eta, dinamika desberdinak dituzten arren, krisi eta zapalkuntza partekatua pairatzen dituzte. Zentzu askotan, “etsaia” berdina da. Horrenbestez, ustezko bi mundu bereizi hauek hurbiltzea ezinbestekoa dela mahaigaineratzen dute:

“Euskal Herriari egokituta, landa-eremuko bizitza hiriburuko bizitza da. Orduan, ez dakit non dagoen muga... eta gero, krisi klimatikoak hirian eta landan eragiten du, bietan. Badaude elkargune batzuk modu kolektiboan eta modu berdintsuan landu ditzagenuk” (Alaitz).

“Hautura dago intentzio batekin, ez? Dibortzio itzela dago, ezjakintasun izela. Euskal Herria bezelako herri batean non %85a landa-eremua den, ez? Hor lan handia dago. Eskolatan, hezkuntzan, ... Baina klaro es que dena antolatzen da... Neutroa hiria da. Lan handia dago egiteko, bi mundu horiek hurbiltzeko, uztartzeko, ezagutarazteko, jakiteko zertan ari garen lanean” (Amets).

Gizartea orokorrean hirizentrista denez, gizarte mugimenduak ere begirada urbanotik eraikitzen dira. Mabelek esaten zuenez, espazio alternatibo gehienetan eraikitzen den ideologia ez da neutroa, urbanoa baizik. Feminismoa ez dago logika horretatik kanpo. XX. mendean eztabaida akademiko nahiz sozialean gailendutako feminismoak emakume eredu zehatz bat hartu zuen unibertsaltzat: “zuria, klase ertain edo altukoa, mendebaldekoa... eta hiritarra edo urbanoa” (Milikua, 2022: 29). Euskal Herriko kasuan, feminismoak hein handi batean hirizentrista izaten jarraitzen duela salatzen dute elkarrizketatuek. Azken urteotan landa-eremuko begirada diskurtso feministan txertatzeko zenbait ahalegin egin diren arren, oraindik periferian kokatzen dela diote. Mireneren ustez, landa-eremuko emakumeek egindako ekarpenen aitortza falta esanguratsua da:

“Beti kritikatzten zaio feminismoari daukala begirada urbano bat, landa-eremutik beti

kritikatzen zaio hori, ez? De hecho nik uste det hain begirada urbanoa izan dala, o sea, eraiki izan da urbanotik azken hamarkadatan Euskal Herrian ere. Aztertzen baldin badugu Euskal Herriko Mugimendu Feministaren genealogiaren liburuan, landa-eremua desagertuta dago liburu horretan, ni aparece. Benetan ari gara esaten Euskal Herriko genealogia feministan landa-eremuan ez direla feministak egon? Da hutsune ikaragarria!”.

Josebe Blanco artzain eta idazlearen hitzetan, askotan “mugimendu feministari feminista izateko moduak ere aldakorrak direla ahaztu egiten zaio”, eta, horren aurrean, emakume landatarrak ulertzen dute “hiritarra ala landatarra izan, sistema patriarkalak aurpegi asko dituela” (Blanco, 2022: 12). Ikusgarritasun eta errepresentazio falta honek landa-eremuko emakumeak feminismo hegemonikotik kanpo gelditzea eragin du. Zenbait kasutan, feminismoarekiko nolabaiteko mesfidantza suposatu du; eta, aldi berean, landa-eremuko errealitateak abiatzen den diskurtso eta espazio feminista propioak garatzeko premia areagotu du (Milikua, 2022: 31).

“Orokorrean egon da izugarrizko bazterketa landa-eremuarena feminismitik ere. Eta da irakurketa urbano bat. Eta klasista bat, eh? Eta orduan, klaro, landa-eremutik feminismoari begiratzen zaio pixka bat... albozka bezala ez? Eta ez direla identifikatzen feminismo hitzakin momentun batean, edo hori bizitzeko oso modu propioa dutela landa-eremuko emakumeak, baserritarrak ez dianak ere, ze danetik dago. Eta hor falta da analisi bat egitea” (Mirene).

4.2. Barrura begira: kolektiboen antolakuntza

Praxi diskurtsibo ekofeminista aztertu ondoren, atal honetan praxiaren beste geruza bat aztertuko dut, kolektiboen antolakuntzari eta egiteko moduei dagokiena, alegia. Arestian azaldu bezala, diskurtso ekofeministak barneratzea bezain garrantzitsua da egiteko modu ekofeministak praktikan jarri eta parte-hartze espazio bizigarriak eraikitzea (Pascual eta Herrero, 2011). Aztertutako taldeen antolakuntza erduetan eta egiteko moduetan murgilduko naiz atal honetan, beraz. Horretarako, lehenik, praxi ekofeministara hurbiltzen diren estrategiak jaso ditut; eta, ondoren, antolakuntza ereduak eraldatzerakoan elkarrizketatuek aurkitzen dituzten erronka nagusiak identifikatu ditut.

4.2.1. Antolakuntza eredu eta parte-hartze espazio bizigarriak

Hasteko, esan beharra dago aztertutako talde guztiek espazio horizontal, inklusibo eta berdinzaleak sustatzeko xedea adierazten dutela, eta, prozesu horretan, feminismoa ardatz dutela zentzu askotan. Aitzitik, esan bezala, sarritan zaila da gure diskurtsoekin nahiz desiratutako ereduekin koherenteak diren praktikak sustatzea. Aztertutako taldeetan errealitatea ez da oso bestelakoa. Elkarrizketatuek haien kolektiboetan botere-harremanak daudela mahaigaineratu dute, eta, kasu askotan, adinari, esperientziari edo ardura mailari egozten dizkiete desoreka horiek:

“Egia da, hori, formakuntza bai jaso dugula baina klaro gero egunero martxan jartzeko ba bueno...zaila da. Azkenean, klaro, igual inplikazio gehien daukan jendeak ba tendentzia da, ba botere gehiago eukitzea...” (Ametz).

“[Las relaciones de poder] siempre se manifiestan. Quiero decir, de alguna forma, lo que tu has vivido durante tu vida te va dando un cierto rango, tienes un cierto estatus en los espacios... a veces pues porque llevas aquí muchísimos años... has adquirido un nivel de experiencia y de sabiduría que luego lo sabes transmitir... Y esto te da un nivel de influencia en tu espacio colectivo que hay que cuidar. Aunque el grupo les reconozca un alto estatus o un alto rango de poder por trayectoria, esto no tiene por qué afectar a su toma de decisiones. Porque a veces tienen la tentación de cruzarse en medio y no potenciar o invalidar algo que se está trabajando” (Mabel).

Maskulinizatuagoak dauden talde mistoetan, adinaren edo esperientziaren faktoreei genero-desberdintasuna ere gehitzen zaie:

“Dinamizazio bat eraman dugu pixka bat horizontaltasuna mantentzeko, harreman-botereak ere kontuan izateko, genero ikuspegitik ere bai, ze bueno... talka hori edo gehien bat generoarena izan zen, eta talka generazionala ere bai oso presente egon zen hasieratik. [...] Egia da, topaketak antolatzen ni eta besteren bat izan ezik gizonezkoak

zirela guztiak eta gizonezko gehio daudela emakumezkoak baino. Ahalegintzen gara behintzat talde motorean eta pixkat orekatuta egoten bai adinak eta bai genero ikuspegia, baina bueno...” (Alaitz).

Ikus dezakegu espazio alternatiboetan ere zaila dela botere-harremanak ekiditea. Hala ere, goiko pasarteetan antzematen den bezala, aztertutako talde guztietan ahaleginak egiten dira desoreka horiei aurre egiteko. Horretarako, estrategia desberdinez baliatzen dira. Lehenik, antolakuntza-ereduari dagokionez, kolektibo gehienak talde txikiagotan banatzen dira eta azpitalde bakoitzak zeregin desberdinak ditu. Hau bereziki nabarmena da kokatuago dauden proiektu txikietan. Esaterako, Amillubikoek, talde eragileaz gain, esparru desberdinez arduratzen diren azpitaldeak dituzte (komunikazio taldea, proiektuen taldea eta esparru sozioekonomikoaz arduratzen den taldea). MTB Andreakekoak ere zereginak banatzen dituzte eta, nahiko talde txikia denez, noizean behin rolak txandakatzen joaten dira. Etxaldeko Emakumeen eta Jauzi Ekosozialaren kasuan, beharrezkoa zaie lurraldeka antolatzea. Baina, hala ere, badituzte gai espezifikoak lantzeko zenbait azpitalde (lehen aipaturiko Jauzi Ekosozialeko emakumeen azpitaldea, adibidez).

Esan beharra dago antolakuntza eredu honek asko zor diola praktikotasunari. Izan ere, proiektuak oso exijenteak dira eta, kasu askotan, ardurak banatzea ezinbestekoa da bakoitzaren denbora eta bete-beharrekin uztartu ahal izateko. Oihanaren arabera, nahiz eta batzuetan proiektuaren begirada zabalagoa galtzeko eta bakoitza “berera joateko” arriskua dagoen, orokorrean onuragarria izan da antolakuntza hau. Gainera, azpitalde txikiago hauetan konfiantzazko eremuak sortzen direla dio, eta errazagoa dela norberak bere iritzia ematea asanblada orokorretan baino. Era berean, interesgarria da MTB Andreakekoen ardurak txandakatzeko dinamika. Gemaren ustez, eginkizun desberdinei nola erantzun ikasteaz gain, besteek egindako lana eta aurkitzen dituzten oztopoak enpatia gehiagorekin ulertzea ere ahalbideratzen die.

Beharbada, Lakabe da antolakuntza-eredu sendoena edo garatuena duen taldea. Mabelek dioenez, euren antolakuntza eredia lore bat bezala irudikatzen dute, eta lorea osatzen duen azpitalde bakoitza lore-hosto bat da. Sei lore-hostok konposatzen dute Lakabeko lorea, besteak beste: “lurraldea”, lurraldeaz eta harekin duten harremanaz arduratzen dena; “sustraiak”, akordio eta protokoloak garatzen dituen; “ekosinuestra”, ekonomia monetario nahiz ez monetarioaz arduratzen dena; edo “ongizatea”, taldekoen ongizatea zaintzen duena. Egia da Lakabek beste proiektuek ez dituzten berezitasunak dituela. Izan ere, bizi-proiektu komunitario bat izanik, militantzia eta bizitzaren arteko lerroak nolabait desagertu egiten dira. Dena

den, pertsonen eta lurraldearen zaintza erdigunean jartzen dituen eta logika produktibistetatik aldentzen den antolakuntza eredu batek zer nolako itxura eduki dezakeen erakusten digu.

Militantzia espazio bizigarriagoak sustatzeko bigarren estrategia bat bilerak edo asanbladak egiterako orduan elkar-zaintza sustatzeko erabilitako dinamikak dira. Lehen aipatu bezala, ez da nahikoa diskurtso ekofeministak onartzea eta horizontaltasuna xedetzat izatea taldeko kideen ongizatea aintzat hartzen ez bada (Pascual eta Herrero, 2011). Elkarrizketatuentzat ere, ezinbestekoa da taldean eta bileretan giro ona egotea:

“Militantzia ereduari buelta bat ematen ari gara, zaintza kolektiboan begirada gehiago jarri... egia esan, oraindik gauza asko daude egiteko, baina... bilerak eramateko modua, ahotsak eta hitzak banatzeko modua... gero eta kontzienteago eta kontuan izaten, hortikan esango nuke begirada hori, feminista edo” (Alaitz).

“Hor re zaintzan aldetik ta akordio batzutan iritsi gea. Bueno, iten deu ronda hori ea nola gauden eta gero, ba bueno, batak bestiai hitza ez diou kentzen, ez deu errepikatzen bestiak esaten duna...tema baten inguruan, supuestamente, nik ya hitza hartu baet ba ezin da berriro hitz egin...” (Oihana).

Hitza banatzea edota errondak egitea bezalako ekintza txikiak oso lagungarriak dira taldearen eta proiektuen ongizatea zaintzeko. Esan bezala, militantzia espazioak bizigarriak izateko ezinbestekoa da taldekideen arteko errespetua eta elkar-zaintza aintzat hartzea, eta, horretarako, lagungarria da psikologikoki edo afektiboki nola gauden komunikatu ahal izatea. Oihanak aipatutako bilera hasierako errondek, adibidez, denbora gutxi daramate eta oso lagungarriak dira besteen egoerarekiko enpatikoagoak izateko eta, bide batez, bilerei zama kentzeko (Joxemi Zumalabe Fundazioa, 2014: 146).

Azkenik, elkarrizketatuek kanpo-dinamizazio edo fazilitazio prozesuen onurak mahaigaineratu dituzte. Bestelako egiteko moduak barneratzea dirudiena baino zailagoa dela onartzen dute elkarrizketatuek. Dela ikasitako ohiturengatik, denbora faltagatik, edota proiektuaren eguneroko urgentziengatik, sarritan taldearen zaintzari ez zaio merezi duen denbora eskaintzen. Gainera, egiteko era zaharrak desikasi eta berriak ikasteko ezagutza falta dutela ere somatu dute. Hortaz, formakuntzez eta fazilitazio prozesuez baliatu dira. Adibidez, Ametsek aipatzen du Etxaldeko Emakumeek Artterakoekin formakuntzak egin dituztela soziokraziaren

inguruan¹⁵; Jauzi Ekosozialekoek Joxemi Zumalabekoekin¹⁶ lanketa bat egiten dute taldeko botere-harremanak kudeatzeko asmoz; eta Amillubikoek ere fazilitazio prozesu bat antolatuta dute Bizilur¹⁷ ONGarekin taldekoen elkar-zaintza hobetze aldera. Orokorrean, kanpo-dinamizazio esperientziak oso positiboki baloratzen dituzte. Mireneren hitzetan, zaintzari (benetan) denbora bat eskaini ahal izatea eta horretarako prestatuta dauden ezagutzaz baliatu ahal izatea funtsezkoa da, “lujazo bat”.

4.2.2. Erronkak

Ikus dezakegunez, lurraren zaintza eta feminismoa uztartzen dituzten kolektiboetan espazioen bizigarritasuna bermatzeak garrantzia handia du eta horretarako hainbat estrategia erabiltzen dituzte. Hala eta guztiz ere, elkarrizketatuek oraindik asko egiteko dagoela sumatzen dute. Hurrengo paragrafoetan, hain zuzen ere, identifikatutako erronka nagusietan murgilduko naiz.

Espazio maskulinizatueta arrakalak sortzea

Identifikatu dudan lehen erronka espazio maskulinizatueta bidea egiterakoan aurkitzen diren erresistentziak dira. Ezer baino lehen, gogoan izan behar dugu aztertutako kolektiboak oso anitzak direla konposaketari dagokionez: MTB Andreak talde ez-mistoa da; Etxaldeko Emakumeak, espazio mistoetan jarduten duen emakumezkoen taldea; eta, azkenik, Amillubi, Lakabe eta Jauzi Ekosoziala talde mistoak dira. Talde mistoen baitan ere, espazio batzuk maskulinizatuagoak daude besteak baino, bai partaide kopuruari bai egiteko moduei dagokienez.

¹⁵ Arterra Bizimodu Artiedan (Nafarroa) kokatutako ekoaldea eta komunitate intentzionala da. Boterearen-banaketa eta erabaki-hartze prozesu eraginkorrak zaintzeko asmoz, gobernantza-eredu soziokratiko baten arabera antolatzen dira. Soziokrazia egitura bertikalak (ekintzak zehazterakoan) eta horizontalak (erabakiak hartzerakoan) bateratzea bilatzen dituen eredu da, eta lau printzipio nagusietan oinarritzen da: egitura zirkularra (talde txikietan oinarritua), erabakiak adostasunez hartzea, rol jakinak ezartzea, eta atzeraelikadura. Ametsk aipatu bezala, Artterakoek haien esperientzia beste proiektu eta elkarteekin partekatzen dute formakuntza prozesuen bitartez. <https://arterrabizimodu.org/proyectos/proyectos-emprendedores/>

¹⁶ Joxemi Zumalabe Euskal Herriko herri mugimenduei laguntzeko asmoz sortutako fundazioa da. Kolektiboan arteko elkarlan estrategikoa sustatzea, aktibismo politikoa indartzeko formazioa bultzatzea, topaguneen bitartez jendarte eraldaketarako gogoeta eta eztabaida areagotzea, eta kolektiboan barne funtzionamendua sendotzeko bideak lantzea dira haien jardunaren ardatz nagusiak. <https://joxemizumalabe.eus/>

¹⁷ Bizilur Euskal Herriko eta nazioarteko gizarte-mugimenduak laguntzen dituen lankidetzarako eta herrien garapenerako elkarte da, bizitzaren iraunkortasuna sustatzeko helburuz elikadura burujabetza eta begirada feminista ardatz dituena. <https://bizilur.eus/nor-gara/>

Elkarrizketa guztietan argi geratzen da begirada eta praktika ekofeministak txertatzea zailagoa dela militantzia maskulinizatuagoa den espazioetan. Hau bereziki nabarmena da ekologismoaren kasuan:

“Mugimendu ekologistan adibidez talde mistoak dira ta kriston arazoak dituzte begirada feminista txertatzeko. Eta kideak daude oso erreta, gaizki pasatzen ari dira. Ordun... hor adibidez ikusten da, hor ez dago begirada ekofeminista bat. Nahi da, baina nola iten da holako espazio... ba ez dakit nola esan, matxistak edo direnean?” (Mirene).

Are, espazio maskulinizatu hauetako dinamikek subjektu konkretu batzuk militantziaz kanpo gelditzea eragiten dute:

“Barne-eztabaidan egin genuen mugimendu ekologistaren diagnostiko bat eta hor bai ikusten genuen militantzia oso maskulinizatu zela. Eta gero, lan egiteko moduak oso bortitzak, oso maskulinoak... asanblea horiek... lehengo ereduak militantzia ereduak zirela. Hein batean, hori bizi izan dugu guk barne mailan eta hor egon da pixkat bat gure txokea eta apur bat banandu egin gara. Ze azkenean horrelako dinamikek egiten dutena da, ba bueno, jende berria, jende gaztea eta emakumeak mugimendu horretan ez sartzea” (Alaitz).

Antolatzeke eta asanbleak egiteko moduek, hortaz, eragina dute mugimenduetako kideen ongizatean eta partaidetzan. Alaitzen ustez, kolektibo batek benetan horizontala, inklusiboa, eta parte-hartzailea izan nahi badu, beharrezkoa da egiteko modu feministak sustatzea. Hori dela eta, Jauzi Ekosoziala martxan jarri zuten momentutik botere-harremanak eta militantzia eredu maskulinizatuak problematizatzeko beharra argi izan dute. Horren harira, mugimendu ekologistetak emakume militanteen esfortzua azpimarratzen du Alaitzek. Bere hitzetan, “gu gabilta txertatzen aldaketa, txikitasunetik, baina hor goaz”. Euskal Herriko mugimendu ekologistaren inguruko ikerketek adierazten dutenez, mugimendu ekologistako zenbait kide aldi berean mugimendu feministako kide izateak emakumeen arteko elkar-dinamika eta aliantzak egotea erraztu du, eta, hein handi batean, haiei zor zaizkie genero-desorekak eta eraso sexistak mahaigaineratu eta kudeatzeko protokoloak eta barne-lanketak martxan jarri izana (Barcena et al., 2020: 78).

Etxaldeko Emakumeen kasuan, emakume feministek osatutako elkarte den arren, mugimendu eta sindikatu ez-mistoetan ere jarduten dute. Hori dela eta, beraien erronka nagusienetakoak eremu mistoetan presentzia eta ahotsa eskuratze eta agendan eragin ahal izatea izan dira. Ametsek dioenez, agroekologiaren agenda

pixkanaka feminismoz blaitzen ari bada ere, erresistentziak jaso dituzte, gehien bat hasieran:

“Gure espazio mistoak ere kokatu egin behar izan ditugu. Erresistentziak egon dira espazio misto guztietan bezela. Esango nuke ez gehiago ez gutxiago, gure estiloko erresistentziak. Ze igual hasieran ikusten zuten mehatxu bat bezala edo eraso bat bezala, ez? Edo bueno, ba gizontasunarekin gertatzen diren gauza hauek. Eta orain, bueno, momentuz, gure egituretan, nik beti esaten dut, gu pasatu gara agendan... bueno, ez existitzetik, agendako azken puntu izatetik, momentuz gizonak isiltzera gai honi buruz hitz egiten dugunean. Behintzat ya isilik daude eta entzuten, ez? Eta hori... ba azkenean... bada. Igual ni super optimista naiz, eh? O sea, espazio mistoetaz hitz egiten dudanean nik uste dut que la peña flipa conmigo. Baina nik horrela...nik uste dut gu behintzat horrela bizitzen goazela.”

Ametsek aipatzen du nola hasiera batean gizon askok agroekologiako agendan begirada feminista txertatzea mehatxu bat bezala ikusten zuten. Azken finean, botere-harremank zapalkuntza edo diskriminazioa bai, baina pribilegioak ere badakartzate. Hori dela eta, nahiz eta (teorian behintzat) horizontaltasunaren alde egon, sarritan gure pribilegioak bermatzen dituzten diskurtso, agenda, zein sare pertsonalak mantentzeko joera dago. Dena den, erresistentzia hori eraldaketa gertatzen ari denaren seinaleztat ere ikus dezakegu. *Euskal Demokrazia Patriarkala* liburuan aipatzen den moduan, “ez dago giza talderik erresistentziarik jarriko ez duenik bere kapital ekonomiko, sozial, kultural edo sinbolikoa kendu, mugatu edo murriztu nahi zaionean” eta, beraz, “konfrontazioa, handia ala txikia, beti egongo da, egiturazko eraldaketa baldin badago” (Goikotxea et al., 2020: 186).

Dena dela, hasiera batean erresistentzia nabarmena zen arren, Ametsek uste du ureteekin feminismoa espazio gehiago hartzen ari dela agroekologiako diskurtso nahiz praktiketan. Bere ustez, “iraultza txiki” horren atzean dagoena feminismoak (pribilegioak iraultzeaz gain) egiturak hobetzen dituela frogatu izana da:

“Beraiek ulertu dute behintzat egitura bat feminista denean edo ikuspegi feminista bat duenean egitura bera hobetzen duela. Badoaz ikusten egitura askoz hobeto dagoela eta parte-hartze handiagoa dagoela, beste giro bat, beste ekarpen batzuk, beste ikuspegi bat, hobeto sentitzen gara, gehiago zaintzen gara... Es que ez da bakarrik hobeto gaude, o sea guk ere proposamen politikoak egiten ditugu, beste ikuspegi batetik ekarpenak egiten ditugu eta horrek ere egitura aberasten du politikoki” (Amet).

Beraz, feminismoa arrakalak sortzen ari da lurraren defentsaren aldeko espazio maskulinizatueta, batez ere espazio horietan dauden militante feministen esfortzuen

ondorioz. Erresistentzia, haatik, ez da desagertu (gauzak eraldatzen ari direnaren seinale, beharbada). Halaber, gizonezkoen isiltasuna edo konplizitateaz gain, haien inplikazioa areagotzearen beharra ere sumatzen da. Hau da, praktikan begirada eta egiteko modu feministak txertatzea guztien lana izan behar da, eta ez emakumeena edo militante feministena soilik. Ametsek dioenez, “konturatzen hasi gara guk asko egin dugula aurrera, emakumeok, eta gizonak, bueno, hor daudela entzuten, baina orain beste aurrerapauso bat eman behar dugu elkarrekin”.

Lidergo femeninoa ala lidergo feminista?

Identifikatutako bigarren erronka nagusia lidergoarena da. Esan bezala, aztertutako kolektiboen helburua parte-hartze espazio horizontalak eraikitzea da. Alabaina, erabakiak hartzeko eta proiektuak aurrera eramateko orduan, lidergo ere sustatu beharreko zerbait dela uste dute elkarrizketatuek. Kontua da lidergo horiek nola eraikitzen eta kudeatzen diren. Mabelek dioenez, lidergo beharrezkoa da, baina lidergo horrek taldearen lanketa horizontala indartu beharko luke, ez norberaren begirada inposatu:

“Una cosa es un liderazgo que el grupo puede otorgar a una persona o a dos para que lleven adelante un proyecto y lo sostengan en el tiempo y lo cuiden, y otra cosa es estos liderazgos espontáneos que a veces tienen la tentación de cruzarse en medio no y potenciar o invalidar algo que se está trabajando. Se cuida mucho y tenemos muchas miradas pendientes de que esto no suceda. Y si sucede, en seguida se corta. O sea, se llama la atención y se dice: ‘eh! al loro! que parece que por aquí se nos está colando algo’”.

Azpimarratutako beste ideia nagusi bat lidergo posiziotan emakumeak egotearen garrantzia da. Esparru desberdinetan lidergo maskulinitatearekin lotu izan da eta, beraz, gizonezkoak izan dira lidergo posizioa hartu dutenak. Gizarte-mugimenduetan ere ardua banaketa genero rolek baldintzatzen dute maiz, lidergoarekin lotutako zereginak gizonen esku geratuz (Álvarez, 2012). Egiteko modu eta sare informal maskulinizatuek ere joera hori indartzen dute. Sarritan emakumeak zeregin horiek euren gain hartzeko ezgai direla auresuposatzen da; eta, konfiantza eta esperientzia faltaren ondorioz, emakumeei gehiago kostatzen zaie lidergo posizioak hartzea. MTB Andreaken kasuan, talde mistoetatik zetozen emakumeek sortutako taldea izanik, hasieratik egin behar izan diote aurre erronka honi:

“Talde mistoetatik etortzen ginenez, ikusten genuen ba... nola da? zenbait habilidade ez genituela oso garatuta. Ze askotan erabakiak hartzeko ardua hartzen duena lidergo posizio batean dago eta guri hori kostatzen zaigu. Horretan lana egin behar izan

genuen, prozesu bat izan da. Mugimendu sozialetan parte hartzeko momentuan emakumeok askotan hartzen dugu más un rol de cuidado que de liderazgo o de destacar. Eta gainera ez gaituzte gauza horiek egiteko gai ikusten. Gainera guk adin bat daukagu, berrogei urte inguru edo berrogeita hamar, eta orduan pues estas señoras que van a ... Askotan guk ere barneratuta daukagu. Orduan, guk ere gure burua eredu gisa ikustea... kostatzen zaigu. Baina gero oso polita da eta gai sentitzen gara. Prozesu polita da baina debora behar du." (Gema).

Aurresuposatutako ezgaitasun horrek generoarekin zerikusia duela nabaria da. Gainera, emakume izateaz gain "señora" izateak zilegitasuna kentzen duenaren susmoa dauka Gemak. Ikus dezakegu, beraz, adina esperientzia gehiago izatearekin lotu ohi den arren, emakumeen kasuan haien ekarpenak gutxieteko arrazoa bihurtu daitekeela. Bestalde, aipatzen du askotan emakumeek ere (gizarteratzeagatik edo esperientzia faltagatik) lidergo posizioak hartzeko prest ez daudela barneratzen dutela. Hori dela eta, Gemak argi dauka bizikletazko mendi martxak antolatzen dituen taldea ez ezik, emakumeen ahalduntzea sustatzen duen taldea ere izan behar direla. Parte-hartze espazioak zaintzeak eta ardurak txandakatzeak prozesu "polit baina luze" horretan lagundu die eta, pixkanaka, gero eta erosoago daude lidergo posizioetan.

Gainera, argitu beharra dago lidergo posizioetan emakumeen presentzia ezinbestekoa den arren, ez dela nahikoa. Elkarrizketatuen arabera, askotan emakumeek ere lidergo eredu "itogarriak" eta "maskulinizatuak" jarraitzen dituzte. Emakumeen presentzia funtsezkoa da, beraz, baina ez du pentsaera eta praktika patriarkalak saihestea bermatzen:

"Es un proyecto que está iniciado desde la parte más femenina de nuestros espacios colectivos, ha estado liderado siempre por varias mujeres... Y esto no quiere decir que no exista el machismo, porque el machismo hasta nosotras mismas lo tenemos en nuestro propio cuerpo. Nos pillamos muchas veces con enunciados muy del patriarcado, ¿no? sobre todo cuando tiene que ver con lo material, con lo productivo, ... todavía sale el patriarcado con toda su fuerza" (Mabel).

Mirenek ere bat egiten du ideia honekin. Proiektu baten izaera eta dinamikak proiektua bultzatzen duten pertsonen isla dira. Eta, Amillubiren kasuan, osatzen dutenen gehiengoa emakumeak izateari baino, gehiengo hori militante (eko)feminista izateari zor zaio proiektuaren izaera:

"Ez da kasualidadea hamabosteko talde hortan hamahiru garela emakumezkoak edo, nahi dezun bezala ipini, eta horietako asko feministak, ekofeministak, militanteak, aktibismotik lana egiten dutenak. Esan izan digute hitzaldietan, 'nola igertzen dan

emakume talde batek eginda daola', baina es que gu garen horretatik abiatzen da, emakume edo... nik esango nuke feminista" (Mirene).

Gakoa, beraz, lidergoak feminismitik birpentsatzea da. Aitzitik, "oso zaila da lidergo feministak eraikitzea egoa eta lehiakortasuna hain errotuta dauden gizarte batean" (Amets), askotan ere, feminismoak boterearekin izan duen harremana deserosoa izan delako.

Kapitalaren denboran, bizitza zaintzeko denborarik ez

Identifikatutako azken erronka nagusia denborarena da. Elkarrizketetan behin eta berriz aipatzen da bizitzarekin bateragarriak diren eta zaintza erdigunean jartzen duten militantzia ereduak gauzatzeko denbora falta somatzen dutela. Denboraren erronkari erreparatzeko interesgarria da Sagastizabalen analisia berreskuratzea. Esan bezala, denboraren antolaketa ez da neutroa, kapitalaren zerbitzura dago; eta, militantzia ereduai dagokienez, askotan logika produktibistak jarraitzen ditugu (Sagastizabal, 2020). Elkarrizketatuek kolektiboen erritmo bizkorrek taldea zaintzeko eta begirada feminista txertatzeko denborarik gabe uzten dituztela adierazi dute:

"Imaginamos el tema de los cuidados como darnos más tiempo, y al final el tema de los cuidados te ocupa muchísimo tiempo. Llevan mucho tiempo, mucha dedicación, mucho desgaste energético, mucha creatividad..." (Mabel) .

"Hau bolondres edo militantziaz iten ai gea ta zaila da denboa ateatzia ikuspegi feminista bat txertatzeko edo beste ikuspegi bat txertatzeko. Ta askotan baita proiektua oso exigentia da ta goaz pixkat... ba momentuan momentukua ez, baina hortxe. Ordun klaro, hor gaudenian, oso zaila da begirada zabaltzia ta disetinatzia gustatuko litzaigukeen bezain ondo, edo gauzak kontuan hartuta... Gustatuko litzaigukeen ikuspegi feminista, edo antiarrazista, edo klasia... horrelako gauzak" (Oihana).

Gainera, sarritan militantzia lan merkatuko ordutegiaren eta exigentzien arabera antolatzen da (Sagastizabal, 2020). Gauzak horrela, oso zaila da bizitzaren zaintza erdigunean jarri ahal izatea. Gainera, mugimendu batean parte hartzeak prestutasun eta inplikazio totala eskatzen du maiz, "ehuneko ehunean egotea". Hori dela eta, Mireneren ustez, nahiz eta zaintzaren aldeko diskurtsoa barneratuta izan, praktikan bizitzaren zaintza eta militantziaren exigentziak ez dira bateragarriak:

"Zinta martxan dago eta zu jeitsi egin behar zara. No puedes militar, lagunekin ezin zara egon... Eta claro, o sea gutako bati zerbait gertatzen zaio y todo sigue como si nada ha pasado, pues estamos haciendo algo mal. O sea, benetan gure proiektuak eta gure egiteko moduak ezin ditugu antolatu egoera horretan dauden pertsonak..."

Jarraitu behar degu eta pertsona hori se queda fuera, no le vamos a preocupar con estas cosas pero se queda fuera de todo. Nei horrek txirriatzen dit por todas partes. Orduan gure proiektuak de alternativos no tienen nada. Gaude egiten modu berean. Nola gaude antolatuta? Nola dira gure prozedurak? Nola dira gure zaintzak? Ez dago euste bat. Daukagu dana antolatuta sistemak jartzen digun bezala. Erabat indibiduala da, erabat indibiduala. Ez da posible. Asko teorizatzen dugu, baina gero eguneroko praktikan... militantziak egiteko oso modu klasikoak ditugu Euskal Herrian oraindik ere”.

Zaintza, beraz, ez dago erdigunean mugimendu gehienetan (praktikan behintzat). Horrek ez du esan nahi pixkanaka garrantzia hartzen ari ez denik. Adibidez, hitza banatzeko edo bileretan hasi baino lehen taldekideen egoera psiko-afektiboa ezagutzeko erabiltzen diren zenbait dinamika aipatu ditut lehenago. Dena den, batzuetan dinamika horiek azaleko mailan geratzen direla somatzen dute elkarrizketatuek. Ametsek dio espazioak eta jendeak zaintzen saiatzen direla, baina ez dutela denbora gauzak sakontasunez lantzeko. Mirenek ere bat egiten du ideia honekin. Bere ustez, bileretako dinamikak lagungarriak diren arren, egiturek eta egiteko moduek erritmo eta helburu produktibistak jarraitzen dituzte oraindik ere:

“[Minibalorazioak eta bilera hasieko rondak egiteak] ez du permeatzen. Nik esan dezaket bilera hasieran ‘joe ba gaur nator super gaixki, nator lainotuta no sé qué’, baina bilera berdin berdin egingo da. O sea egiten dugu ronda hori eta gero... Da como que zure lagunak esaten dizu ‘jo ba gaur jun naiz nere amarekin porque dauka minbizi bat...’ ta ‘jo, ba animo, aizu, egin duzu lan hori de no sé qué?’ batzutan... no da margen, goaz oso... Eta ez dauzkagu oraindik horretarako prozedurarik, hoiiek danak lantzeko dauzkagu” (Mirene).

Denboraren antolaketa kapitalista batean zaila da militantzia bizigarriak garatzea eta militantzia hori pertsonen zaintzarekin uztartu ahal izatea. Are, pertsonen zaintzaz haratago, lurraren zaintza ere analisisira ekartzen badugu, arazoa sakondu egiten da. Honen harira, Ametsek azpimarratzen du gizarte mugimenduetako subjektu pribilegiatua ez dela gizonezkoa soilik, hiritarra ere badela. Militantzia feministaren baitan ere, kapitalaren erritmora egokitu beharrak lurra zaintzeaz arduratzen diren emakumeen parte-hartzea oztopatzen du:

“Guk ikusten duguna da hiriko mugimenduek beste erritmo bat daukatela. Eta igual nolabait militantzia ekoizteko behar izan bat daukatela, ez? Abiadura handian doan militantzia bat da, orain manifa, orain greba, orain kanpaina, orain ez dakit zer... eta gu, klaro, gu gehiago goaz naturarekin bat. Adibidez, udaberrian oso gutxi militatzen dugu baserrietan lan handia daukagulako. Eta udazkenean gehiago. Azkenean gure militantzia ere baserriak markatzen digu. Zentzu horretan bai nabaritzen dugu

erritmoan kriston kontrastea dagoela. Dena da super hirizentrista. Bilera bat egiteko orduan, mobilizazio bat egiteko orduan... badaukagu zer ikasi”.

4.3. Kanpora begira: eraldaketarako sareak ehunduz

Bestelako etorkizunak eraikitzeko prozesuan, kolektiboen barne-antolaketa zaintzea bezain garrantzitsua da alternatiba saretzea. Atal honetan, beraz, kanpora begira eraikitako sare edo aliantzei erreparatuko diet. Testuinguru teorikoan azaldutakoari jarraiki, bi eremu nagusi aztertu ditut: alde batetik, kolektiboek erakunde publikoekin dituzten harremanak; eta, bestetik, beste gizarte mugimenduekin eraikitako aliantzak.

4.3.1. Erakunde publikoekin harremanak

Harreman instituzionalen gaia korapilatsua da eta eztabaida ugari eragiten ditu kolektiboen baitan. Izan ere, praxi ekofeminista kontra-boteretik abiatu ohi da. "Behetik-gora" eraikitzen da, kapitala erdigunean jartzen duen politika hegemonikoari pultsua eginez. Alabaina, pultsu horretan, estrategikoa izan daiteke instituzioetan daudenekin elkarlana bultzatzea.

Hasteko, aipatu beharra dago aztertutako zenbait taldek ez dutela kanpo-harreman instituzionalik. Esaterako, Gemak dio MTB Andreakekoak ez dutela ez kirol talde bezala ez emakumezko talde bezala erregistratu nahi. Honek nolabaiteko autonomia eskaintzen die. Gainera, bere ustez, erakunde publikoak askotan emakumeen taldeez baliatzen dira kuotak betetzeko edo haien irudia zuritzeko, baina ez dute gauzak aldatzeko benetako borondaterik:

"Eskatzen digute... bueno, eskatu ez, baina esaten digute emakume gehiagok parte hartzea nahi dutela. Baina, claro, zergaitik ez daude orain parte hartzen? eta zertarako nahi duzue emakume gehiago egotea? Si queréis más mujeres, tenéis que adaptar los ritmos, tenéis que dejarnos hacer... Alde horretatik, oztopo ikusezina da. Ikusezina da baina behin eta berriro aurkitzen duguna" (Gema).

Erakunde publikoek asko esan, baina egiteko borondate gutxi dutenaren sentsazioa orokortua da elkarrizketatuen artean. Esan bezala, kontra-boteretik eraikitzen diren proiektuak dira eta askotan erakundeen egiteko modu eta interesekin talka egiten dute. Lehenago aipatu bezala, kapitalaren zentralitate politikoak begirada ekofeministatik abiatutako proiektuak diru laguntza publikoetatik kanpo uzten ditu maiz. Mirenek hau argi ikusten du agroekologiaren kasuan:

"Orain Donostin haragi sintetikoaren ekoizpen laborategi nagusia ireki dute, eta horri eman dio dirua Gipuzkoako foru aldundiak. Horiek dira lehentasunak. Guk aurkeztu dugunean abeltzaintza ekologikorako trantsizioaren proiektu bat Gipuzkoako hainbat abeltzainekin, konbentzionalean daudenak, ekologikora pasatzeko. Horretarako ez

digute eman dirua, ez? Ta esaten dezu: ‘argi dago zein dan beraien eredia’. Esaten dutena ez da egiten dutena”.

Erakunde publikoengandik jasotzen den erantzuna gehienetan eskasa eta itxia dela somatzen dute elkarrizketatuek. Mugimenduetatik hamaika proposamen egiten dira, eta, gehienetan, jasotzen den erantzuna ezezkoa da. Baiezkoa denean ere, instituzioen erritmo, prozedura eta interesetara moldatu behar izana salatzen dute. Dena den, Ametsek dioenez, diru laguntza publikoek zein legeek eragin handia dute eredu jasangarriagoak bultzatzerako orduan. Beraz, “pazientzia estrategikoa” garatu behar da, konplexua bezain beharrezkoa baita instituzioetan pixkanaka arrakalak sortzea:

“Egia da administrazioak egiten duena dela zure ideiak jaso eta gero nolabait haien interesetara egokitu. Hori ere jakin behar dugu. Gaur egun administrazioak ez daude elikadura burujabetza eta agroekologia sustatzen. Ez daude. Ze nolabait ere administrazioak hiltzen utziko luke sektorea, minimo batekin, lau edo bost proiektu handirekin, eta ya está. Baina, o sea, esatea ‘ez, ez dutenez egiten, hor konpon’, ba ez. Hori ere ulertu behar da borroka honen beste atal bat bezala, berre gauza on eta txarrekin. Eta bueno, lantzen joan. Guk proposamen piloa daukagu, eta klaro, proposamen, proposamen... ba azkenean, badoaz heltzen gauza horiek. Hombre, ba beti ere beraien ikuspegitik, eh? Baina egia da garrantzitsua dela instituzio publikoekin lanketa egitea, ze azkenean legeek asko, asko, asko bultzatu dezakete eredu bat edo bestea” (Amet).

Alaitzek bat egiten du ikuspuntu horrekin. Nahiz eta momentuz Jauzi Ekosozialak ez duen harremanik erakunde publikoekin, trantsizio ekosozial justua gauzatu ahal izateko haien kolaborazioa funtsezkoa izango da:

“Alderdi politikoen eta instituzioen ez daukagu inongo harreman zuzenik, baina aurrera begira irekita gaude harreman hori izatera ze uste dugu horrelako arazo bati aurre egiteko elkarlana ezinbestekoa izango dela. Bakoitza bere lekutikan, baina egon beharko dela... bai eztabaidarako edo bai adostasunetara heltzeko horrelako interlokuzio harreman bat” (Alaitz).

Alaitzek aipatzen du oraindik ere militantzia ekologistaren baitan eztabaida eragiten duen gaia dela harreman instituzionalena. Hala ere, oso zaila izango da kontraboteretik (soilik) krisi ekosozialari aurre egitea botere politiko hegemonikoa dutenen konplizitaterik gabe. Berak ere agroekologiaren adibideari heltzen dio harreman instituzionalen garrantzia azpimarratzeko:

“Eskala desberdinetan pentsatu behar da. Modu komunitarioan saretuta egotea oso garrantzitsua iruditzen zait etor daitezkeen beste krisiei aurre egiteko beharrekoak izango ditugulako proiektu txiki guzti horiek, baina instituzioek daukate boterea

beste eskala batean eraldaketak egiteko. Eta hor ere biak uztartu beharko litzazke, ez? Hau da, ez dakit, adibidez, izan daiteke kontsumo talde txiki bat, auzokoa, bale oso ondo. Baina eskala handira egiten duzunean salto ez daukagu nahiko ekoizle agroekologia lantzen dutenak eta elikadura agroekologiko bat eramateko, bai? Orduan, politika publikoak beharko dira pixka bat agroekologia bultzatzeko eta gizartea elikatzeke beste eskala batean, ez auzoko proiektu txiki batean bakarrik” (Alaitz).

Ondorioz, nahiz eta erakunde publikoak nolabait mesfidantzaz begiratzen diren, orokorrean estrategikotzat ikusten da harreman instituzionalak bultzatzea. Aitzitik, kolektibo denak ez dira eskala berean aritzen, hau da, ez dute maila berean eragiteko interesa edo gaitasuna. Etxaldeko Emakumeak, esaterako, La Via Campesinaren parte direnez, nazioarteko mailan ere antolatuta daude. Ametsen ustez, elikadura burujabetzaren aldeko apostua lokala izan behar den arren, makroan eragitea funtsezkoa da, erabaki nagusiak maila horretan hartzen baitira:

“Gure elikadura sistemen eredua Europan erabakitzen da. Orduan, Europan egon behar gara, bai ala bai. Eta Via Campesina Europan dago, en el Consejo Económico Europeo; FAOn¹⁸ dago. Kontraesan bat izan daitekeela? Bai. Baina es que non erabakitzen da ia guztia? Hor. Orduan, parte bat, bai ala bai, han egon behar da. Gure ahotsa hor egon behar da. Esaten dugunean, feminismoan bezala, claro es que arazoa estrukturala da... ba estrukturala makroan antolatua dago. Orduan, zure kontraestruturara hori makroan antolatu behar duzu. Zaila da, eh? oso zaila da. Eta kriston gaitasun politikoa eta orduak behar dira hor ondo mugitzeko. Baina bueno, nik uste dut zuzendaritza politiko bat edukitzea apur bat estrategia hori diseinatzen, taktikak erabakitzen... pues garrantzitsua dela”.

Irauli nahi den estruktura globala denean, kontraestruturara maila horretan antolatu behar dela dio Ametsek. Hala eta guztiz ere, tokian-tokiko estrategia lokalak garatzearen garrantzia ere azpimarratzen du. Mundu mailako dinamiketan txertatuta egoteaz gain, Euskal Herriko kontestura egokitzen diren taktikak pentsatu eta aurrera eramane behar dira, gertukoan eragin.

Amillubi eta Lakabekoek, bestalde, argi dute maila lokal edo mikroagoan eragiteko helburua dutela, eta horrek ere eragina du erakunde publikoekin eraikitzen dituzten harremanetan. Haientzat, udalak dira aliatu zuzenenak. Amillubikoek, adibidez, maila instituzional desberdinetan aurkeztu dute proiektua, baina udalen partetik jaso dute erantzun eta babes esanguratsuena. Mireneren arabera, udalek

¹⁸Ingelesezko Food and Agriculture Organizationen siglak (euskaraz Nazio Batuen Erakundeko Elikadura eta Nekazaritza Erakundea).

tokian-tokiko behar eta arazoei erantzuteko gaitasun handiagoa dute, eta, zentzu horretan, haiekin harremana garatzea bereziki estrategikoa da:

“Gure maila instituzioekin badakigu udaletan dagoela. Udalak ere badu beste logika bat, ez? Behar du erantzun oso... hor dagoenari, dago askoz ere lurreratuagoa. Eta herri mailan saiatzen da baitare gauzak sortzen, edo eskualde mailan como mucho. Gero ya juten zarenian aldundira edo jaurlaritzara... Egon gara, eh, gu juten gara Amillubi aurkezketa a todos los sitios. Baina bueno, badakigu hor rekorrido oso zaila dala. Ze esaten dizute ‘bai, bai, bai, ados gaude’ baina gero ez dute ezer egiten. O sea ez dago benetako apustu instituzional bat. Incluso oposizioan dauden alderdiengatik ere. Udalak dira aliantza zuzena. Eta hor mugitzen gara. Porque guk gainea re ez dakau energia jartzeko... ze mailatan? pues gu hor. Egitetik. Zein dago gurekin egitetik? Ba hor gaude”.

Mirenek dioenez, egitetik hor daudenekin jardutea da praktikoena lurreratuago dauden proiektuentzat. Lakabekoek ere, logika bera jarraituz, maila mikroan jarduten dute batik bat. Haienezat, harremana errazagoa da udal edo udalbatza mailan. Gainera, erakundeetan parte hartu izan dute haien ahotsa modu zuzenagoan ordezkatu ahal izateko. Erakunde publikoetan egotea norberaren interesak defendatzeko baliatzeaz gain, politika egiteko moduak aldatzeko abagunea ere badela dio Mabelek. Kontrahegemonia garatzeko espazio bizigarriak eraikitzea bezain interesgarria da hegemoniaren erabakiguneak barrutik eraldatzea, hauek ere bizigarriagoak bihurtu daitezke:

“También por eso nos metemos en el ayuntamiento, o aquí, o allá, nos vamos metiendo para introducir estos cambios. Cambios en la forma de hablar, en la forma de tomar las decisiones, en la forma de gestionar los conflictos, en la forma de relacionarte, en la forma de nombrar las cosas... y vas introduciendo nuevos parámetros que tienen que ver con cambios importantes a nivel social. Cambios de definición, de identidad... y podría ser que aquí una vez que lo hayas trabajado, incorporado y haya formado parte de ti, puedas empezar a ponerlo en contraste con la vida social y política, más desde lo convencional. Es una forma de influir a nivel político también” (Mabel).

4.3.2. **Kontra-hegemoniarako aliantzak: gizarte mugimenduen arteko saretzea**

Elkarrizketatu guztiek aipatzen dute gizarte mugimenduen arteko sareak indartzearen garrantzia. Gizartearen eraldaketan norabide amankomun bat jarraitzen dutela uste dute, hau da, gizarte feminista, ekologista, sozialista, antiarrazista, euskalduna... lortzeko borroka partekatzen dutela, bakoitzak bere esparruan eragiten badu ere. Eta, botere hegemonikotik kanpo daudenez, argi dute elkarren laguntza

behar dutela bakoitzaren helburuak bete eta gizartean eragin ahal izateko. Hori dela eta, estrategikoa da alternatiba txikiak saretu eta “kontrahegemoniarako aliantzak” (Guilló et al., 2020: 60) eratzea.

Orokorrean, ohikoagoak dira esparru edo sektore berekoen arteko aliantzak. Hain zuzen ere, MTB Andreakekoak batik bat bizikleta bidezko mugikortasunaren alde egiten duten emakumezkoen beste taldeekin elkartzen dira; Lakabekoak, beste ekoaldea edo proiektu komunitarioekin; eta Etxaldeko Emakumeak edo Amillubi, agroekologiara lotutako eragileekin. Dena den, elkarlana haien esparrutik haratago eramateko nahia ere adierazten dute eta ahaleginak egiten dituzte zentzu honetan. Jauzi Ekosozialekoak, esaterako, ekologismotik kanpo eragiteko asmoarekin sortu zuten mugimendua. Haien ustez, ezinbestekoa da beste mugimenduetan krisi ekosozialaren gaia jorratzea. Ekologia sozialaren gaia modu transbertsalean landu nahi dutela dio Alaitzek:

“Nahi duguna da [ekosozialismoa] sektore edo eragile desberdinekin landu. Ba adibidez enpleguaren munduan ekologismoa lantzea sindikatuekin, ikuspegi ekofeminista mugimendu feministarekin, etxebizitza auzia etxebizitza sindikatuekin... apur bat zabaldu eta gaia transbertsialitatez landu eragile desberdinekin, ez bakarrikan mugimendu ekologistarekin. Guztiok batera beste mundu posible bat irudikatu behar dugu”.

Ametsen ustez, Euskal Herriko kontestuan mugimendu desberdinen arteko aitortza eta elkarlanerako prestutasuna nahiko orokorra da. Alabaina, sarritan zailagoa da epe luzerako harreman zein estrategia partekatu sendoak garatzea:

“Sindikatu urbanoekin, mugimendu ekologistarekin... harreman onak ditugu. Nahiz eta igual Espainia mailan hori oso arraroa izan, Euskal Herrian oreka polita daukagu. Nik esango nuke aliantzak esparru handiarekin ditugula eginda. Gero beste gauza horiek nola gauzatzen diren... claro, igual hor ez daukagu estrategia amankomun bat” (Amets).

Gainera, bakoitzak bere proiektua eta helburu propioak lehenesteko joera dagoela onartzen dute elkarrizketatuek. Mirenek dioenez, bakoitza “bere borrokatan” dago. Hein batean, denbora faltari egozten diote arazo hau. Proiektuen eta norberaren urgentziek aliantzak garatzeko denbora gutxi uzten dute:

“A ver, nik ulertzeet guk lehentasun hau dakaun bezela, ba beste eragileek beaien lehentasunak dazkatela. Ez dakau denbora, ta dazkau beste ardatz edo beste gai batzuk bigarren planuan ezin ailegatu...Ba bakoitzak dazka bere lehentasunak, bere urgentzik eta...” (Oihana).

Denbora faltaz gain, badaude kolektiboen arteko elkarlana oztopatzen duten beste hainbat faktore. Alde batetik, bakoitzak bere ikuspegia edo bere agenda lehenesteko joera dago, eta, hau horrela izanda, zaila egiten da komunean dauden elementuetan arreta jartzea. Horren aurrean, gutxieneko adostasunak bilatu eta minimo komunitate abiatuta eraikitzea ezinbestekoa da (Esteban et al., 2020). Haatik, zaila da horrelako harremanak eraikitzea lehiakortasuna eta egoa saritzen dituen sistema batean. Mireneren ustez, aliantzak sortzeko orduan egiteko modu patriarkalak gailentzen dira oraindik ere:

“Nik behintzat pertsonalki zeozer ikasi baldin badet urte hauetan da aliantzak direla la clave. Eta aliantzak ez direla que sirven para todo y para siempre. Ni zurekin egin naiteke desados gauza askotan, baina honetan badakit konfluitzen dugula eta egingo dugula aliantza honetan. Eta egoa alde batera uztea. O sea, hori da kruziala. Eta hori oso zaila da, eh? oso zaila da. Porque sistema patriarkala da. Eta egiteko moduak, aliantzak eraikitzen direnean ere... egotikan asko dago. Eta hori da... neretzako da zailena. Eta ez dakit zenbateraino jabetzen garen gauza horiek zaintzeak duen garrantziaz”.

Bestetik, faktore pertsonalak ere jokoan sartzen dira. Kolektiboen baitan gertatzen den modu berean, ekintza edo estrategia komunak diseinatu ahal izateko beharrezkoa da talde desberdinetako kideen arteko giro ona eta horizontaltasuna sustatzea. Taldearen zaintzan jartzen den arreta saretze prozesura ere zabaldu beharko litzatekeela mahaigaineratu dute elkarrizketatuek. Kanpo dinamizazioak egitea, botere-harremanetan arreta jartzea eta parte hartzeko moduak kontuan izatea funtsezkoak dira aliantza bizigarriak eraikitzeko. Mirenek dioenez, konfiantzazko eremuak eraiki ezean, oso zaila da “amorrua kolektiboan antolatzea”:

“Iruditzen zait amorrua kolektiboan antolatzea klabea dela. Baina ze zaila dan aliantzak eraikitzea era horta, oso zaila da. Konfiantza eremuak sortu ber dia horretarako. Ni ez naiz haserretzen edozeinekin, haserretzea ez dago ondo ikusita, hortik hasita. Ordun, norekin antolatzen naiz? Zeinekin dakat konfiantza hori egiteko? Hori landu egin behar da, hori ez da egin batetik bestera sortzen. Eta horretarako denbora behar da”.

Bada aztertutako kolektibo guztientzat bereziki gertukoa eta konplizea den aliatu bat: mugimendu feminista. Dela feminismotik abiatutako proiektua delako, nahiz militante feministak kide dituztelako, mugimendu feministarekin nolabaiteko lotura dute aztertutako talde guztiek. Testuinguru teorikoan azaldu bezala, lurraren defentsaren aldeko mugimenduen eta feminismoaren arteko elkarlana ez da ohikoena izan (Bosch, Carrasco eta Grau, 2015; Mellor, 2000). Dena den, bi mugimenduen arteko

hurbilpena gauzatzen ari dela uste dute elkarrizketatuek. Ametsen hitzetan, “mugimendu feministarekin harremana oso erraza da, borroka konplizea da”.

Euskal Herriko mugimendu feminista asko indartu da azken urteetan. Feminismoak, beraz, gainontzeko mugimenduen antolakuntza ez ezik, hauen diskurtso eta praktikak ere zeharkatu ditu (Barba et al., 2022: 65). Zenbait elkarrizketatuk aipatzen dute azken urteotan antolatutako greba feministen inguruan lanketa desberdinak egin dituztela haien kolektiboetan. Jauzi Ekosozialekoak, esaterako, 2023ko azaroko greba feminista orokorrera batzeaz gain, zaintza sistemak krisi ekosozialarekin duen loturaren inguruko barne-lanketa ere egin zuten. Etxaldeko Emakumeak ere zaintzaren inguruko hausnarketara batu ziren, elikadura burujabetzaren eta zaintzaren arteko lotura mahaigaineratuz¹⁹.

Gainera, elkarrizketatuen arabera, prozesua aldebikoa izan da. Haien kolektiboak feminismoz blaitu diren moduan, agenda feminista pixkanaka krisi ekosozialari loturiko aldarrikapenez blaitzen ari da. Orokorrean, ekofeminismoa agenda feministan lekua hartzen ari dela uste dute elkarrizketatuek, nahiz eta (momentuz behintzat) ez duten gai zentral bat bezala ikusten:

“Ez da gai zentrala, baina badago. Emaginetik ekofeminismoaren inguruko saio batzuk egin izan ditugu. Euskal Herriko Gazte Feministek ere azken bi topaketetan gaia landu dute. Feminismoan ari da pixka bat ulertzen gai hau ez dela zerbait ez dena garrantzitsua. Nik uste det garrantzia hartzen ari dela. Talaia Feministaren analisisan ere ekofeminismoaren gaia izan zan, dossierrean landu ziren bost gaietatik ekofeminismoa bat izan zan, o sea, Talaia feministak egin du hori baita ere. Ta ordun nik feminismoan ikusten det badaukala leku hori ekofeminismoak eta lurrari lotutako aldarrikapen horrek. Eta gero, beti agertzen da, aunque sea como una puntilla, baina badago. Baina ez da gai zentrala momentu hortan” (Mirene).

Lurraren zaintza feminismoaren baitan hartzen ari den garrantziaren adibide gisa 2023ko azaroaren 30eko greba aipatu dute hainbat elkarrizketatuk. Izan ere, 2018ko eta 2019ko martxoaren 8ko grebetan ez bezala, 2023an agroekologiaren defentsa aldarrikapenen zerrendan sartu zen (garatu nahi den zaintza sistema feministaren ardatzetako bat elikadura burujabetza dela adieraziz) . Halaber, arestian azaldu bezala, Euskal Herriko mugimendu feminista zentzu askotan oraindik ere hirizentrista den arren, Ametsek uste du landa-eremuko kolektiboak eta kolektibo urbanoak konektatzeko zubi aproposa eskainitzen duela:

¹⁹ Etxaldeko Emakumeek 2023ko Greba Feminista Orokorraren inguruan egindako hausnarketa eskuragarri dago elkartearen webgunean: <https://etxaldeko-emakumeak.elikaherria.eus>

“Aurreko greba feministan elikadura ez zen ezta aipatu ere egiten eta azkenengo greba honetan bai. Aipatzen da elikadura burujabetza agroekologiaren eskutik. Eta hori da lanketa hau dagoelako azpitik, bestela ez litzateke egongo. Hori lortu da. Lortu da hurbilpen bat agroekologiaren eta feminismoaren artean eta hori ere iruditzen zait dela landa eta hiriaren hurbilpen moduko bat. Bueno, hori ere mapan jartzea da, feminismoaren mapan jartzea da”.

4.4. Utopia idaztera ausartu distopia baten erdian

Praxi ekofeministaren alderdi diskurtsiboa eta praktikoagoa aztertu ondoren, analisiaren azken atal honetan utopietara itzuliko naiz. Testuinguru teorikoan azaldu bezala, krisi ekologikoaren kontestuan pentsaera distopikoa areagotu egin da. Horri gizartearen indibidualizazioa eta posibilitatearen kontzepzio mugatua gehitzen badizkiogu, badirudi leku gutxi geratzen dela utopiarentzat. Gauzak horrela, praxi ekofeminista eraldatzailea gauzatu ahal izatea aparteko erronka bihurtzen da. Eta, hala ere, aztertutako kolektiboak horretan dabilta, distopia baten erdian utopia idazten. Baina, nola ulertzen dute utopia? Nola antolatzen da utopia kolektiboa utopia pertsonalak gailentzen diren garaian? Proiektu txikiek eraginik ote dute mundu mailako kolapsoaren aurrean? Galdera hauei eta beste askori erantzutzeko, alde batetik, errelato distopikoak praxi eraldatzailea aurrera eramatekoan dakartzan zailtasunetan murgildu naiz; eta, bestetik, elkarrizketatuek utopiaren inguruan egiten duten irakurketatik abiatuta, praxi ekofeministak utopia feministekin duen lotura arakatu dut.

4.4.1. Errelato distopikoak eta alternatibaren “ezinezkotasuna”

Utopia ez ezik, distopia ere oso gertukoa dute elkarrizketatuek. Hain zuzen ere, krisi ekologikoari lotuta, kolapsoaren ideia behin eta berriro aipatu da. Aitzitik, kolapsoa ez da etorkizunean egun batetik bestera eta modu kaotikoan gertatuko den zerbait bezala ikusten. Alaitzen arabera, kolapsoa dagoeneko gertatzen ari den zerbait da:

“Badirudi kolapsoa irudikatzen dugunean dela egun baten, ez? bomba nuklear bat bezala, boom! eta zerotik hasiko garela. Baina kolapsoa jada badago, gauzak ari dira kolapsatzen. Munduaren edo planetaren limite batzuk jada, oreka bat mantentzeko... bederatzi limitetatik sei jada gainditu ditugu, orduan hori kolapso bat da bere horretan”.

Alaitzek muga planetarioen gainditzea aipatzen du kolapso ekologikoaren seinale gisa. Berak dioenez, garapenerako jarduera-eremu segurua bermatzen duten bederatzi muga biofisikoetatik sei gainditu ditugu jada²⁰. Egoeraren larritasuna, beraz,

²⁰ Informazio hau *Stocholm Resilience Centre*-ek 2023an argitaratutako ikerketa batean oinarritzen da. Muga planetarioen definizioa eta neurketa ikerketa-zentro bereko zientzialariek proposatu zuten 2009an, Johan Rockström zientzialaria buru zutela. Haien arabera, muga horiek urratuz gero ezin da giza garapena ziurtatu (ez orain arte ezagutu dugun bezala, behintzat). Oraingoan, muga ziurren barruan gaude itsasoaren azidifikazioari, atmosferako aerosolen pilaketari eta ozono estratosferikoaren pobretzeari dagokienez. Aitzitik, 6 muga planetario gainditu ditugu jada, hots, klima

agerikoa da, eta ezin da gehiago itxaron neurriak hartzeko eta egungo sistema biozida eraldatzeko. Mabelek ere egun batetik bestera etorriko den kolapsoaren inguruan bere zalantzak ditu. Bere ustez, egungo egoeraren larritasuna ukaezina den arren, egoera honen kudeaketa soziopolitikoaren arabera izango da etorkizuna. Kolapsoa saihegarria da naturarekin dugun harremana birplanteatzen badugu:

“Todo el mundo dice que en algún momento vamos a colapsar, yo no sé si vamos a ser capaces de colapsar, no sé si los estados nos van a dejar colapsar. No sé que van a hacer para gestionarlo... De todas formas, qué loco que tengamos que llegar a esto en vez de simplemente rebajar nuestro nivel de vida, dejar tantas cosas superfluas y estar más cerca de la tierra, mucho más cerca” (Mabel).

Hausnarketa hau ez da desazkundearen proposamenetatik gehiegi aldentzen. Hau da, lurraren muga biofisikoak direnak dira eta gizakia modu batean edo bestean moldatu beharko da muga horietara. Kontua da ea gure bizimoduaren eraldaketa kontzientea eta antolatua izango den ala, aitzitik, autoritarianismoa edo kaosa gailenduko diren.

Mahaigaineratutako beste ideia bat egoeraren larritasuna onartzeak bestelako sistemak irudikatzeko eta eraikitzeko beharra areagotzen duela da; eta, horrek, neurri batean, praxi ekofeminista bultzatzen dezakeela. Izan ere, lehenago azaldu bezala, gaur egungo sistemaren ezinezotasunaren aitortzatik abiatzen da praxi utopiko oro (Apodaka, 2018: orr). Oihanak bat egiten du ideia honekin. Bere ustez, errelato distopikoa produktiboa izan daiteke antolaketa kolektiboa sustatze aldera:

“A ver, nik uste det, vale, beldurra gehiegizkua danian paralizatu gaitzakeela. Baina uste det baita ondo etortze zaigula batzutan rallatzia, ta preokupatzia, ta triste jartzia, geatu eta aldaketa baten biharra ikusteko. Bestela hola baldin bagaude...Ni nao alde pixkat gure lagunak rallatziana, ba bai, rallau zaite, pentsatu, ta guazen gauzak aldatzea. Egia da gero kolapsua ta... arriskutsua dala ze gero ekoantsietatia da holakuak datoz. Baina bueno, horrek re bai ekarri dezake antolatzia. Nik uste det amorru puntu hori sentitzia ta amorru hori kolektibuan antolatzia txispa interesgarria izan daitekela ekintzarako motor bezela. Ze bestela ez deu beharrik ikusten, ta gaude Sheinen erosten edo ez dakit ze...” (Oihana).

Hainbat ideia interesgarri mahaigaineratzen ditu Oihanak. Alde batetik, krisi ekosozialaren larritasunaren aitortzak gudan eragindako tristura, kezka zein amorrua

aldaketarena, nitrogenoaren eta fosforoaren zikloena, biodibertsitatearen galerarena, ur gezarena, lurzorua erabilerarena eta ingurumen-kutsatzaile kimikoena. Informazio osoa eskuragarri hemen: <https://www.science.org/doi/10.1126/sciadv.adh2458>

produktiboak izan daitezkeela dio, ekintzara pasatzeko katalizatzaileak direla. Bestetik, ordea, diskurtso hauek paralizatu egin gaitzaketela onartzen du. Baina, bi ondorio hauek bateragarriak al dira? Ez da kasualitatea Oihanak ekoantsietatea aipatu izana. Lehenago azaldu bezala, krisi ekosozialren ondorioez kontzientziatzeak tristura, larritasuna, beldurra, ezintasuna, frustrazioa, amorrua... eragin diezaguke. Kontua da horrekin guztiarekin zer egin. Bañosen hitzak berreskuratuz, “ekoekintzaren” eta “ekoparalisiaren” arteko bidegurutzean gaudela dirudi (2023: 85). Haatik, orokorrean kolapsoa irudikatzeak katastrofismora eramaten gaitu antolakuntza politikora eraman beharrean:

“Kolapsoa ya badago. Orduan, ikusi behar da zer egiten dugu horri buelta emateko, ez? Zer egon behar gara? Geldirik? Superkastrofistak izan?” (Alaitz).

“Uste dut distopia saltzen digutela geldiarazteko. Ze beraiek salduko digutena da gizarte distopiko bat nun kolapso bat egongo den y solo se van a salvar cuatro. Eta orduan bildur horrekin danak gabiltza paralizatuta, eta hori da gertatu ezin dena” (Amets).

Baina, nola gainditzen da paralisi politikoa? Esan bezala, ekoparalisia arintzeko antidotoak gizartean eragiteko eta konponbidearen parte aktiboa izateko dugun gaitasunaz jabetzean datza. Eta, krisi ekosoziala bezalako arazo baten aurrean, eragiteko gaitasun hori kolektiboan antolatu behar da (Baños, 2023: 87). Ametsen hitzetan, desesperantzaren aurrean, “kolektiboki amestea casi-casi beharri zan bat da militante guztiontzat edo sistema eraldatu nahi dugunontzat”. Alabaina, egitura kolektiboak indartzea zaila da gero eta indibidualistagoa den gizarte batean.

Indibidualismoa da, hain zuzen ere, elkarrizketetan mahaigaineratu den erronka nagusietako bat. Azaldu bezala, neoliberalismoak gizartea atomizatu egiten du; desira (eta utopia) pertsonalak ditugu, indibidualean lortzen direnak, eta horrek ezintasuna eragiten digu distopia unibertsalei aurre egiteko orduan (Apodaka, 2018). Gainera, gizartearen indibidualizazioak *statu quoa* mantentzea ahalbideratzen du. Izan ere, bakarrik ikusten garenean ekintza eraldatzaileak aurrera eramatea sostenga ezina da hainbat zentzutan. Adibidez, proiektuen exigentzia, denbora falta, aliantzen eraikuntza eta abar bakarka kudeatzea oso zaila (ia ezinezkoa) dela aipatzen du Mirenek. Are gehiago, antolakuntzaren atalean aipatu bezala, zaintza lanak era indibidual eta pribatizatuan antolatuta egoteak ere kolektiboen funtzionamendu egokia oztopatzen du:

“Gero eta indibidualizatuagoak gaude. Eta hori sistemaren estrategia bat da. Esateko ‘bua, haundiegiya da neretzat’, culpable sentiarazte horretatik urrundu nahi badegu

ere... Baina claro, está todo pensado para que eso no pueda pasar, para que estés a tope, a mil movidas, lanak jan iten zaitula, zaintza ez dago antolatua ordun si te pasa algo te jodes..." (Mirene).

Egia da alderdi indibidualak ere bere lekua duela eraldaketa soziopolitikoan. Izan ere, neoliberalismoak subjektuak "kolonizatu" dituen honetan, bestelako gizarte bat eraikitzeke gure behar, desira, pentsamendu eta harremanak eraldatzea beharrezkoa da. Dena den, antolatzeko eta ekintzara pasatzeko orduan, eraldaketa indibidualak estruktura kolektiboen eustea beharrezkoa du:

"Gero eta indibidualistagoak gara ere bai. Horregatik esaten dut kolektibizatu eta egiturak indartu. Ze gaur egun ere ikusten dugu dagoela influencer indibidual asko. Nahiz eta eraldatzaileak izan, eh? kontuz. Baina hemen, edo egitura kolektiboak indartzen ditugu edo bakarrik ez da inor salbatuko. Orduan distopiak utz ditzagun alde batera eta guk jarraitu dezagun elkarrekin amesten gizarte hobeko baten eta amets horiek gauzatzeko" (Amets).

"Lo individual... pues es parte de lo colectivo, pero si no termina por llevar a lo colectivo tiene menos impacto en el campo energético de la humanidad. Y este salto de conciencia del que tanto se habla necesita que seamos muchas personas, muchas colectividades las que de alguna manera demos un paso adelante" (Mabel).

Indibidualismoaz gain, elkarrizketatuek mahaigaineratutako bigarren erronka nagusia praktikotasunaren edo pragmatismoaren izenean behin eta berriz jasotzen dituzten ezezkoak dira. Erakunde publikoak (eta gizartea, orokorrean) proiektu alternatiboen aurrean ez baita ageri direla sumatzen dute, ameskeria gauzatu-ezinak (edo behintzat orokortu-ezinak) direlakoan. Egia da printzipioz praxi utopikoa eta praktikotasuna ez doazela eskutik, gehien bat praktikotasun hori epe laburreko interes kapitalista eta produktibistetan ulertzen bada (Sánchez, 2003: 288). Alabaina, Apodakak argudiatu bezala, probableen pragmatismotik posibleen pragmatismora jauzia emanez gero, alternatibaren ateak irekitzen dira. Gema eta Ametsek diote, esaterako, haien proposamenak egingarriak direla, askotan ezezkoa jaso badute ere:

"Gu Kubara goaz urtero formakuntza batera eta han agroekologia eta elikadura burujabetza egingarria dira. Orduan, beste lurralde batzuetan posible bada, zergaitik gurean ez? Nork esan digu ezetz? Guk ikerketak egin ditugu ere gainera zentzu horretan. Euskal Herrian... Bizkaian, Nafarroan eta Iparralden eginda daude, eta lur gaitasuna kontuan izanda posible izango litzake Euskal Herriko populazioari jaten ematea eredu sostengarri batean. Ez orain, noski, hitz egiten ari gara prozesu luze bati buruz. Baina egingarria litzateke. Orduan, nork esan digu guri ezetz? zergatik?" (Amets).

“[Bizikleta bidezko mugikortasunak] azpiegitura eskatzen du, bai, baina nik horren aurrean beti erantzuten dut margoa nahiko merkea dela. Nik uste dut borondate kontu bat dela eta ez horrenbeste diruarena. Eta gainera bizikleta oso merkea da, mantentzeko eta. Es un tema más macro de modelo económico eta zer bultzatu nahi dugun eta zeri ematen diogun lekua. Adibidez, Bilbotik itsasorako bidegorria aldarrikatzen genuenean esaten ziguten: ‘es que ez dago lekuri bidegorri bat egiteko’, eta bi erraileko errepidea zegoen. Ba ez badago besterik, semaforo bat jarri eta kotxeen espazioa mugatu. Espacio hay, lo que pasa es que no se nos ocurre, no nos entra en la cabeza quitar un carril para entregarlo a la bicicleta, pero sitio sí que existe” (Gema).

Alternatiba ezaren oztopoa gainditzeko beharrezkoa da praktikotasuna beste termino batzuetan ulertzea. Alde batetik, interesak birplanteatzea suposatzen du. Izan ere, agerikoa da ezezkoaren atzean kapitalaren epe laburreko interesak daudela, eta ez benetako ezinezkotasuna edo alternatiba eza. Kontua da ez dela “errentagarria” edo “erosoa”. Apodakaren hitzetan, “praxi eraldatzailea beti dago lekuz kanpo, beti da beste alderako, beste aldirako” (2018: 63). Hori dela eta, interesez gain, ezinbestekoa da pentsaera markoak ere birplanteatzea. Pragmatismoa hazkundearekin, errentagarritasunarekin, kopuruarekin... parekatzen den heinean eredu alternatiboak ez dira pragmatikoak izango. Zentzu horretan ere merkatuaren zentralitateari aurre egin behar zaio (Pérez Orozco, 2023: 16). Ametsek dioenez, distopia elikatzen duten galderak eta pentsamoldeak ez dira neutroak:

“Eta gero ere, distopiarekin gertatzen dena da, zein galdera egiten dizkiogu gure buruari, ez? Porque guri, guk planteatzen dugunean eredu desberdin bat posible dela esaten digute ‘sí, pero kopuru aldetik ezin izango da ze zuek gutxiago ekoizten duzue pupupum...’, baina es que igual galderak aldatu behar ditugu. En vez de zenbait ekoizti duzun, zenbat pertsoneri eman diezun jaten gaur. Es que galderak ere ez dira neutroak, ez? Eta hor ere asmatu behar da. Eta galderak distopia horiek elikatzeke eginda daude. Jendea egoteko geldi, ikaratuta”.

Agerikoa da, hortaz, praxi ekofeministak ezezko erantzun gehiago jaso izan dituela baieztekoak baino; eta, gainera, lan handia dagoela gizartean paradigma eraldaketa bat eragiteko, galderak (eta, bide batez, erantzunak) ekofeministotik idazten hasteko. Orduan, zentzurik al du borrokarekin jarraitzeak?

Distopiak alde batera utzi eta utopietan murgildu baino lehen, ezinezkoa zirudiena egingarria izan dela (edo izaten ari dela) erakusten dute bi pasarte jaso nahi izan ditut. Oihanak dioenez, “rallatzia, esperantza gabe, destruktibua” baita. Kasu honetan, Amets eta Alaitzek agroekologiaren aldeko aldarrikapenak egindako

aurrerakinen inguruan hitz egiten dute, “marcianadak” eta “hippien kontuak” ziruditen ameskeriak astiro-astiro gauzatu ahal izanak eragiten dien emozioaz:

“Gu ohituta gaude, eh? Guri denetarik deitu digute, danetarik. Hasi ginenean... zuk pentsatu EHNE Bizkaiak aldaketa estrategikoa 2000 urtean eman zuela gutxi gorabehera agroekologiaren eta elikadura burujabetzaren alde. Eta esaten ziguten... hippies... bueno, es que denetarik deitzen ziguten. Baina es que gaur egun Euskal Herrian elikadura burujabetzaz eta agroekologiaz hitz egiten da. Eta begira, gaur egun, unibertsitatean, zu ikertzen ari zara honi buruz, beste gauza batzuen artean, baina hor dago. Eta hau ez zen posible izango hemen ez balitz egongo sindikatu bat aldaketa estrategiko hori eman zuena” (Amets).

“Nik begirada botatzen det atzera, uain dala 30 urte hasi nintzala mobida hauetan, eta in da gauza pila bat, pila bat! O sea, orduan inor... orduan marcianada bat zan agroekologiataz hitz egitea edo nekazaritza agroekologikoaz hitz egitea. O sea zan... bueno, bueno, bueno! Ez zegoen kontsumo talderik... ez zegoen ezer! Ezer da ezer. Gauza asko in da, eh? O sea iruditzen zait lortu dala eragile batzuen mapan egotea, ez? Eta hori da bide baten emaitza. Nik uste dut dela jende askoren lorpena. Nik Amillubi horrela ikusten det, eh? Honea iritsi gea zerbaitengatik. Eta nei horrek betetzen nau... emozionatu ta dana iten nau” (Mirene).

4.4.2. Utopia eraiki: prozesuaren utopiak eta iraultza lurreratua

Hasteko, elkarrizketatuentzat utopia zer den aztertu nahi izan dut. Asko aipatu den ideia bat amestearena da; imajinatzearena, etorkizuna irudikatzearena... Argi dago utopiak etorkizun hobeagoen edo bizigarriagoen idealari loturik jarraitzen duela. Alternatiba eraikitzeke asmoarekin jarduten duten kolektiboak izanda, aztertutako talde guztiek gertukoa dute utopia. Mireneren hitzetan, gizartearen eraldaketa lortu nahi dutenentzat beharrezkoa da “utopiaren iparrorratza”. Bestela, Alaitzek dioenez, oso zaila da alternatiba imajinatzea:

“Utopia azken finean da zerbait irudikatzea eta horren bila bidea aurkitzea. Orain ekologismoan eta ekososialismoan asko lantzen dena da zer bestelako bizi-ereduak irudikatu behar ditugun pixkat bat gauzak aldatu ahal izateko. Eta horretarako imajinazio pixkat bat sartu behar diogu, utopiatik edo... Gizarte oso baten eraldaketa eta sistema oso baten eraldaketa egun batetik bestera ezin da pasatu. Orduan, bueno... etorkizun utopikoak irudikatu beharko ditugu bideak egiten hasteko” (Alaitz).

Errealismo kapitalistaren eta probableen pragmatismoaren garaian (Fisher, 2016; Apodaka, 2018) irudimena behar da bestelako errealitate posibleek izan dezaketen antolakuntzara hurbiltzeko. Alabaina, pentsaera utopikoaren ikuspegi hau ez da utopiaren adiera klasikotik gehiegi aldentzen, eta idealtasun eta urruntasun horrek

ezinezkotasunaren kutsu bat du oraindik ere, gauzatu ezin den fantasiarena. Oihanak, esaterako, zalantzak ditu Amillubi deskribatzeko “utopiko” adjektiboa erabiltzearen inguruan:

“A ver, es que según zer dan utopia. Nik ulertzen badet utopia... neretzat utopiak daka... inposibletik. Ordun ez, Amillubi ez da utopikua ze egingarria da. Baina iruditzen zait beste errealitate bizigarri edo hobiak irudikatzen lagundu dezakeen proiektu bat dala. Ez dala isla baten edo oasi baten geatzen, ingurura kontajiau nahi dun proiektu bat dala. Ordun, utopia, ba ez dakit”.

Utopikoaren eta egingarriaren arteko talka ageri da Oihanaren hitzetan: Amillubi ezin da utopikoa izan, egingarria delako. Mirene bat dator Oihanarekin; proiektuak “ameskeria” puntu bat duten arren, egingarria da. Haatik, Mirenerentzat utopia eta egingarritasuna bateragarriak dira:

“Uste dut gehiago sinistu behar dugula utopiatan. Eta esperantza ematen digun hori politizatu egin behar dala eta horrei heldu behar diogula egunerokotasunetik. Ordun, ez nuke jakingo esaten. Utopia bat da? Bai, egiten ari garen utopia bat, eraikitzen ari garen utopia bat, egunerokotasunetik eraikitzen ari garen errealitate bat, egitetik. Utopia errealitate bihurtzen ari da. O sea, ez da utopia ameskeri bat, amesten ari garen utopia bat da baina ez da ameskeri bat”.

Ametsek ere bat egiten du ikuspuntu honekin; orainaldian estrategikoki antolatzen bagara, utopia egingarria da:

“Utopia ez da inoiz lortu ezin duzun zera bat. Azkenean estrategia da eduki behar dena. Estrategiaz hitz egiten dugunean da: zein da gure eszenatokia hemendik 40 urtera? Eta orduan, gero asmatu behar da ondo taktikan ere bai. Ba hemendik 40 urtera amestu badugu edo gure estrategia hor badago kokatua, zer egingo dugu datorren 10 urteetan? eta datorren 20 urteetan? eta... o sea, utopia bat edukitzeak ez du esan nahi orden bat ez duenik, ez egingarria ez denik. Gero igual taktiketan ez dugu asmatuko edo erratu gaitezke. Baina guk norabidea badakigu zein den. Eta hori da garrantzitsua, hori da utopia guretzat”.

Mireneren eta Ametsen hitzetan utopia berriaren zentzua antzeman dezakegu. Utopiak amesteari loturik jarraitzen du, baina amestutako hori orainaldian gauzatu egin daiteke. Kasu honetan, Oihanak aipatutako irlaren (ez-lekuaren) kontrara, egunerokotasunean lurreratuta ageri da utopia, ekintza eta estrategia zehatzetan. Sargissonek aipatutako utopiaren denboraren aldaketa ere somatu dezakegu: etorkizunerako proiektioak orainaldi politikoan gauzatu behar dira (Sargisson, 1996). Zentzu horretan, elkarrizketatuek diote prozesu-logika jarraitzea ezinbestekoa dela,

hau da, gizartearen eraldaketa pausoz pauso pentsatu eta gauzatzea. Eta, aldi berean, prozesua bera dela utopia, eta ez helmuga (esan bezala, utopiak *zer* galderari erantzuteaz gain, *nola* galderari ere erantzun behar dio). Horrenbestez, aipatutako kolektiboetako kideen zaintza, espazioen bizigarritasuna, aliantzak eraikitzea eta abar ezinbestekoak dira. Oihanaren hitzetan, “prozesuak ere utopikoa izan behar du helmuga utopiko bat nahi badegu, gure prozesuaren araberakoa izango da izango dana”.

Halaber, utopia ez da zerbait itxia edo finkoa, komunitatean erabaki beharko da zein den eraiki nahi dugun gizarte eredua eta hori lortzeko zein politika edo ekintza gauzatu behar diren. Eztabaidakolektibo hori sustatzea beharrezkoa bezain konplexua da, baina elkarrizketatuek uste dute badagoela nondik hasi. Izan ere, feminismoa, antiarrazismoa, subiranotasuna, ekologismoa, euskararen defentsa... ardatz amankomunak dira eraiki nahi den etorkizun horretan. Gakoa, Alaitzen arabera, eztabaida sozial ireki eta demokratikoa sustatzea da:

“Ez daukagu formula magikorik, baina bueno, hori kolektiboan nahi dugu landu. Bestelako talde sozialekin guztiok batera beste mundu posible bat irudikatzea. Nahi duguna da konplexutasun horretan modu parte-hartzailean eta modu kolektiboan edo demokratikoan apur bat eragin eta denon artean beste zerbait asmatu”.

Kolektiboen arteko eztabaida sozialaz gain, kolektiboen baitan ematen diren etengabeko birnegoziaketak ere prozesu utopikoaren parte dira. Orain ideala denak ideala izateari utz dakiok; edo, Ametsek dioenez, norabidea argi izanda ere emandako pausuetan nahastu gaitezke, atzera egin behar izan. Gemak ere aipatzen du txikitasunetik eragitea “ez dela prozesu linearra, eta ezta erraza ere”. Mabelek, urte luzez era komunitarioan bizi ondoren, argi dauka gizartearen eraldaketarekin konprometituta bagaude, gu geu ere eraldaketarako prest egon behar garela eta atzerapauso horiek ez direla zerbait negatiboa. Lakaben ardatz etiko edo politiko batzuk irmo jarraitzen duten arren, etengabe eraldatzen eta egokitzen doan utopia da:

“La vida da muchísimas vueltas y nosotras estamos dispuestas a dar vueltas con ella. Cada tema que nos ha atravesado lo hemos ido trabajando, también para ver cómo sería ese tema en eje con la vida y con las necesidades de la humanidad. Son procesos, y algunas veces lo tenemos más claro y otras veces hay que indagar. Es un proceso de transformación. [...] La utopía también se transforma porque los tiempos cambian y nosotras cambiamos. Entonces hay que hacer más trabajo para volver a situarnos. A veces cuando nos damos cuenta de que hemos hecho cosas en automatismo y no nos han gustado, pues las hemos quitado, las hemos vuelto a hacer. Nuestra utopía va avanzando y cuando vemos que nos hemos sobrepasado pues retrocedemos.

Entonces, cuando tenemos que hacer algo nuevo pensamos mucho en cómo era nuestra utopía, cómo sigue siendo nuestra utopía y qué queremos añadirle a esta utopía” (Mabel).

Utopia ekofeministen izaera ez-linear eta konplexuari lotuta, kontuan hartu beharreko beste faktore bat hurrengoa da: utopiak nahitaez “guztia kontra” duten errealitate batean txertatzen direla maiz. Haientzat utopiak zentzu positiboa badu ere, utopia gauzatzeko prozesua gatazkatsua eta “desesperantea” izan daitekeela aipatzen dute elkarrizketatuek. Hortaz, funtsezkoa da errealistak izatea eta erromantizazioan ez erortzea. Honen harira, Mirenek dio utopiaren eta esperantzaren diskurtsoak oso baliagarriak badira ere, errealitatearen krudeltasuna ere aitortu behar dela:

“Falta zait lurreratzea, ez? Ze gero errealitatea oso jodidua da. Rallatu in ber gea, ze egunerokotasunian topatzen zarenakin, jasotzen dezun bortizkeriak, instituzioek holako proiektu bat martxan jarri ber dezunian hostiatzen zaituzte por todas partes... Hori oso nekagarria da eta hori da errealitatea. Que me venga a mí Yayo hablando de no sé qué. Ez dakit nola esan. Ordun, claro, behar da rallatzia. Baina, hala guztiz ere, nik uste det behar dala utopia”.

Amaitzeko, utopia txikitasunetik eraikitzeak duen zentzuaren inguruan elkarrizketatuek egindako zenbait hausnarketa jaso nahi izan ditut. Gizartearen eraldaketaz hitz egiterakoan askotan aipatzen den kontzeptu bat iraultzarena da. Lehen azaldu bezala, marxistentzat praxia iraultzara bideratutako jarduna da (Sánchez, 2003). Eta, iraultza, sarritan, eraldaketa makro edo unibertsal gisa ulertzen da. Krisi ekologikoa, genero desberdintasuna, langileen esplotazioa, arrazismoa... eta guzti horren atzean daude logikak hain handiak dira, non badirudien lurreratutako alternatiba txiki eta lokalak “paliatiboak” edo “ilusio faltsuak” direla, “sistema kapitalista konplexuegia, abstraktuegia, globalegia edota totalizatzailegia dela sentitzean iraultzaren ordeztu hartzen dugun sendabidea” (Apodaka, 2018: 70).

Elkarrizketatuen arabera, ekimen kokatu txikien eta “iraultza handiaren” arteko bereizketa ez da erreala, dilema faltsu baten aurrean jartzen gaitu. Gizartea eraldatzeko bi estrategiak bateragarriak dira eta batak bestea elikatzen eta ahalbideratzen du:

“Iraultza handi bat behar da, hori argi dago. Baina klaro, iraultza hori ez badator oinarritik, iraultza txiki horietatik... Biak batera, o sea ez dago bata bestearen kontra. Norbaitek pentsatu behar du txikian eta beste norbaitek handian, eta hori horrela da. O sea, egotea eskualde baten agroasanblada bat eta gero egotea Euskal Herri mailan elikadura sistema diseinatuko duena. Eta biak batera, biak uztartuz, elkarrekin lan handia egiten. Horrela lortuko dugu, es que ez dakit, imposiblea da iraultza handi bat

ematea iraultza txikirik gabe, baina alderantziz ere bai, ze zuk behar duzu nolabaiteko norabide politiko makroago bat. Ze bestela zure eskualdean gelditzen zara ba bueno, bai, ondo. Baina hemen nahi duguna da mundua aldatu, eta hori denok batera egingo dugu. Orduan, horregatik biak eman behar dira. Ez da inkopatiblea” (Amets).

Gainera, Mabelek dioenez, “la revolución tiene muchas caras”. Eta, zenbait kasutan, gure bizimodua bera iraultza gauzatzeko modua izan daiteke. Bere ustez, etengabeko borrokan eta mugimenduan dagoen iraultzak ez du benetako eragina izango gure eguneroko bizitzan barneratzen ez badugu. Kolektiboan bizitzea, natura errespetatuz, taldeko kideen askatasuna eta berdintasuna bermatuz, prozesua zainduz... hori ere erresistentzia da:

“Aquí la revolución coge otro ritmo y está en otro estado. Quiero decir, el mero hecho de vivir aquí... es lo que hacemos, nuestra revolución es vivir aquí. Mantener este espacio, sostener este vértice ético que hemos elegido y aportar esta información al mundo. Esta es nuestra revolución. No es estar todo el rato en la calle. Que estás muchas veces en la calle porque apoyas esto, lo otro y lo del más allá y hay que hacer eso también. Pero es que solo eso sin esto... si no se materializa en la vida cotidiana de las personas la lucha, esa lucha al final no tiene efecto, se va por sí misma. Y claro, luego dices: ‘hostia, he metido 30 años aquí y no tengo resultados’, pues es que no está insertado en la vida. Yo creo que es al revés, quiero decir, que nuestra vida es nuestra revolución y de vez en cuando vamos a la calle a gritar, o a manifestarnos o colocar un punto de atención sobre las cosas que se están yendo demasiado lejos. Pero lo más importante es que las personas vivan su revolución”.

Egia da Mabelen bizimodua gehiengoaren oso bestelakoa dela, baina, berriz ere, gizartearen eraldaketa ulertzeko moduari buruzko gakoak ematen dizkigu. Gaia gizarte mugimenduen esparrura ekarriz, Mirenek dio berdin duela gure proiektuak alternatiboak izatea asmoetan eraldaketa hori gure kolektiboeko prozesuetan eta kolektiboen parte direnen bizimoduetan sostengatu ezin bada. Bere hitzetan, “horrela eraikiko dugu utopia erreal bat, benetan sakona, sustraiak dituen”.

5. ONDORIOAK ETA HAUSNARKETA KRITIKOA

Analisian zehar aztertutakoan oinarriturik, ondorioztatu genezake aztertutako kolektiboetan praxi ekofeminista garatzen ari dela eta, talde anitzak izanda ere, hainbat begirada, diskurtso, praktika, eta oztopo amankomunean dituztela. Dena den, praxi horren geruza desberdinetan murgiltzerakoan, begi-bistakoa da praxi hori maila diskurtsiboan maila aplikatuagoan baino gehiago barneratu dela; eta, oraindik ere, oztopo askori aurre egin behar zaiela gizartean eragin ahal izateko.

Lehenik, praxi diskurtsiboari dagokionez, agerikoa da krisi ekosozialaren aurrean lurraren defentsa feminismoarekin uztartzearen beharra orokortua dela aztertutako kolektiboetan. “Ekofeminista” adjektiboa bereganatzearen inguruan ezbaiti ageri diren arren, elkarrizketatuek argi dute natura suntsitzen duen (eta bide batez, euren kolektiboen jarduna oztopatzen duen) merkatuaren zentralitate material eta politikoak zerikusi handia duela androzentrismoarekin eta egitura patriarkalekin. Finean, kapitalismo heteropatriarkalaren buru askotako munstroaren aurrean, ekofeminismoak analisi kritiko aproposa eskaintzen du eta, diskurtsiboki behintzat, espazio alternatiboetan eragiten ari da.

Kolektibo hauetan garatzen ari diren diskurtso eta analisiak feminismoaren baitan ematen diren eztabaidak ere aberasten dituztela esango nuke. Esaterako, bereziki interesgarria da zaintzaren inguruko analisisetan lurraren zaintza txertatzeko aldarrikapena. Krisi ekosoziala bezalako erronka bati feminismitik heldu nahi bazaio, eta alternatiba feminista bat eraiki nahi bada, premiazkoa da zaintzaren inguruko begirada antropozentrista alboratzea. Bestetik, lurtean egoteko eta egiteko modu berriak arakatu nahi baditugu, feminismo hegemonikoaren marjinetan dauden ahotsak aintzat hartzeko beharra azpimarratzen da. Horren harira, feminismoak benetan interseksionala izan nahi badu, praxi ekofeministan hain agerikoa den hiri-landa haustura aintzat hartu beharko da, eta bide batez, begirada hirizentrista deseraiki. Dena den, badirudi Euskal Herriko mugimendu feministan aurrerapausuak ematen ari direla zentzu horretan eta urte luzez periferikoa izan den landa-eremuko begirada pixkanaka txertatzen ari dela.

Praxi ekofeministaren geruza aplikatuagoan, haatik, oztopoak nabarmenagoak dira. Kolektiboen barne-antolakuntzari dagokionez, ikus dezakegu espazioen bizigarritasuna bermatzeko beharra areagotzen ari dela eta behar horri erantzuteko hainbat estrategia martxan jarri direla (azpitaldeetan antolatzea, taldekoen artean konfiantza eta elkar-zaintza lantzea, hitzaren erabilera partekatzea, formakuntzak edo kanpo-fazilitazioak egitea...). Hala eta guztiz ere, desiratutako

antolakuntza ereduetatik urrun egotearen sentimendua partekatua da. Beraz, barne-antolakuntzan ere badago zer landu, batik bat espazio maskulinizatueto erresistentziei, lidergo eredu feministei eta denboraren auziari dagokienez. Denboraren arazoa bereziki interesgarria iruditzen zait, eta ikuspuntu ekofeministatik gehiago landu beharrekoa. Izan ere, Sagastizabalek dioenez, oso zaila izango da utopia eraikitzea “ukroniarik” gabe.

Kanpo-harremanei dagokienez, praxi ekofeminista sartzeko dauden zailtasunak mahaigaineratu dira. Eraldaketarako iparrorratz partekatu bat badute ere, ez da erraza epe luzerako aliantza sustraituak garatzea: konfiantza faltaz gain, askotan kolektibo bakoitzak bere ikuspuntua edo jarduna lehenesteko joera du. Hori dela eta, aniztasuna kudeatzen eta gorputz kolektiboen arteko harremanak zaintzen ere ikasi behar da, alternatiba txikien arteko zubi horiek ere bizigarriak izan daitezten. Kontrahegemoniatik abiatutako aliantza hauek bereziki estrategikoak dira praxi ekofeminista garatu ahal izateko. Izan ere, ustez “berdeak” eta “moreak” diren politikak, legeak zein diru laguntza programak oraindik ere merkatu logiken arabera funtzionatzen dute. Harreman instituzionala sustatzea beharrezkoa dela mahaigaineratu dute elkarrizketatuek, eta egia da zenbait kasuetan (maila lokalean bada ere) harreman hori positiboa izan dela. Haatik, begi-bistakoa da erakunde publikoak bizitzaren iraunkortasuna mantentzea xede duen begirada ekofeministatik oso urrun daudela oraindik ere.

Bestalde, esango nuke praxi ekofeminista kokatuaren eta utopiaren arteko lotura nabarmena dela. Egia da distopiaren eta kolapso ekologikoaren inguruko diskurtsoek, hein batean, egoeraren larritasunaz kontziente izatera eramane gaitzaketela. Haatik, gehienetan, paralisi politikora garamatzate. Kontestu honetan, gizartearen individualizazioa sistemaren estrategiatzat ikusten da, ezgaitasun eta erru sentimenduak areagotzen baititu. Elkarrizketatuek argi dute ezinezkotasun horri aurre egiteko irtenbidea kolektiboan amestea eta antolatzea dela. Baina, berriro ere, antolakuntza kolektiboa oztopoz beteta dago (eta, horregatik, hobe da erromantizazioan ez erortzea). Kopurua, errentagarritasuna nahiz epe-laburreko interesak hobesten dituen sisteman, leku gutxi dago utopia ekofeministarentzat. Interesgarria iruditzen zait, zentzu honetan, distopiaren galderen neutraltasuna kuestionatzearen proposamena. Ezezkoaren aurrean, alternatibaren posibilitatea aldarrikatu behar da, (begirada kapitalistatik) komenigarria ez den arren, egingarria dena.

Hor sartzen da pentsaera utopikoa. Esanguratsua iruditzen zait aztertutako taldeek pentsaera utopikoaren garrantzia aldarrikatzea eta orokorrean haien proposamen eta proiektuak deskribatzeko “utopiko” hitza bereganatzea (hitzaren zentzu positiboan). Gainera, haientzat utopia ez da etorkizuneko irudikapen perfektu eta gauzatu-ezina. Eraikitzen ari diren utopiak egingarriak dira, prozesura bideratutakoak, inperfektuak, atzera eta aurrena doazenak, kolektiboan eztabaidatuko direnak, txikitasunetik eraikiko direnak, lekutu egingo direnak... Hego Euskal Herrian garatzen ari den praxi ekofeministan utopia berri feministen ezaugarri asko identifikatu daitezke. Horrenbestez, berresten dut praxi ekofeminista aztertzea, utopiaz pentsatzeko abiapuntu aproposa izateaz gain, utopia hori gure testuinguru jakineko egunerokotasunean zertan zeratzen den arakatzeko ere oso lagungarria zaigula.

Orain arte ikerketako ondorio nagusiak jaso eta horien inguruan hausnartu dut. Alabaina, ikerketan, utopietan bezalaxe, prozesua helmuga bezain garrantzitsua da (garrantzitsuagoa ez bada), eta, beraz, ikerketa prozesuaren irakurketa kritiko bat egitea ere interesgarria dela deritzot. Orokorrean, uste dut diseinu metodologikoa eta kolektiboen aukeraketa aproposa izan dela ikerketaren helburuei erantzun ahal izateko, eta horretarako erabili den testuinguru teorikoak lagundu duela ikerketaren zentzua eta konplexutasuna argitzen. Dena den, badaude hobetzeko edo hurrengo ikerketetan kontuan hartzeko bi alderdi. Alde batetik, uste dut interesgarria izango litzatekeela praxi ekofeminista ikuspuntu dekolonialetik lantzen duten kolektiboen diskurtso eta praktikak aztertzea. Izan ere, analisisan zehar begirada interseksionala txertatu dudan arren, hiri-landa hausturara mugatu da batik bat (aztertutako kolektiboen eta elkarrizketatuen ezaugarriengatik, baita ere). Hego Euskal Herrian begirada dekolonialetik feminismora ekarpen interesgarriak egiten ari dira, eta nago praxi ekofeministari ere ongi etorriko zitzaiola pribilegio zuriaren inguruko hausnarketan sakontzea. Bestetik, erabilitako ikerketa-teknikei dagokienez, sakoneko elkarrizketak egiteaz gain, kolektiboetako kideekin elkarrizketa kolektiboak edo eztabaida taldeak egitea gustatuko litzaidake, jasotako hausnarketak ere kolektiboagoak izateko.

Halaber, etorkizunean gaiari berriro heltzekotan, kolektibo hauen baitan garatzen ari diren subjektibitateetan fokua jartzea bereziki interesgarria iruditzen zait. Ekofeminismoek “subjektuen kolonizaziotik” nola aska edo deskolonizatu gaitzaketen aztertu nahiko nuke, kolektibitateetik abiatzen diren bestelako izateko eta egiteko moduak pentsatu eta gauzatzera lagundu gaitzakeelakoan bainago. Behin eta berriro hitz egiten da paradigma aldaketaren beharraz, badirudi utopia gauzatu ahal

izateko gakoa hori dela. Haatik, paradigma aldaketa ez da egun batetik bestera era indibidualean gertatuko den “click” bat, pixkanaka landu behar da eta kolektiboarekin ezinbesteko lotura du. Kolektibo eraldatzaileak “utopiaren laborategiak” diren heinean (Pascual eta Herrero, 2011), interesgarria izango litzateke praxi ekofeministaren analisiaren bitartez subjektibitatearen inguruan ematen ari diren hausnarketa eta eraldaketei erreparatzea.

Amaitzeko, esan beharra daukat ikerketa prozesua askotan desesperagarria den arren, lan hau idazteak, pertsonalki, esperantza ere ekarri didala, antolakuntza kolektiboaren indarrak eta bestelako munduetan sinistek eragiten duen esperantza; eta, bide batez, espero dudala irakurlearengan ere txinparta hori (ber)piztu izana. Etorbizuna ez dago idatzita. Idatzi daiteke utopia distopia baten erdian.

Bibliografia

- Aboitiz Hidalgo, Uzuri (2018). "Zaintzak erdigunera? Aukerak, mugak eta zenbait galdera". *Jakin* 227-228: 101-116.
- Álvarez Molés, Pili (2012). *Movimientos sociales, relaciones de género y cultura. El caso de los gaztetxes en Euskadi*. Emakunde.
- Apodaka Ostaikoetxea, Eduardo (2018). "Praxia: pragmatismoa eta utopia elkartzen diren tokia". *Jakin* 227-228, 63-99.
- Azkarraga Etxagibel, Joseba. (2014). "'Harrigintza' berria. Apunteak hazkunde-osteko euskal herrigintzaz". *Jakin* 202, 11-43.
- ___ (2020). "Ekodistopia prospektiban, EHkopia perspektiban". *Jakin* 239, 49-74.
- Baños Ruiz, Irene (2023). "Ecoansiedad: de la parálisis a la acción climática y ambiental". *Papeles de relaciones ecosociales y cambio global*, 160: 79-90.
- Barcena Hinojal, Iñaki (2015). "Ekosozialismo feminista zibilizazio-krisiaren aurrean". *Jakin* (On-line), eskuragarri hemen: <https://www.jakin.eus/gogoeta/artikuluak/ekosozialismo-feministabrzibilizazio-krisiaren-aurrean/125> (Kontsulta eguna: 2024/01/05).
- ___ (2018). "Ekosozialismo feminista, utopia berri bat?". *Jakin* 227-228, 127-148.
- ___ (2020). "Lila, rojo y verde juntos. Debates y prácticas ecosocialistas feministas en Euskal Herria (1990-2020)". *E-cadernos CES* (On-line) 34, 86-108, eskuragarri hemen: <https://doi.org/10.4000/eces.5590> (Kontsulta eguna: 2023/12/15).
- Barcena Hinokal, Iñaki; Larrinaga Arza, Josu; eta Ormazabal Gastón, Andere (2020). "Herri-mugimenduen jardunbideak, eraldaketa, eta elkarlanak sozioekologian", Mari Luz Esteban (arg.), *Komunitateak ehunduz herri ekimenetatik*. Bilbo: EHU/UPV. (63-68).
- Barba Gassó, Marta; Guilló Arakistain, Miren; Zabalo Bilbao, Julen; Luxán Serrano, Marta; Arana Arrieta, Edorta; eta Barcena Hinojal, Iñaki (2022). *Euskal Herriko gizarte-mugimenduak pandemia garaian. Egoeraren ondorioak, egokitzapenak eta eszenatoki berriak*. Bilbo: EHU.
- Bayas Fernández, Blanca; Begiristain Zubillaga, Mirene; González Pijuan, Irene; Guiteras Blaya, Mónica; Pérez Lázaro, Ruth; eta Pérez Orozco, Amaia (2022). *Inbertsio publikoak trantsizio ekofeminista ahultzeko bide berria* *Ekonomia suspertzeko eta*

eraldatzeko bost proiektu estrategiko aztergai. Bilbo eta Bartzelona: Colectiva XXK, Observatori del Deute en la Globalització, Omal; Enginyeria Sense Fronteres. Eskuragarri hemen: <https://colectivaxxk.net/wp-content/uploads/2022/12/Maquetacion-pertes-eu-web.pdf> [Kontsulta eguna: 2024/08/26).

Begiristain Zubillaga, Mirene (2021). "Ekofeminismoen txirikordak". *Jakin* 245-246, 25-55.

Biglia, Barbara (2015). "Avances, dilemas y retos de las epistemologías feministas en la investigación social", Irantzu Mendia et al. (ed.), *Otras formas de (re)conocer. Reflexiones, herramientas y aplicaciones desde la investigación feminista*. Bilbo: Hegoa, Sinref, UPV/EHU. (21-44).

Blanco Alvarez, Josebe (2022). "Hitzaurrea", Leire Milikua, *Lur gainean, itzal azpian. Emakume nekazariak eta parte hartzea*. Zarautz: Lisipe. (11-14).

Bosch Pareras, Anna; Carrasco Bengoa, Cristina eta Grau Biosca, Elena (2005). "Verde que te quiero violeta. Encuentros y desencuentros entre feminismo y ecologismo", Enric Tello (argitz.), *La historia cuenta. Del crecimiento económico al desarrollo humano sostenible*. Bartzelona: El Viejo Topo. (1-24).

Bullen, Margaret eta Hernández García, Jone Miren (2010). "Generoaren kontzeptua". *Auñamendi Eusko Entziklopedia*, eskuragarri hemen: <https://aunamendi.euskonikaskuntza.eus/artikuluak/artikulua.php?id=eu&ar=152507#> [Kontsulta eguna: 2024/06/12]

Carrasco Bengoa, Cristina (2003). "La Sostenibilidad Humana: ¿un asunto de mujeres?", Magdalena León (konp.), *Mujeres y trabajo: cambios impostergables*. Porto Alegre: Veraz Comunicação. (5-25).

___ (2016). "Sostenibilidad de la vida y ceguera patriarcal. Una reflexión necesaria". *Atlánticas. Revista Internacional de Estudios Feministas* 1, 34-57.

Crenshaw, Kimberle (1989). "Demarginalizing the Intersection of Race and Sex: A Black Feminist Critique of Antidiscrimination Doctrine, Feminist Theory and Antiracist Politics". *University of Chicago Legal Forum*: 136-167.

de Gonzalo Aranoa, Isabel eta Urretabizkaia Gil, Leticia (2012). *Las mujeres baserritarras: análisis y perspectivas de futuro desde la Soberanía Alimentaria*. Abadiño: Baserripress.

Emakunde (2021). *Garraioa eta mugikortasuna. Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa*. Eskuragarri hemen:

https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_evaluaciones_2/eu_def/adjuntos/ms_garraioa_mugikortasuna.pdf [Kontsulta eguna: 2024/07/19]

- Esteban Galarza, Mari Luz (2017). *Feminismoa eta politikaren eraldaketak*. Zarautz: Lisipe.
- Esteban et al. (2020). *Komunitateak ehunduz herri mugimenduetatik*. Bilbo: EHU/UPV.
- Euskal Herriko Bilgune Feminista; Emagin (2022). *Araka ditzagun gure bazterrak. Kritika dekolonialak zeharkaturiko ibilbide bat*. Zarautz: Lisipe.
- Falkner, Robert (2019). "The unavoidability of justice –and order- in international climate politics: From Kyoto to Paris and beyond". *The British Journal of Politics and International Relations* 21 (2): 270-278.
- Fisher, Mark (2016). *Realismo Capitalista ¿No hay alternativa?*. Buenos Aires: Caja Negra Editora.
- Gandarias Goikoetxea, Itziar eta García Fernández, Nagore (2015). "Producciones narrativas: una propuesta metodológica para la investigación feminista", Irantzu Mendia et al. (ed.), *Otras formas de (re)conocer. Reflexiones, herramientas y aplicaciones desde la investigación feminista*. Bilbo: Hegoa, Sinref, UPV/EHU. (97-110).
- Garmendia Castaños, Alba (2018). "Ezaren gudaz baietza sortuz. Utopia klasikoa eta berria". *Jakin* 227-228, 45-62.
- Goikoetxea Mentxaka, Jule; Lujanbio Etxeberria, Lore; Rodriguez Lara, Zuriñe eta Garai Artetxe, Estitxu (2020). *Euskal Demokrazia Patriarkala*. Donostia: Elkar.
- González Gil, Teresa (2009). "Flexibilidad y reflexividad en el arte de investigación cualitativa". *Index de Enfermería* (edizio digitala) 18 (2): 121-125. Eskuragarri hemen: https://scielo.isciii.es/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S1132-12962009000200012&lng=es&tlng=es [Kontsulta eguna: 2024/08/12]
- Guilló Arakistain, Miren; Luxán Serrano, Marta; eta Esteban Galarza, Mari Luz (2020). "Kulturarteko Plaza Feminista. Hernaniko Emakumeen Etxea", Mari Luz Esteban (arg.) *Komunitateak ehunduz herri mugimenduetatik*. Bilbo: EHU/UPV. (55-62).
- Haran, Joan (2010). "Redefining Hope as Praxis". *Journal for Cultural Research* 14 (4), 399-408. DOI: 10.1080/14797581003765341
- Herrero López, Yayo (2015). "Apuntes introductorios sobre el Ecofeminismo". *Boletín Electrónico de Hegoa*, eskuragarri hemen:

<https://publicaciones.hegoa.ehu.eus/publications/334> [Kontsulta eguna: 2024/05/20].

__(2016). “Economía Feminista y Economía Ecológica, el Diálogo Necesario y Urgente”. *Revista de Economía Crítica* 92: 144-162.

Intergovernmental Panel on Climate Change (2022). *Climate Change 2022: Impacts, Adaptation, and Vulnerability*. Eskuragarri hemen: <https://www.ipcc.ch/report/ar6/wg2/> [Kontsulta eguna: 2024/06/10].

Joxemi Zumalabe Fundazioa (2014). *Dabilen harriari goroldiorik ez*. Eskuragarri hemen: <https://ia801004.us.archive.org/30/items/Dabilenharriarigoroldiorikez/DHGE-1.pdf> [Kontsulta eguna: 2024/08/02].

Khalfan, Ashfaq et al. (2023). “Igualdad Climática: Un Planeta para el 99%”. *Oxfam Intermón*, eskuragarri hemen: <https://www.oxfamintermon.org/es/publicacion/igualdad-climatica-planeta-99#> [Kontsulta eguna: 2024/01/07].

Martínez Palacios, Jone. 2007. “Ekofeminismoa, garatzeke dagoen teoria. Inguru-feminismoaren gatazken hastapenak”. *Uztaro* 62: 99-116.

Martínez, Layla (2020). *Utopía no es una isla*. Madril: Episkaia.

Mediavilla, María-Eugenia; Medina-Quintana, Silvi eta Torres-Gutiérrez, Francisco José. (2023). “Los Discursos Ecofeministas de las Asociaciones Ecológicas. Estudio de casos en Sevilla (España)”. *ANDULI. Revista Andaluza de Ciencias Sociales* 24, 81-101. <https://doi.org/10.12795/anduli.2023.i24.04>

Mellor, Mary (2000). *Feminismo y Ecología*. Mexiko Hiria: Siglo Veintiuno Editores.

Mies, Maria eta Shiva, Vandana (1993). *Ecofeminism*. Londres: Zed Books.

Milikua Larramendi, Leire (2022). *Lur gainean, itzal azpian. Emakume nekaraziak eta parte hartzea*. Zarautz: Lisipe.

Pascual Rodríguez, Marta eta Herrero López, Yayo (2011). “Mujeres ecologistas y urbanas ¿algún vínculo especial con la vida?”. *Investigaciones Feministas* 1: 67-76.

Pazos Morán, María (2018). *Contra el patriarcado. Economía feminista para una sociedad justa y sostenible*. Iruñea: Katakarak Liburuak.

- Pérez Orozco, Amaia (2014). *Subversión Feminista de la Economía. Sobre el Conflicto Capital-Vida*. Madril: Traficantes de Sueños.
- ___(2023). *Ekofeminismoak. Bizitzari eustea eta gorputza-lurra lurraldea zaintzea*. Bilbo: Hegoa Institutua.
- Puleo García, Alicia H. (2011). *Ecofeminismo Para Otro Mundo Posible*. Madril: Ediciones Cátedra.
- ___ (2017). “La utopía ecofeminista”. Juan José Mayo (ed.) *La Utopía, Motor de la Historia*. Madril: Fundación Ramón Areces. (117-136).
- Sagastizabal Emilio-Yus, Marina (2020). *Hiruki gatazkatsua. Etxeko eta zaintza lanen, enpleguaren eta parte hartze soziopolitikoaren inguruko hausnarketak*. Zarautz: Lisipe.
- Sánchez Vázquez, Adolfo (2003). *Filosofía de la Praxis*. Mexiko Hiria: Siglo Veintiuno Editores.
- Sargisson, Lucy (1996). *Contemporary Feminist Utopianism*. Londres: Routledge.
- Sierra González, Ángela (2015). “Utopías feministas: las dualidades rotas”, Alicia H. Puleo (ed.) *Ecología y Género en Diálogo Interdisciplinar*. Madril: Plaza y Valdés. (186-203).
- Vallo Lerendegui, Mainer eta Saralegi Otamendi, Naiara (2024). “Gaur egungo sistema sozioekonomikoaren alternatiben azterketa: Desazkundera eta Bizitze Ona”. *Ekaia* 45, 245-258. <https://doi.org/10.1387/ekaia.24877>

Eranskina: elkarrizketa-gidoia

SARRERA

(Proiektua aurkeztu, grabatu eta transkribatzeko baimena eskatu, galdera informalagoak...)

KOLEKTIBOAK (eta barne antolakuntza)

1. Nola eta zertarako sortzen da (proiektu/elkartearen izena) ?
2. Zer ekintza eramaten dituzue aurrera?
3. Nola antolatzen zarete?
4. Zein estrategia erabiltzen dituzue parte-hartze espazioak zaintzeko? Uste duzu feminismoak horretan eragiten duela?
5. Nola kudeatzen dituzue barne-tentsioak, botere harremanak etab. ?

KANPORA BEGIRA

6. Beste gizarte-mugimenduekin aliantzak eta elkarrekintza bultzatzea interesgarria da?
7. Zein oztopo edo zailtasun aurkitu dituzue elkarrekintza horiek aurrera eramateko orduan?
8. Zein da zuen harremana erakunde publikoekin?
9. Diskurtso eta ekintza alternatiboak garatu nahi dituen elkarte/proiektu bat izanik, zein dira erakunde publikoekin aliantza bat egitearen alde estrategikoa eta arriskuak?
10. Gizartean, orokorrean, (zuek aldarrikatzen duzuenak) harrera ona daukala uste duzue? Mezua iristen da?

EKOFEMINISMOA

11. Erabateko krisi baten aurrean gaudela esaten da: ekologikoa, ekonomikoa, elikagaiena, zaintzarena... zein da krisi kontestu honen inguruan egiten duzuen irakurketa?
12. Zein zentzutan lotzen da feminismoa krisi ekosozialarekin?
13. Agroekologian/ mugikortasunean/ bizitza komunitarioan/ ekologismoan... begirada feminista txertatu dago? Zergatik da garrantzitsua begirada hori?

14. Eta feminismoa, ekologismoz/agroekologiaz... blaitzen ari da?
15. "Ekofeminista" adjektiboa jarriko zenioke proiektuari/elkarteari? Zergatik?

UTOPIA

16. Zuen ustez (proiektu/kolektiboaren izena) utopikoa da?
17. Ideia eta praktika eraldatzaileei askotan "utopiko" adjektiboa jartzen zaie, errealistak edo pragmatikoak ez direlako. Izaera utopiko hori ahulezia bat da?
18. Utopiak zerikusi handia dute distopiekin. Gaur egun pairatzen ari garen krisiak eta etorkizunerako egiten diren diagnostiko ezkorrak proposamen alternatiboak garatzeko orduan traba bat ala bultzada bat direla esango zenuke?
19. Zergatik da garrantzitsua da kolektiboan eragitea? Ekintza indibidualek badute lekuri eraldaketa sozialean?
20. Zergatik dira garrantzitsuak honelako iraultza txikiak maila makroan gauzak aldatzen ez diren bitartean?